

Zu hemen zaude. goiena

AGUR JENDETSU ETA SENTIKORRA ALKATEARI

Kantuekin, bertsoekin eta aurreskuarekin agurtu dute martitzenean hil zen Eugenio Otsoa, Leintz Gatzagako alkatea / 19



Jendetza batu zen atzo Leintz Gatzagan, Eugenio Otsoa alkateari azken agurra egiteko. Argazkian, udal agintariak eta udal agintari ohiak hilkutxa eroaten San Millan parrokiarantz. XABIER URZELAI

Bergarar bat onena Lanbide Heziketako tornularien artean

Miguel Altunako ikasle Denisse Guillenek irabazi du Espainiako Lanbide Heziketako ikasleen arteko tornularien lehiaketa / 20



Denisse Guillen, martitzenean, Bergarako Miguel Altuna Institutuan. JOKIN BEREZIARTUA







Ama-alaba ukrainarrak urtebete Oñatin, Errusiaren erasotik ihesi

Yula Krekoten eta Tania Oblomska pozik daude Oñatiko Pakelekun lanean; etorkizuna hemen irudikatzen dute / 4



Yula Krekoten eta Tania Oblomska. H.L.

SINADURAK

 MIKEL LEZAMIZ / 6	 JOANES PLAZAOLA / 22
 EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI / 9	 LOREA SUAREZ IBARGUREN / 29
 PALOMA MARTINEZ / 14	 IZAR ODRIZOLA / 40

'Irati' filma gaurtik aurrera ikusi ahalko da da zinema aretoetan

Kepa Errasti aretxabaletarra da Paul Urkijoren azken filmaren protagonistetako bat / 34



Kepa Errasti aktorea. DAVID HERRANZ

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70



puntu

Iturburuak, lurpetik azaleratzen diren altxorrak

Igor Elortza, 'Anonyme popular' ikuskizunaz

Bulegoa ireki berri du Goienerrek Arrasaten

Herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, arreta eskainiko dute astelehenetik egubakoitzera, baina kooperatibaren balioak eta printzipioak erakusteko nahia ere badute. Horrez gain, energia eta kontsumo eredu eraldatzeko asmoa ere badute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria DEBAGOIENA

Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak iaz zabaldu zuen lantokia Debagoiengan, baina orain beste urrats bat egin du: hain zuzen, bulegoa ireki du Arrasateko Zerkaosteta kaleko 15. zenbakian.

Herritarrengandik gertuago egoteko nahia du, eurei arreta zerbitzua eskaintzekoa, nabarmendu baitute "krisi energetiko batean egonik kontzientzia pizten saiatzeko" asmoa dutela; esaterako, eredu energetikoa eraldatzeko. Eta alderdi soziala sendotzeko boluntario-sarea ere indartu nahi dute.

Bada, azalpen horiek guztiak eta gehiago izan zituzten gogoan eguaztanean eginiko inaugurazioan. Dozenaka lagun batu ziren, eta, kooperatibaren hamargarren urteurrenaren errepaso egiteaz gain, esku artean dituzten erronken berri ere eman zuten. "Debagoienara ekarri nahi izan dugu Goiener, guretzat inportantea delako hemen ere presentzia izatea. Langileak bagenituela baliatuz, proiektua in-guru hauetan zabalteko aukera asko ditugu. Kooperatibaren balioak eta printzipioak zeintzuk diren erakutsi nahi dugu", adie-



Goienerekin eguaztanean inauguratu zuen bulegoa Arrasaten. MIREIA BIKUÑA

razi du Oier Etxeberrriak, Goienerreko kideak.

Gaur-gaurkoz, Euskal Herriko zazpigarren bulegoa da Arrasatekoa. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, Zarautzen eta Ordizian dituzte besteak.

Arreta zerbitzua egunero

Helburua erdiesteko, arreta zerbitzua emango dute bulegoan astelehenetik egubakoitzera arte, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Telefonoz izan daiteke, baina baita aurrez aurre ere; betiere, hitzordua eskatuta.

"Norbere beharrak pixka bat asetzeko, izan ditzakeen zalantzak eta galderak argitzeko, kontratua nola dagoen jakiteko, zer hobekuntza egin daitezkeen... Guk hemen jendea lagundu nahi diogu". Euren asmoa herritarrek "ahalik eta informazio gardenena" jasotzea baita, eta ez bakarrik kooperatibako kide direnek edo izan nahi dutenek, baizik eta herritar guztiak. "Energia kontuetan zerbait badakigu. Batez ere, argindar kontuetan, baina baita gasean ere, nahiz eta ez dugun saltzen".

Horretarako, arretarako pertsona bat egongo da bulegoan, eta beste hiru lagun ere arituko dira lanean; betiere, bailarako testuingurua eta beharrak kontuan hartuta jardunean.

Energia eredu, kezka

Ordea, zerbitzua eskaintzeaz aparte, Goienerreko kideek azaldu dute kooperatibak hasieratik izan duela izaera soziala, eta, horrenbestez, energia eta kontsumo eredu aldatzea ere badaela euren nahia. "Energia eskubide bezala ulertzen dugu, eta trantsizio energetiko justu eta duin baten aldeko apustua egingen dugu, inor atzean utzi gabe". Azpimarratu baitute pobrezia energetikoak "gero eta jende gehiagori" eragiten diola eta horri aurre egiteko tresnak eta proiektuak garatzen ari direla.

Hala, trantsizio energetiko justuan eta pobrezia energetikoan oinarritutako ekintzak bultzatu nahi dituzte, saregintzan eta mugimendu sozialekin elkarlanean. Formakuntzak eta hitzaldiak antolatu dituzte azken asteetan, energia eta merkatu elektrikoan oinarrituta. Baina gerora ere jendearen ahalduz-tzean jarriko dute arreta.

Hamar urteko bidea

Kooperatibaren jarduteko era hori da, eta bertako kideek uste dute "izugarritzko balentria" dela "ziurgabetasunez betetako merkatuan" hamar urte betetzea.

Egun, 16.000 bazkide baino gehiago dituzte; herritarrez gain, udalak, enpresak eta askotariko elkarteak. Energiaren alorrean behar dituzten zerbitzuak eskaini nahi dizkiete: energia aholkularitza orokorra, energia komunitateak... "Horri guztiorri heldu nahi diogu; helduko diogu".

'Goiena Okm gida' kalean da, diseinu berriarekin

Eskuko telefonoetarako egokitu dute; papereko eta ordenagailuko bertsioak ere izango dira

A.R.K. DEBAGOIENA

Goiena Okm gida kalean da, eta, batik bat, eskuko telefonoetan jarri dute arreta, gailuaren erabilera handitu egin delako.

Diseinu aldaketa egin diote eta hiru atal ditu, guztira: komertzioetan, Debagoieneko establezimenduen zerrenda dago. Atalak, negozio horien gaineko informazio emateaz gain, aukera ematen dio erabiltzaileari zuzenean komertzioetara deitzeko. Horrez gain, *Gidagram* izeneko eremuan negozioek eurek nahi dituzten argitalpenak egin ditzakete; adibidez, izan ditzaketen eskaintzak. Eta bada beste atal berri bat: *Jaso eta jan*. Etixerako janaria prestatzen dutenek euren eskaintzen berri eman dezakete eta erabiltzaileak telefonoz edo Whatsapp bidez egin dezake eskaera.

Papereko bertsioa

Ordenagailuan ere atal berberak agertuko dira, baina klasikoek izango dute papereko bertsioa ere. Hiru gida daude: Oñatikoa; Bergarakoa, Antzuolako eta Elgetakoa; eta Leintz bailarakoa, Aramaio barne. Online-rako sarbidea ere izango dute, ordea: komertzio bakoitzak bere QR kodea izango du.

ATEAK ZABALIK

Otsailaren 28an, 18:00etan

Martxoaren 22an, 18:00etan

Apirilaren 19an, 18:00etan

www.ale-aretxabaleta.eus • 688 81 14 89



ALE

ARETXABAleta

Lanbide Eskola

Lanbide Heziketako
Ikastetxe Integratua

Laneratzea errazteko proiektua martxan da

Debagoiena Lanean izenekoak bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsonen laneratzea du helburu. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin estrategian kokatzen da eta horren baitan bost proiektu garatuko dira Debagoiengan

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Bazterkeria egoeran dauden pertsonen laneratzea helburu duen proiektua da Debagoiena Lanean. Otsailean abiatu da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin strategiaren baitan kokatzen da; Gipuzkoako Foru Aldundia, Debagoieneko Mankomunitatea eta Debagoiena 2030 ekimena dira bultzatzaileak. Sustatzaileez gain, Lanbide Heziketako hezkuntza zentroek – Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroa eta Arizmendi Ikastola– eta gizarte mailan lan egiten duten entitateek –Sartu, Daiteke, LHL Lanbide Heziketaren Lagunak Elkartea eta Kallexa– hartuko dute parte.

Formakuntza bat, hasita

Ikastaroetako bat otsailean hasi da Miguel Altuna Institutuan. "Soldaduraren gainekoa da, baina gizarteratzeko edo laneratze-ko aberasgarri izango diren beste hainbat kompetentzia ere lantzen dituzte ikasleek", dio Miguel Altunako Miren Errastik. Proiektuak irauten duen bitartean 150-200 pertsonarekin lan egingo da eta helburua horietako 50en laneratzea izango da. "Helburu nagusia laneratzea bada ere, bidean beste helburu

batzuk lortuko dira; izan ere, pertsona guztiek laguntza integrala jasoko dute eta laguntza hori tutoretza pertsonalizatuen bidez egingo da", azaldu du D2030eko Proiektu arduradun Idoia Illarramendik. Soldadura ikastaroaz gain, Biltegi Kudeaketaren gainekoa ere egingo du Miguel Altunak. Programaren baitan, Arizmendi Ikastolak Eraikuntzen Mantenua formakuntza eskainiko du eta Mondragon Goi Eskola Politeknikokoan Hiri eta Industria Hondakinen Kudeaketa eta Energia Berriz-

tagarrien Instalazioen Mantenua. Debagoiena Laneanekin batera, beste lau proiektu garatuko dira Elkar-Ekin strategiaren baitan. "Duela hiru urte sortu zen DGLS –Debagoieneko Gizarteratze eta Laneratze Sarea–, non zaurgarritasun egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten hogeita hamar eragilek hartzen duten parte. Iaz, DGLSko proposatutako bost proiektu onartu zituen Foru Aldundiak", azaldu du Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako zuzendari Koldo Azkoitiak.



Soldadurako ikasleak Miguel Altunan eskolak hartzen. M.A.

Aurreikusitakoa baino 20 milioi gehiago Gipuzkoako udaletara

Gipuzkoak emaitza onekin itxi zuen 2022. urtea eta horrek mesede egingo dio udalen finantzaketari

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Gipuzkoako udalerriek 588.224.790 euro jasoko dituzte 2022. urteko Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik. Iaz baino 6 milioi gehiago, eta aurrekontuan jasota zegoena baino 20 milioi euro gehiago. Jokin Perona Ogasun eta Finantzaketako foru diputatuak nabarmendu duenez, Gipuzkoak "emaitza onekin" itxi zuen iazko urtea zerga bilketari dagokionez, eta, beraz, horrek "mesede" egingo dio Gipuzkoako udalen finantzaketari.

2022. urtekoa inoizko Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik handiena da, 6 milioi euro hobetu baitu orain arteko errekorra –joan den urtekoa–. Peronak nabarmendu du 2015etik hona –pandemiaren urtean izan ezik– Finantzaketarako Foru Funtsetaren zuzkidura urtero izan dela errekorrekoa. Ogasun eta Finantzaketa foru diputatuaren esanetan, baliabide horiek "nabarmen" hobetu dute lurraldeko udalen finantza posizioa.

Zenbatekoak herriz herri

Igoerarekin, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik honako zenbateko hauek jasoko dituzte Debagoieneko herriek: Antzuolak, 1.653.357,22 euro, hasiera baten aurreikusitakoa baino 55.985,47 gehiago; Aretxabaletak, 5.609.461,72 euro, 189.945,85 gehiago; Arrasatek eta Bergarak 17.442.227,26 eta 11.561.653,59 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren, hasiera

baten baino 590.623,28 eta 391.497,12 euro gehiago; Elgetarendako izango dira hasieran pentsatu baino 30.324,08 euro gehiago, 895.527,82 euro; Eskeriatzan iogoera 110.162,18 eurokoa izango da eta 3.253.298,55 euro jasoko ditu udalak; Leintz Gatzagak 244.380,27 jasoko ditu, aurreikusitakoa baino 8.275,13 euro gehiago; eta Oñatiren kasuan diferentzia 308.301,51 eurokoa izango da, 9.104.729,27 jasoko baititu.

Dirua beti, ongi-etorri

Igoerak beti ongi-etorriak direla iritzita, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak azaldu du ondo etorriko dela Santa Teresa berrurbanizazio proiektuan ekarpen handiago bat egin ahal izateko, bai eta Jose Luis Iñarra kaleko urbanizazioa egiteko: "Une honetan proiektua idazten dihardugu eta Foru Funtsetatik etorriko den diru gehigarri hori erabiliko dugu obren exekuziorako".

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarrak, bestalde, egoera ekonomikoa zela dagoen ikusita zenbat eta diru gehiago etorri beti dela hobeto azaldu du. "Beti dago dirua non erabili eta 2022ko likidazioan erabakiko dugu Antzuolan zertarako erabiliko den diru gehigarri hori. Hala ere, Foru Funtsetik Udalei egiten den ekarpenaren zenbatekoa Finantza Kontseiluak erabakitzen du eta uste du Udalei egiten zaiela ekarpen txikiena".

EKIN DEBAGOIENEAN

Ekintzaileentzat prestakuntza tailerrak

TAILER PRESENTZIALAK

DOAKOAK

PLAZA MUGATUAK

IZEN-EMATEA BEHARREZKOA

TAILERRAK EGITEKO, TALDEA ERATU BEHAR DA

Informazio gehiago eta izen ematea: rgarcia@debagoiena.eus / 943 79 30 90

MARTXOAK 6, ASTELEHENA
09:30 - 13:30

Ekitean kontuan hartu beharreko alderdiak

MARTXOAK 10, OSTIRALA
09:30 - 13:30

Negoio txikiak abian jartzea

MARTXOAK 13, ASTELEHENA
09:30 - 13:30

Langile autonomoen erregimena

MARTXOAK 17, OSTIRALA
09:30 - 13:30

Negoio txikien oinarriko kudeaketa I

MARTXOAK 20, ASTELEHENA
09:30 - 13:30

Negoio txikien oinarriko kudeaketa II

MARTXOAK 24 ETA 27,
OSTIRALA ETA ASTELEHENA

09:30 - 13:30
Negoio txikien fiskalitatea





Tania Oblomskak eta Yula Krekoten, Pakelekun. H.L.



Tania Skybiuk, alabarekin. T.S.



Oleksandr Rustskyi, Katalunian. O.L.

Gerragatik dena berreraiki behar

2022ko otsailaren 24a ez du ukrainar bakar batek ere ahaztuko, orduan hasi baitzen Errusia lurraldeari eraso egiten. Hutsetik hasi behar izan dute; batzuek, gure artean. Jarraian kontatzen direnak Debagoienarekin loturako lau istorio desberdin dira

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Errusiak Ukraina inbaditu zutenetik lehen urtea bete da gaur, eta oraindik gerra hotsak entzuten dira lurraldeko txoko askotan. Ez dirudi egoerak baretzeko bidea hartuko duenik epe motzean; Vladimir Putin Errusiako presidentek nuklearraren aurkako akordioa eten egingo duela iragarri du, eta AEBetako Gobernuak zein Europar Batasunak Ukrainako armadari armak emango dizkiotela aurreratu dute. Debagoienan ukrainarren aldeko elkartasun keinuak nagusituko dira egunean zehar. Esaterako, Eudalek, Euskadiko Udalen Elkarrekin, dei egin die euskal udalei 12:00etan bost minutuko elkarretaratze isila egiteko, udalteearen edo udalerrri bakoitzeko ohiko lekuaren aurrean, gerrako biktimen, desplazatutako pertsonen eta Ukrainako herri osoaren alde.

YULA KREKOTEN OÑATIN BIZI DA

"Etorkizuna Oñatin irudikatzen dut orain; oso ondo gaude"

Babes hori lehen unetik igarri zuten Tania Oblomskak eta Yula Krekoten ama-alabek. Kieven bizi ziren, eta gerra hasi bezain pronto jaso zituzten oñatiar ezagunen mezuak, Krekotenek uda askoan egin baititu egonaldiak hemengo familia baten etxean. Dioenez, horixe izan da urte "luze eta gogor" honen alderik pozgarriena, eta oso eskertuta agertu da laguntza eskaini dieten guztiek: "Ez genuen zalantzarik izan 2022ko martxo hasieran 9 urteko anaia-ekin batera hona etortzerakoan. Oñatin alokairuko etxe batean bizi gara hirurok, eta amak eta biok Pakeleku jubilatuen elkartean egiten dugu

lan: hark sukaldari eta nik zerbitzari".

Dioenez, erraztasunak besterik ez dute jaso Oñatira heldu zirenetik. "Segituan hasi nintzen taberna batean lanean, eta, Pakelekuko lan eskaintza ikustean, amak ere lan egiteko aukera ikusi nuen. Zorionez, biok hartu gaituzte, eta gurekin batera gerratik ihesi etorri den beste ukrainar bat ere badabil".

Inbasioaren aurretik Krekotenek sukaldari egiten zuen lan eskola batean eta haren ama irakaslea zen beste ikastetxe ematen; haur gehienek gurasoekin egin dute alde, eta batzuk geratu dira Kieven, baina asko ez dira etxetik irteten; familia bakoitzak erabakitzen du hori". Izan ere, errusiarrek eraso egi-

ten duten aldiro alarmak pizten dira Ukrainako hiriburuan, bunkerretan gordetzeko abisu moduan: "Lagun batekin ari nintzen hizketan telefonoz, eta naturaltasunez esan zidan bunkerrean ezkutatzeko ordua zutela. Normalegi esan zidan, ohituta baleude bezala; ez luke hala izan beharko".

Aita eta haren aldeko familia Ukrainan daude, ahizpa zaharra Europan, baina ama-alabak ez dira hara itzuliko, ez daukate-lako nora joan: "Gure etxea suntsituta dago; horrenbestez, uste dugu Oñatin geratuko garaela aurrerantzean, hemen oso ondo baikaude".

TANYA SKYBIUK ARETXABALETAN BIZI DA

"Hemengo hizkuntzak ari naiz ikasten, bertan lan egiteko"

Aretxabaleta du bizitoki joan den martxoa ezkerro Tanya Skybiuk-ek. Hura ere Kievekoa da, eta 5 urteko alabarekin egin zuen ihes, Poloniatik igarota. Lagun batek pasatako kontaktu baten bidez lortu zuen autoz Europa osoa gurutzatzea.

Ez zuen Aretxabaleta aurrez ezagutzen, baina bertako familia batek etxea utzi zien ama-alabei: "Hasieran uste genuen asko jota pare bat hilabeteko kontua izango zela, baina jada pasa dira hamaika hilabete. Oso jende jatorrarekin egin dugu topo hemen, lagunak egin ditugu; zorte

onoko sentitzen gara". Euskara eta gaztelera ikasten ari da iraila ezkerro, hizkuntzak menperatu orduko lanean hasteko helburuarekin, ekonomialaria da eta. Alaba, berriz, eskolara joaten da, eta hura ere badabil euskara ikasten.

Gerrako lehen egunak "beldurtuta" pasa zituzten, "lorik egin gabe, elikagai apurrekin". Senarrak Ukrainan segitzen du, "orain seguruagoa den hirian", eta espero du gatazka bukatzen denean bat egingo dutela, baina ez daki non: "Onea litzateke hura hona etortzea, gure herrialdea egoera okerrean egongo baita".

OLEKSANDR RUSETSKYI GIRONAN DAGO

"Ukrainan ez dago soldadu faltarik, arma falta baizik"

Chernobilen Lagunak elkartearen bitartez uda ugari pasa ditu Oñatin umetan Oleksandr Rusetskyik, 2012tik 2016ra arte. Gabonetan berriz itzuli zen Oñatira, eta "sekulako poza" hartu zuten, bai hark eta baita haren harrera-familiak ere. Gaur egun, Gironako Ripoll herrian bizi da: "Gerra hasi aurretik, nire lagun bat hara joan zen lanera eta aipatu zidan niri tokia egingo zidala, nahi izanez gero. Ez nuen bitan pentsatu".

Rusetskyik-ek Kieven egiten zuen lan, lokutorio batean. Lehen leherketetatik ihesi mendebaldeko mendietara jo zuen, baina



Argazki txikian, Ruslan Latynskiy; handian, haren etxe alboko leherketa bat. R.L.

kezkatuta zegoen haren gurasoen egoeraz: "Herri txiki batean bizi dira eta ezin nuen haiekin kontaktatu, ez nekien bizirik ote zeuden. Errusiako militarrek lehen egunetan okupatu zuten herria, eta ur, argindar eta estaldurarik gabe utzi. Pertsona batzuk akabatu zituzten".

Okupazioak apirilera arte iraun zuen; Ukrainako soldaduak sartu ziren herrian eta orduan izan zuen familiaren berri: "Eskerrak bizirik zeuden".

Ukrainatik heltzen diren albisteak ez dira "beti onak". Egunero dago kontaktuan gurasoekin, "baina, azkenean, inork ez daki bihar non lehertuko diren bonbak". Gaur egungo egoerari ziurgabetasunez begiratzen dio hark: "Inork ez daki gerra noiz bukatuko den. Zain gaude AEBetako armak noiz iritsiko; badirudi laster izango dela. Izan ere, Ukrainak ez ditu soldaduak behar, jende asko dago frontera joateko zain; alegia, armak falta dira".

RUSLAN LATYNSKIY
KIEVEN BIZI DA

"Nire etxe alboko leherketa baten ondorioz pasa dut beldur handien"

Ruslan Latynskiy-ren kasua bestelakoa da. Uda ugari Oñatin igarokoa den mutila ez da Ukrainatik mugitu, Kiev hiriburuan jarraitzen du, AEBetako logistika-entresa batentzako lanean,

eta, esan duenez, ez dauka alde egiteko asmorik: "18 eta 61 urte arteko gizonezkoei ez digute ihes egiten uzten, baina nik neuk ere ez dut nahi". Gainera, gerrarako deitzen badiote, "prest" dagoela aipatu du: "Milioi bat ukrainar gazte daude soldadu borrokatzeko itzarote-zerrendan".

Latynskiyren hiru lagun hil dira gatazkaren ondorioz, eta badauzka bospasei lagun Donetsk inguruan "egoera txarrean". Haren esanetan, inguru hori da gaur egun eraso gehien jasotzen dituen eremua, baina bertako herritarrek baimenduta daukate kanpora irtetea: "Duela astebete, Donetskeko lagun batek bisitatu gintuen Kieven".

Gaur egun, Ukrainako hiriburuan jendea hilabete batzuk lehenago baino lasaiago dabilela adierazi du, nahiz eta oraindik bunkerrean gordetzeko alarmak entzuten diren. Hura, ordea, etxean gordetzen da: "Bunkerretan usain txarra egoten da eta jasanezina da". Beldurrik handiena duela sei hilabete pasa zuen, haren etxetik 200 metro ingurura lehergailu bat erori zenean –goiko argazkian ikusten da nola geratu zen eraikina–.

"Hilero" dauka Oñatiko harrenera-familiarekin harremana bideo-deien bitartez. Gerrak beste "bi edo hiru" urte iraungo duela uste du: "Ukrainako presidenteak esan baitu lurralde guztiak berreskuratu arte borrokatuko garela".

Garabidekoak, esker oneko

Herenegun jaso zuen, Donostian, Garabide elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiak banatzen duen Abadia saria. "Garabideren inguruan dagoen kolaboratzaile-sareak du sari horren meritua, erakundeak izan, partikularrak, militanteak... Sare oso polita sortu dugu", adierazi zuen Iñaki Martinez de Luna presidentek.



IBAN ARANTZABAL

Gipuzkoa
berdea, orain eta beti.

Gure ingurua zaintzea zure baitan dago.

Etorkizuna Orain.
etorkizunacraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

ETORKIZUNA ORAIN



ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ

Hauteskundeak laster

Alderdi politikoak hasi dira motorrak berotzen, maiatzean udaletarako eta diputazioetarako hauteskundeak izango direlako eta azaroan, Espainiako Gorteetarako hauteskunde orokorrak.

Politikari profetalekin erreta gaude, alderdien nahiak bakarrik betetzen saiatzen direlako. Herrietako alkateak eta zinegotziak hobeto ikusten ditugu gizartean, herriko beharrak betetzera hurbilago daudelako eta ia egunero ikusten ditugulako kaleetan.

Aurten ere giro beroa izango dugu udaletako hauteskundeetan, herri askotan indarrak parekatuta daudelako. Debagoienean ere berdina gertatzen da. Eta espero dezagun eskuin muturrak botoak galtzea bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere; bestela, gureak egin du. Demokrazia eta autonomia erkidegoak eta baita hizkuntza elebitasuna ere pikutara joan daitezke. Baina, azken inkestean arabera, badirudi

UDALEKOAK LEHENENGO IZATEAK LAGUNDU EGINGO DIE ALDERDI ABERTZALEEI

Alderdi Popularrak botoak kenduko dizkiola Abascalen alderdiari. Eta, bestalde, Alderdi Sozialistaren Gobernuak jarraitu egin lezake, berriro hauteskunde orokorretan beste alderdi progresisten laguntzarekin.

Hemengo alderdi

nazionalistek aurrera egiteko aukerak dituztela dirudi, inkestetan azaltzen den moduan, eta gehiengoa abertzale izaten jarraitzeko aukera asko dago. Baina Katalunian badirudi nazionalistek arazoak edukiko dituztela, beraien arteko borrokengatik. Han sozialisten botoak gorantz joango dira eta nazionalistek botoak kenduko dizkiete. Eta eskuin indarrek uste dut beherantz joango direla.

Udal hauteskundeak lehenengo izateak –maiatzean– lagundu egingo die alderdi abertzaleei, baita ezkerrekoei ere, jendearen hurbiltasunagatik, eta azaroko hauteskunde orokorretarako jendea posizioa hartuta izango da botoa ematerakoan. Baina ikusi egin beharko da zer gertatuko den hauteskunde bien tartean, aspaldi honetan gertakizun ekonomiko eta sozial ugari sortzen baita mundu osoan eta baita gure gizartean ere – pandemia, gerrak, krisi ekonomikoa eta produktu guztien garestitzea, goseteak eta abar–, eta jendeak horien arabera ikuspegi politikoa aldatu lezake.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bigarren mailako euskaldunak

NEREA LOIOLA
'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/IPTSQ](https://labur.eus/iptsq)

Euskaldun asko bezala, duela hogeitaz gertatutakoaren inguruan pentsatzen jarri nintzen ni ere astelehenean. Non nengoen *Egunkaria* itxi zutenean? Nola jakin nuen? Nola erreazionatu nuen? Hamazazpi urte nituen eta nik ez daukat egun hartako kontakizun epikorik. Uste dut institutura iritsi arte ez nuela gertatutakoaren berri izan. Nire etxean ez zen euskal gatazkaz hitz egiten, nire etxean ez zen euskaraz hitz egiten, ez zen sekula

euskarazko egunkaririk egon, ez zen Xabier Lete entzuten, eta ez dakit nola bizi izan zuten gurasoek *Egunkaria*-ren itxiera. Ez diet ezer leporatzen, beste errealitate gordin bat bizitzen ari baitziren haiek ere urte horietan.

Hala ere, etxeko errealitatea askotan izan da niretzat lotsarako motibo. Hizkuntzak ez nau sekula bigarren mailako euskaldun sentiarazi, Gipuzkoako herri txiki batekoa izatearen abantailak; baina bai nire jatorriak. Euskalduna nintzen nire ustez, baina umetatik ikusi nuen batzuk ni baino euskaldunago sentitzen zirela. Herriatik kanpo, jende

euskaltzale artean nire lekua hartu ahal izateko, erlojuaren kontra ezagutu behar izan nituen besteok txikitatik jasotako erreferente guztiak; nire ezjakintasuna ezkututzen nuen, ez nuen galderarik egiten.

Euskaldunok geure artean kategoriarik ezartzen ez dugula esaten duenak betaurrekoetako beirak garbitu beharko lituzke. Nik neuk, bigarren mailako sentitu izan naizen horrek, segun non eta zeinekin oraindik ere kameleoi estrategiak aktibatzen dituen horrek, Barakaldoko taberna batean harritu egiten naiz zerbitzariak euskaraz erantzuten badit... [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eugenio Otsoak ezkondu gintuenekoa

JOXE ARANZABAL

ELORRIO

1995eko uztailearen 13a zen. Arratsaldean hitzordua genuen Leintz-Gatzagako udaletxean, bertan ezkonduko gintuen-eta Eugenio Otsoak, bera baitzen orduan hango alkate. Bi bikote ginen zibiletik ezkontzekoak: Fatima arreba eta Mikel alde batetik, eta Bego eta biok bestetik.

Lehendabizi Bego eta biok iritsi ginen, Miren jaio berriarekin. Gero Fatima eta Mikel, horiek ere Elorriotik joanda. Ekitaldi pribatua izan behar zenez, ez zen beste inor agertu, Eugenio besterik.

Zergatik Leintz-Gatzaga? Zergatik Leintz-Gatzaga eta zergatik Eugenio? Amaren familiar bagenuen istorio bat Leintz-Gatzagarekin lotzen gintuena. Izan ere, ama-eta txikiak zirela, sei-zazpi bat urtekoak, aitak bi ahizpa bidaltzen zituen asto batez lagunduta Leintz-Gatzagara, handik gataz eramateko Urrite baserrira, Gellao auzoan, Eskoriatzan. "Zuek ez arduratu, gatzagako langileek ipiniko dizuete-eta zama otzaretan, eta astoak badaiki etxerako bidea", esaten omen zien gure aitajaunak. Eta jeneralean horrela izaten zen, baina, tarteka susto galantak pasatu behar izan zituzten, adibidez Gasteizerako tren suertatzen bazen euren bide ondoan, orduan astoa erabat

izutzen zelako. Istorio hori askotan entzun genion amari, eta aitzakia polita iruditu zitzaigun Leintz-Gatzagan ezkontzeko. Eta, gainera, Eugenio zen hango alkatea, gure aspaldiko laguna. Galdetu genionean ea berak ezkonduko gintuen, berak baietz, eta pozik.

Beraz, Eugenio iritsi zenean, seiok sartu ginen udaletxera. Berak aprobetxatu zuen hango zerbitzuak esplikatzeko, osasun-gela txikia, eta administrazio kontuak. Bulegoetara iritsi ginenean, karpeta bat ireki, berba gutxi batzuk esan, eta hango paperak sinarazi zigun, Miren txikia lekuko zela.

Ondoren taberna batera joan ginen, eta han afari-merienda modukoa egin genuen Eugeniorekin batera. Orduan aitortu zigun oso gutxi falta izan zitzaiola guri ezusteko festa bat antolatzeke, bere ustez guk eta gure ezteiak festa-giroa merezi genuelako. Azken orduan baina, atzera egin zuen.

Harrezkero hainbat aldiz elkartu izan gara berarekin, horietako batzuk Leintz-Gatzagan bertan, San Millango elizan egindako eraberritze-lanak erakutsi zizkigunean, esate baterako, edo ziklismoaz lotuta elizan bertan antolatutako erakusketa azaltzen.

Leintz-Gatzagak asko zor dio Eugenio Otsoari, berak lideratu baititu, jende askoren laguntzarekin, herria

biziberritzeko proiektu asko eta asko. Eta besteok ere zorretan gaude berarekin, beti erakutsi digu-eta hurbiltasuna, eskuzabaltasuna eta bizipoza.

Faltan sentituko zaitugu, Eugenio.

Eugenio Otsoa 'Gerra'

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

ARRASATE

Ez dakit non egongo zaren baina, ziur, iritsi zaren toki hori hankaz gora jarri nahi izango duzu, zurekin dauden guztion ongizatea haz dadin, infinituraino. Ez zaitut beste moduan ezagutu. Bultzatzen, sortzen, diseinatzen, giza taldeak animatzen eta lorpenekin gozatzen. Horixe izan da zure goiburua beti, eta iragan mendeko lehen hirurogeita hamarretan elkarren berri izan genueneko uneetara heltzen naiz baieztapenarekin.

Ezin dut bururatu, bizitza honetan, zure gogoko Euskadi honetan zehar zure igarobidearen gain esan dezakedan ezer originalik. Hain handia izan da txikitatik bereganatu zenituen ideal horiei egindako dedikazioa, non ezinezkoa zait zure ahalegina inbertitu zenituen ataletako bat bakarrik nabarmentzea. Borrokalari kolosala izan zara. Ez zenidan inoiz esan nondik ateratzen zenuen hainbeste kemen eta arnas, bata bestearen ondoren etengabe aurkezten

zitzazkizun egitasmoetarako. Baina nik banekien: zure kontzientziarekiko konpromiso sakonean.

Hemen utzi dituzun milaka lagunetako bat besterik ez naiz, aurrerantzean zu gabe ezer ez dela berdina izango badakigunok. Edozein premia estaltzeko luzatutako esku hori galdu dugu. Zure ikasgaia geratzen zait, ezbeharrei aurre egiten jakitea –zein adibide eman diguzun fisikoki betiko banandu gaituen azken horrekin!– eta horri eutsiko diot borrokan jarraitzeko.

Eskerrik asko, *Gerra*, bihotzeko adiskidea. Agur eta ohore!

Isun handiagoak argindar-entresa handiei

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN

ARDURADUNA

BERGARA

Juan Saizek Valentziako Ingeniaritza Unibertsitate Politeknikoan esan du argindar-entresa handiek tranpata ibiltzeagatik isunak jaso dituztela, baina isunak tranpa egiteagatik izandako irabaziak baino txikiagoak direla. Jorge Moralesek esan du argindar-entresa handiek aste gutxitan aldatzen dituztela gobernuen borondateak euren interesen alde. Ze egin dezakegu? Kooperatiba energetikoei erosi; gizartearen etorkizuna

bermatzen dute, nahiz eta batzuetan garestiagoak irten. Har ezazu gizartea hobetzeko inbertsio bat bezala.

7.000 kilo: mila esker!

MARIA AGIRRE

DEBAGOIENAKO ZAPOREAK ELKARTEA

DEBAGOIENA

Turkian eta Sirian izandako lurrikara dela eta, Siriako Lagunen Elkartearen harremanetan jarri zen Zaporeak-ekin. Janari bilketa egitea ezinbestekoa zela ikusi, eta hala egin genuen ostiralean Arrasaten eta Aretxabaletan.

Eskerrak eman beharrean gaude. Eskerrik asko elikagaien garestitzea bizi dugun garaiotan janaria eman duzuen herritarrei, Karnabalen bezperan laguntzera etorri zaretenoi –asko poztu gaitu gazteak laguntzera etorri izanak–, Ulma Packaging-i kartoizko kaxak emateagatik, Eroskiri janari bilketa egiteko baimena eman eta kamioia antolatzeke tokia uztearren, Eguzkigraf inprimategiari kartelak egiteagatik eta Kepa Ibabe eta Felipe Zabalarri euren kamioia utzi eta hurrengo egunean, musutruk, bildutako guztia Donostiara eramateagatik. Zuen guztion eskuzabaltasunagatik ez balitz, ezingo ziren 7.000 kilo janari bildu. Ziur egon Sirian eskertuko dutela egindako ahalegina. Mila esker!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Garibai etorbidean dagoen sindikatuen etxea hesituta dago, lanak hasi ahal izateko. E.A.B.

Gazteendako etxebizitzak egingo ditu Jaurlaritzak

Aldi baterako alokairuko zuzkidura-etxebizitzak egingo dituzte 'sindikatuaren etxea'-n, Garibai etorbidean. Eusko Jaurlaritzak Tecsa enpresari esleitu dizkio lan horiek, 2,4 milioi euroko aurrekontuarekin, eta 2025erako amaituta egotea aurreikusten dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak aldi baterako alokairuko hamabi etxebizitza egingo ditu Garibai etorbidean, *sindikatuaren etxea* izenez ezaguna den eraikinean, 35 urtez azpiko gazteendako. 40 metro karratuko apartamentuak izango dira eta horietako bakoitzak sukaldea, jantokia, logela eta komuna izango ditu.

Apartamentu horietan gehienez bost urtez egon ahal izango dira esleitutako pertsonak. "Hori dela eta, hain zuzen ere, bereziki gazteei zuzendutako apartamentuak izango dira", azaldu dute Jaurlaritzako Etxebizitza Sailerik. Tarte horretan, kanon bat ordaindu beharko dute erabiltzaileek, haien errentaren arabera izango dena.

Oraindik ere ez dute zabaldu izena emateko epea, baina "ezinbesteko baldintzetako bat" izango da Etxebiden izena emanda egotea. Apartamentuen kudea-

keta, halaber, Alokabidek egingo du, behin lanak bukatuta daudenean.

2025erako bukatuta

Eusko Jaurlaritzak Tecsa enpresari esleitu dizkio lanak, 2,4 milioi euroko aurrekontuarekin. Eremua hesitu egin dute dagoeneko, eta, behin lanak hasita, bi urteko epean amaitzea daukate aurreikusita; 2025erako, alegia. Esleipenaren baitan dago, era berean, igogailu bat jartzea eta eraikinaren barrualdea berantolatzea.

Lau urte geldu egon da

Arrasateko Udalak 2015ean Eusko Jaurlaritzari egindako eskariaren harira sortu zen proiektu-

35 URTEZ AZPIKOEI ZUZENDUTAKO BIZITOKIAK IZANGO DIRA, ALDI BATERAKO ALOKAIUAREKIN

tua; izan ere, Jaurlaritzarena da eraikina. Hala, 2019an eman zuten proiektuaren berri, baina, baimen kontuak tarteko, geldu egon da azken urteotan. Gaur-gaurkoz, Tecsa langileek jada hesituta dute eremua eta laster hasiko dituzte lanak.

Mota horretako lehenak herrian

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan 310 zuzkidura-bizitoki ditu Alokabideren bidez alokairuan, eta, azaldu dutenez, hamabi horiek Arrasateko lehenengoak izango dira. "Halaber, Etxebiden Arrasaten errolatuta dauden eta alokairuko etxe bat eskatzen duten pertsonen kopurua 467koa da", gaineratu dute.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak, Arrasateko *sindikatuaren etxea*-ren proiektuaz gain beste bi ere baditu, hutsik dauden eraikinetan zuzkidura-bizitokiak egiteko: Azpeitiko esklaboen komentua eta Eibar-eko epaitegi zaharra.

Nekane Bernalen kartela izango da Martxoaren 8ko irudia aurtengoa

Oñatiarrak egindako kartela aukeratu du epaimahaiak; hori izango da Emakume Txokoaren eskuorriaren irudia

E.A.B. ARRASATE

Nekane Bernal Julianen kartela izango da aurtengo Martxoaren 8ko kartelaren eta eskuorriaren irudia; azken horrek, Emakume Txokoak antolatutako ekimenez gain, herriko mugimendu feministak deitutako ekitaldiak ere jasoko ditu, elkarlanean osatutako programa izango baita. Hain zuzen, astelehenean emango dute mobilizazioen berri, 19:00etan Kulturategi Jokin Zaitegi gelan egingo duten bilera informatiboan.

Kartelaren egileak "sorpresaz eta pozez" hartu du epaimahaiaren erabakia. "Artea ogibide ez badut ere, betidanik egon naiz lotuta sormenari: musika eta artea txikitatik oso presente daude nire bizitzan", azaldu du.

Kartelak ikusgai egongo dira

Emakume Txokoak eskerrak eman dizkie lehiaketan parte hartu duten guztiei eta aukeraketan lagundu dutenei. Halaber, hamalau kartelak erakusgai jarriko dituzte martxoaren 6tik 17ra Emakume Txokoan, astelehenetik eguenera 15:00etatik 18:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.



Nekane Bernal, kartelarekin, Emakume Txokoaren atarian. ARRASATEKO UDALA

Eguenean izango da lehen bilera Grupo San Juango bizilagunekin

Eremua berrurbanizatzeko helburuarekin, hiru plazetako bizilagunekin hainbat bilera egingo ditu Udal Gobernuak

E.A.B. ARRASATE

Martxoaren 2an egingo dute lehen bilera, 18:00etan, Kulturolan, hiru plazetako bizilagunekin. Hurrengo asteetan, plaza bakoitzeko bizilagunekin egingo dituzte saioak eta prozesuaren bilakaeraren arabera beste saio batzuen beharra zertutuko dute. Prozesua Emun aholkularitza-enpresak gidatuko du.

Hainbat berbagai izango dituzte bileretan: plazen izaera, haien arteko harreman fisikoa, espazioen kalitatea, gabeziak eta eremuko espazio publikoen

etorkizuna, besteak beste. Udal Gobernuak hainbat proposamen sortu ditu, "erreferentzia gisa" erabiltzeko, baina "inola ere" ez dira itxiak izango. "Hala, plaza bakoitzak bere aldetik landu ahal izango ditu gerorako desirak, baina ahaztu gabe badirela hiru plazak lotzen dituzten gaiak ere. Gainera, etxe-taldea herriguneko hiri-bilbearen bihotzean dagoenez, gainerako herriarekin izango duen harreman urbanoa ere kontuan izan beharko da prozesuan", dio Udal Gobernuak.

Musika eta zirkua kalean Merkemerkaua girotzeko

Ibai-arte merkatarien elkarteak Merkemerkaua abiatu zuen atzo, eguena, eta gaur eta bihar ere "eskaintza ezin hobek" izango dituzte 28 establezimendutan; azokari bizia emateko, gainera, hiru kontzertu eta zirkua antolatu dituzte gaurko eta biharko

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Ibai-arte 28 establezimendu Merkemerkauan murgilduta daude atzo ezker; udazkeneko eta neguko arropak "prezio ezin hobean" eskaintzen ari dira. Azokaren baitan, askotariko saltokiak atera dira kalera, haien establezimendu aurrera edota komertzio-guneetara, eta, beraz, denetarik aurkitu ahal izango dute bezeroek herriko kaleetan: moda, kirola egiteko arropa, lenteria, osagarriak, oinetakoak eta bestelako hainbat produktu.

Honako hauek dira Merkemerkauan parte hartzen ari diren establezimenduak: BC, Bea Lentzeria, Beinke, Elkar, Ennea, Errekamendi, Garraxi, Gili-Gili, Intersport Loramendi (biak), Itxaso Mertzzeria, Josle, Kapikua, Kili-Kolo, Lizarralde Kirolak, Luko, Maitia, Markiegi, Portaloi Optika, Promise, Resusta-Karrikiri, Sikol, Tamayo, Tipi Tapa, Troko, Txuri Beltz, Ume eta Zubia.

Hiru kontzertu eta zirkua

Arrasateko merkatarien elkartearen lehentasunetako bat da herriko kaleak bizirik mantentzea, eta horretarako lanean dihardute haien egunerokoan. Horren adibide da Merkemerkauaren baitan osatu duten egitaraua; izan ere, musika doinuak eta zirkua izango dira gaur eta bihar Arrasateko kaleetan. Gaur, egubakoitza, Dirty Durum Brass Band taldea arduratuko da beroketa-lanak egiteaz. 18:00etan hasiko dute emanaldia, Maiatzaren Bata plazan, eta herriko kaleetara zabalduko dituzte haien doinuak.

Bihar, berriz, Zirkun Zirko konpainia irtengo da kalera, 11:30ean Maiatzaren Bata plazatik irtenda. Ondoren, 13:00etan, Swingcollective taldea ariko da Arbolapetan. Merkemerkaua borobiltzeko, herriko Erromintxelak taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da, 19:30ean, Herriko Plazan.



Zirkun Zirko konpainiak 2021ean Arrasaten egindako emanaldia. GOIENA

NIRE USTEZ



EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI

Erabiltzaileen errealitate linguistikoa

Hitz ederrak. Hitz potoloak. Argudio hau da behin eta berriz erakunde eta pertsona batzuek darabiltena beraien ekintzak justifikatzeko. Baina zer esan nahi du horrek? Euskal hiztunak hirutik bat badira gizartean, zerbitzuetan hirutik pertsona bakarrak bermatu behar du hizkuntza jakitea?

Kasu horretan, pertsona hori zerbitzuan lanean ari denean erabiltzaile euskaldun honekin aldi berean bat etortzeko aukera zein da? Matematikari batek berehala egingo luke hipotesia eta kalkulua, bederatzi alditatik behin izango luke aukera pertsona horrek bere eskubideak bermatzeko. Are gehiago, non daude zerbitzu horretako langile horren hizkuntza eskubideak? Zoritzarrez, eguneroko bizitzan denoi otuko zaizkigu aurrekoa bezalako kasuren bat.

Ororentzat erabilera hainbateko gutxieneko zerbitzua bermatzea izan beharko litzateke helburua, honek dituen ondorio guztiakin. "Erabiltzaileen errealitate linguistikoa" baino gehiago, "hizkuntza gutxituen erabiltzaileen eskubideak zapaldu" esango nuke nik, besterik gabe ahotan erabiltzen denean.



BEZa*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,
drogerian, lurrindegian,
parafarmazian eta maskotetan.

*EROSKI clubeko bazkidea bazara, EROSKI hipermerkatuetan egindako 60 eurotik gorako erosketetan. EROSKI Club txartelean sar daitekeen gehieneko zenbatekoa: 250 euro. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita supermercado.eroski.es/eu webgunean ere.



EROSKI

ARRASATE



Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30

"Gure arkitekturaren isla dira putzuzko estalkiak"

RAMON UGALDE HISTORIALARIA

Arrasatearrak gustuko du herriko eraikin bereziak ikertzea; gainalde lauko industria-eraikinei buruz idatzi duen lanak interesa piztu du komunitate zientifikoan

Hasier Larrea ARRASATE

Ramon Ugaldek urez estalitako eraikin arkitektonikoen onurak ikertu ditu, eta, hortik abiatuta, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko *Ekaia* aldizkariak artikulu mardula kaleratu du, *Eraikuntza, jasangarritasuna eta erresilientzia helburu* izen-buruarekin.

Noiz bereganatu zuten zure arreta putzuzko estalkia duten eraikinek?

Txikia nintzenez sortu zitzaidan liluratxo bat San Joxepe auzoan dugun etxearen aurrean Talleres San Agustin pabiloia ikusten nuenean. Mediterraneo aldera bidaiatu izan dudanean, Marokon eta Eivissan, estalki lauekin egindako arkitektura-motak erakusten zizkiguten paisaia turistiko bezala. Ohartu nintzen Arrasaten ere badaudela halako asko; urez estaliak, gainera. Arkitektura arrazionalistan inspiratuta daude, hemengo materialak erabilia. Pentsatu nuen izan zezaketela balio erantsi bat, eta ikertzen hasi nintzen.

Zertaz jabetu zara?

Deba arroan bereziki industria-rako pabiloietan baliatu zuten teknika hori, baina ur-deposituetan, artzainen txaboletan, etxebizitzetan, bulegoetan eta garbitokietan ere badaude ha-



Ramon Ugalde. H.L.

lako adibideak. Pentsa, Gurea zinemaren aurretik frontoi bat zegoen han halako itxurarekin. Kanpoko hotzetik eta berotik hobeto isolatzeko eraiki ziren modu hartan. Gainera, pabiloietako makinak hozteko erabiltzen zen estalkian pilatzen zen ura.

"BALIO HANDIAGOA EMAN BEHARKO GENIEKE GURE AURREKOEK EGINDAKO ERAIKINEI!"

Itoginen bat agertzen zenean, porlana pasa eta sikatzen uzten zen. Konpontzeko teknika artisauntzan oinarritzen zen, beraz. **Nola deskubritu zituzten arkitektura-mota horren abantailak?**

Misterioa da. Ingurune lehorretan ohikoak dira estalki lauek, baina hezeetan ez. Hemengo ingeniari industrialen burutazioa izan zen gainaldeak urez betetzea. Ziur nago ideia arkitekto izar batek izan balu, askoz balio handiagoa emango zitzailela.

Jasangarriak dira, baina gaur egun gehienak abandonatuta daude.

Fama txarra dute, hormigoizkoak direlako, eta hori naturaren aurkakotzat jotzen da. Baina hormigoia harearekin egiten da, material naturalarekin, teilatuak teilekin egiten diren gisan. Bestalde, XX. mendekoak direnez, orduko lan gogorarekin ere lotzen dira. Eta badago uste oker bat kanpokoarekin lotzen dituen. Hori gezurta daiteke Muxibar baserriaren estalki laua 1943koa dela argudiatuta; migrazio mugimendu baxuko garaikoa dela, alegia. Aipatutako arrazoiengatik, Arrasateko hiri-ordenantzatik kanpo geratu dira halako eraikin gehienak. **Muxibar baserriari berezitasun handia ematen dio estalki mota horrek.**

Estalki laua duen baserri bakarra da Euskal Herrian. Teilatua erre zelako jarri zioten estalki laua, pisu bat gehiago igota. Gainera, benetako baserri moduan funtzionatu izan du orain dela gutxi arte; horrek esan nahi du ez duela arazo handirik eman. Ezaugarri horiek azpimarratzekoak dira eraikin hura balioesteko. Baina ordenaziotik kanpo dago; beraz, eraitsi egingo dute. **Uste duzu berrerabiltzeko moduko ereduak direla?**

Erabat. Hiri-ordenantzatik kanpo egoteak zaildu egiten ditu eraikin horien mantentzea eta konponketak, baina, agian, norbaiti eskaintzen badiozu etxebizitza moduan zaharberritzeko, ez zaio ideia txarra irudituko. Mokofin jarrita, igerilekuak egin daitezke etxe barruan aprobe-tatzeko. Hau da, gauza politak egiteko aukerak eskaintzen dituzte. Nire ustez, oso aproposak dira txakolindegietan aplikatzeko; isolamendu-baldintza egokiak dituzte.

Ekaia aldizkarian nabarmentzen dute ikuspuntu ekologikotik ere ekarpena egingo luketela halako

gehiago eraikiko balira; zuk ere hori uste al duzu?

Diotenez, harearen kontsumoak karbono dioxido asko igortzen du atmosferara; beraz, eraikitzean isurketak gerta daitezke. Baina behin eraikina altxatuta, energiaren kontsumoa minimoa izaten da.

Zer zabilta ikertzen orain?

Elma eraikina. Nire ustez, *art déco* estiloaren harribitxi bat da. Oso eraikin polita da, gure arkitekturaren ikurra hura ere. Baina etxebizitza blokeen artean itota dago. Dekorazio-arte estiloa 20ko eta 30eko hamarkadetan erabiltzen zen biltegi handiak, azokak eta etxeak egiteko; Bilbon, esaterako, adibide asko daude. Hori kontuan hartuta, Elmakoa oso kasu berezia da, bulegoak eta tailerrak egiteko aukeratu baitzuten estilo hori; hau da, lantegi handi baterako. Tailerrak egiterakoan funtzionaltasunari erreparatzen zaio, minimoari, baina Elma estetikoki zaindu egin zuten. Putzuzko estalkiekin gertatu bezala, ingeniari industrial batek teknika industrialekin diseinatutakoa da Elma.



Zaldibar kaleko lantegi baten estalki laua, urez beteta. H.L.

Sardina erre, eta gero arte

Ohiturari jarraituz, SUDC elkarteko kideek sardina ehortzi zuten martitzen iluntzean Herriko Plazan, Kulturolatik bertaratu ostean. Inauteriei agur esateko egunean mozorro desfileak eta erraldoi eta kilikien kalejirak ere izan zuten protagonismoa. Jaietako informazio guztia, argazkiak eta bideoak *goiena.eus* atarian daude.



SUDC

Bizkaia etorbideko ezpanda egonkortzen dabilta egunotan

Kale horretatik Erguenera igotzeko eskaileren alboko zuhaitz-eremuan lanak hasi zituzten joan den ostiralean, duela lau urte hainbat luizi izan baitziren han. Berriz ez gertatzeko, sare eta ainguraketa metalikoak jartzen dihardute. Datozen zazpi asteetan oinezkoek kalearen beste aldeko espaloitik joan beharko dute.



Maialen Axpe, joan den domekako Espainiako Txapelketan. SERGIO MATEO

Zaragozan dago pista estaliko azken geltokia

Espainiako Txapelketan urrea jantzi eta atsedetik hartu barik, eguaztenean Maialen Axpe World Indoor Tour-ean lehiatu zen, Madrilén. Nazioarteko hitzorduan laugarren izan zen (4,30), baina Zaragozan du bihar, zapatua, neguko azken hitzordua

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Aste barruan nazioarteko atleta onentsuenak izan ditu ondoan Maialen Axpek. Domekan urrezko domina irabazi zuen pista berberean, Gallurren, jokatu zuten eguaztenean World Indoor Tour-a, eta Bedoñakoa laugarren izan zen Kanadako Alysha Newman (4,65), Txinako Huiqin Xu (4,55) eta Italiako Elisa Morinoloro (4,45) atleten atzetik: "Pena apur batekin amaitu nuen eguaztenean, egia esango dut, Espainiako Txapelketan baino sentsazio askoz hobek izan nituelako. Domekan ez nintzen ondo sentitu, nekatu samar ibili nintzen. Egia da urrea irabazi nuela, baina ez nituen sentsazio onenak

izan. Hala ere, ondorengo bi egun haietan atsedetik hartu eta eguaztenean oso gorputzaldi ona izan nuen. Horregatik, pena ematen dit 4,30eko marka egin izanak".

Bedoñakoak aitortu du eguazteneko nazioarteko hitzorduan sekulako giroa zegoela: "Pistara salto egin aurretik ja beste giro bat zegoen, jende asko harmailetan... Nahi barik ere, motibatu egiten zara halakoetan. Oso maila oneko atletak izan nituen ondoan, baina egia da txapelketa oso azkar joan zela; hau da, salto batetik bestera langa asko igo behar genuen eta, konturatu orduko, nire marka onenen bueltan ibili behar nuen". Bada, Arrasatekoak 4,30ekoa gaindi-

tuta 4,45erakoarekin egin zuen saiakera, eta balio gabeko hiru salto eginda amaitu zuen txapelketa. Pentsa, irabazlea, Kanadako Alysha Newman, 4,84ko marka egiten saiatu zen.

Zaragozara bihar

Malen Ruiz de Azuak Espainiako Txapelketan zilarra irabazi eta gero amaitutzat eman du pista estaliko denboraldia, baina Axpek bihar, Zaragozan, azken saiakera egingo du: "Zaragoza Saria egongo da jokoan, eta horren ondo ikusten dut neure burua marka egiteko, azken saiakera egin nahi dut. Gorputzaldi on hau aprobetxatu nahi dut atsedetik hartu aurretik".

Kontrario zuzenaren kantzara doa Mugarri Ingo: Hondarribira

Joan den asteburuan izandako jardunaldi bikoitzean nahi baino uzta txikiagoa batu zuten Ane Herreroren mutilek, bi partidutan puntu bakarra eskuratu zuten. Hala, azken minutuetan behera egiten dute eta hor egin behar dute lan. Domekan (11:45), sailkapenaren erdian dagoen Hondarribiaren kantzari jokatu dute.

Ointxe!-k gertu dauka gazteendako Aste Santuko campusa

Aste Santurako eta Pazko Aste-rako campusa antolatu du Ointxe! saskibaloia taldeak. Lehenengo txanda apirilaren 11n, 12an eta 13an egingo dute eta bigarrena apirilaren, 18tik 22ra arte bitartean. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, kirolzuzendaria@ointxe.eus helbidera idatzi edo 653 01 48 60 telefono-zenbakira deitu.

Bilbao Basket hartuko du MUK domekan Iturripen (18:30)

Liderraren kantzari 81-54 galdu eta gero, Mondragon Unibertsitateko mutilek aurrera begira jarraitzen dute; izan ere, LBC Cocinas taldea, aurten, beste maila batean dago. Bilbao Basketen kontrakoa bai izango da irabazi beharreko partidua: seigarren daude bizkaitarrak eta Ardoiren kantzari galtzetik datoz.

Mondrak bi jardunaldi jarraian jokatu dute Mojategin

Mondra aspaldiko une gogorrenak bizi izaten dabil berdegunean, ligan azken postetik gora egiteko ezinean dabil eta. Joan den astean ligako talde indartsuenak ez zuen gupidarik izan, eta zuri-moreak lau gol jasota itzuli ziren Añorgatik. Zapatuan, 16:30ean, Zarautzen bisita izango dute; Zumaia etorriko da datorren astean.

Errugbiko amen taldeak hiruko torneo du Sevillan

Arrasate Rugby Taldeko amen taldeko kideak -Pirolitikak- Sevillan izango dira asteburuan hiruko torneo batean esku hartzen. Zapatuan izango dituzte partidua, San Jeronimo zelaian. Torneoa 11:00etan hasiko dute, eta Arrasatekoekin batera Valladolideko Wonder Vrac eta Sevillako LaCARTijas taldearekin batera.



Balanzategi. GOIENA



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

Afrika ekialdeko giroa euskaraz arnasteko lana

Joxemari Berasategi eta Maialen Berasategi aita-alabek Abdulrazak Gurnah idazle tanzaniarraren 'Paradisua' nobela itzuli dute, Jokin Zaitegi bekaren bidez. AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak idazlanaren aurkezpena antolatu dute astearterako

Hasier Larrea ARRASATE

Urte bakoitzeko Literaturako Nobel saridunaren lan bat euskaratzeko beka deialdia egiten dute elkarlanean AEDk eta Elkarrek, Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin. 2021ean mundu mailako saria Abdulrazak Gurnah-i egokitu zitzaionez, haren *Paradisua* (1994) eleberria aukeratu, lehia-keta martxan jarri eta jasotako laginen artean Joxemari eta Maialen Berasategik batera idatzitako iruditu zitzaizen nobela itzultzeko aproposena.

Bi itzultzaileek azaldu dutenez, "aukera polita" iruditu zitzaizen XX. mendearen hasierako Afrika ekialdeko giroan murgiltzeko, "baina ez europar edo amerikar baten eskutik, ezpada hango afrikar batenetik". Nabardura txiki bat egin dute hor, "Gurnah bera europartua zegoela eta ingelesez idatzi zuela", baina, hala eta guztiz ere, narraitiba inperialistari desafio egiten dion idazle gisa da eza-guna.

Yusuf gaztea protagonista

Paradisuan kontatzen dena Yusuf izeneko mutilaren nerabezarotik gaztarorako zeharkaldia da. Zorpetutako familia batean bizi da, eta, noizean behin, Aziz izeneko osaba agertzen zaie etxera, baina, egiatan, ez da inoren osaba, Yusufen aitari dirua utzi zion gizon bat baizik. Beraz, zor hori kitatu artean, aitak Azizen esku utziko du semea, eta haren herriko dendan hasiko da laguntzen, baina, gero, bidaia bat egingo dute Tanzaniaren barrualdera, ezezagun zaizkien biztanleen eta kulturen artera, dendarako lehengai bila.

"Zeharkaldi hori, alde batetik, gure lurraldean eta gure garaian izan ohi ditugunen oso bestelakoa da, baina, era berean, guztiz unibertuala. Irakurleek

Yusufekin batera sufritu eta gozatuko dute, eta, azkenean, gogoeta eta sentsazio bereziak utziko dizkie istorioak", azaldu du Joxemarik, eta Maialenek gaineratu: "Afrika ekialdeko giroa arnasteaz bat, hango aireak India aldetik datozenekin nahasi eta europar kolonialismoaren kiratsa hartzen dute".

"Ez da abentura-nobela"

Gurnahren idazteko moduari dagokionez, obra horretan "estilo simple eta lineala" darabilena dio Joxemarik, "buruhauste handirik gabe eta arin eramaten zaituena Zanzibar aldeko kostalde, oihan eta eremuetan barrera". Maialenen iritiz, hasiera batean, badirudi abentura nobela baten aurrean gaudela, baina, egiatan, protagonistaren bizi-esperientzia kontatzen du, nerabezarotik gizondu bitartekoa, lurralde haietan egindako bi-

**HILAREN 28AN
AURKEZTUKO DUTE,
19:00ETAN,
KULTURATEKO
LORAMENDI GELAN**



Bi itzultzaileak eskuinean, eta ezkerrean Elkar eta AEDko ordezkariak. AED

daien, entzundako istorioen, izandako eskarmentuen eta horiek guztiek piztutako gogoeten bidez".

Euren itzulpen lanak euskarazko literaturari zer ekarrikodion galdetuta, Maialenek dio nahikoa ekarpen dela "ondo kontatutako istorio interesgarri eta zirraragarria" izatea eta "euskarazko literaturaren esparrua eta ikuspegia zabaltzeko" balio dezakeela. Joxemarik honako argipen hau egin du: "Ez inbestean, oso gara mendebaldirrak, Europako eta AEBetako bazkaz elikatzen baikara. Afrika, esaterako, uniformatu egiten dugu gure iruditegian, eta bada garaia hobeto ezagutu eta ohar-tzen hasteko zelako arrago aberatsa den, bere on eta gaitz guztiekin".

Ondo moldatu dira

Itzulpenak batera egiten 2009an hasi ziren aita-alabak, *Ninak ospa* gaztetxoendako eleberria idazterakoan. Maialenek egin zuen lehen zirriborroa, eta Joxemarik orraztu eta moldatu. Oraingoan, berriz, rolak trukatu dituzte," ez baitira alferrik pasatu 14 urte", dio Joxemarik.



ARTE

Tailaginen lanak ikusgai

Arrasateko Tailaginen Elkarteak (ARTE) *Egurra lantzen*, 40 urte izeneko erakusketa inauguratuko du gaur Kulturateko klaustroan, 18:30ean. Egurra artelan bihurtzen duen kolektiboak 40 urte bete zituen iaz, eta urteetan tailerrean egindako askotariko lanen artean aukeraketa egin dute, herritarrek goza ditzaten. Martxoaren 17ra arte bisitatu ahaliko da galeria.

Arrainen etxera joango dira haurrak 'Gure kanoa' obran

Bihar, zapatua, hilak 25, txotxongiloek gidatutako haurrentzako antzerkia egongo da Amaia antzokian, 17:00etan hasita. Zurrunka Teatroaren eskutik, Senegalgo arrantzale-familia batean jaiotako Abba haurraren bidaian murgilduko dira neska-mutilak. Izan ere, itsasoa, arrainen etxea, arrainik gabe geratuko da, itsasontzi handiek

haien bizimodua eraldatu dutelako. Baina Abbak ezusteko abentura bati ekingo dio, hark ongi baitaki Maam Kumba kantuan hasten denean beraren bihotzean bizi den Arrain Argitsua mila kolorez piztu eta, herritarrek arrantzatu dezaten, arrainak erakartzen dituela arrainen etxera.

Lantalde sendoa dauka atzean txotxongilo antzerki horrek, soinu, argiztapen eta eszenografia zainduarekin eta Ion Maia bertsolariaren kolaborazioarekin.

Arima freskatzeko dantzak eta kantuak egueneko Koolturen

Kooltur Ekintzak prest dauka martxoko egitaraua. Gaztetxeko oholtzara irteten lehenak Arima Soul taldeko kideak izango dira, Mikel Makala baxu-joleak eta Lidia Insausti abeslariak gidatuta. Soul laukoteak 60ko eta 70eko hamarkadetako rhythm-and-blues, soul, funk eta jazz-groove taldeak ditu inspirazio, baina neo-soul korrante garaikidean hanka bat jarrita eta gospelaren izpiritua lagun. Udazkenean kaleratu zuten lehen lan luzea, euskaraz egindako abesti dantzagarriak josita.

Gerria mugitzeko gogoz dagoenak gozatu egingo du datorren ostegunean, martxoak 2, 22:00etan hasiko den kontzertuan.

'Maleta kontuak' ipuina kontatuko du gaur Maider Galarzak

4 urtetik gorako haurrek hitzordu interesgarria izango dute gaur arratsaldean, 18:00etan hasita, Kulturaten. Maider Galarza ipuin kontalariak maleta berezi baten nondik norakoak kontatuko dizkie. Honela aurkezten du Galarzak kontaketa: "Izan ere, maleta honetan elefanteak, kalabazak eta erraldoiak sartzen dira, eta zure sekretuak ezagutu nahi badituzu, xuxurlatu poliki: 'Maletatxo bidaiaria, kontatu barruan dituzun mila istorioak. Eta ikusiko duzu zer gertatzen den...".

Izena arrasate.eus atarian eman behar da aurrez, eta haurrek izango dute lehen tasuna; helduak ere bertara daitezke.

Agroekofeminismotik abiatutako mezua

Aramaioko Feminista taldeak antolatuta, agroekofeminismo jardunaldia egingo dute martxoaren 4an Aramaion. Emakumeen bizipenak eta ahotsak jaso nahi dituzte hainbat azpiegiturarekin lotuta, eta horiekin adierazpen mezua sortuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Agroekofeminista jardunaldia egingo dute martxoaren 4an Aramaion, "lurra eta bizitza suntsitzen dituen sistemari alternatiba" gisa. Aramaio talde feminista dabil antolatzaile lanetan. Sonia Etxenautia: "Gure helburua da Aramaion egin nahi duten parke eolikoaren eta horrelako beste hainbat mega-proiekturen aurrean gure ikuspuntua azaltzea. Hain zuzen, parke eolikoa izan da jardunaldia antolatzeko martxan jarri gaituen motorra".

Gizartean egiten diren azpiegitura eta proiektuen aurrean hainbat ikuspegi daudela dio: "Badaude kritikoak direnak horrelako megaproiektuen aurrean eta badaude mugimenduak... baina ikusten duguna da ikuspegi feminista falta dela, eta gurea asmoa da ikuspegi feministatik lantzea kritika".

Elkar ezagutzeko espazioa

Talde feministak emakumeak saretu nahi ditu hausnartzeko eta sortzeko. "Krisi ekosozialarekin kezkatuta gauden emakumeek elkar ezagutzeko espazio bat ireki eta gure ahotsa entzunarazteko adierazpen-testu bat elkarrekin osatu eta zabaldu nahi dugu", azaldu dute. Hori horrela, ekologistak eta feministak diren emakumeei dei egin diete martxoaren 4an egingo duten jardunaldira batzeko, eta gehitu dute "emakume hiritarrak ere aliatuak" direla.

Landa-eremuan emakume gutxi daudela diote. "EAEn landa-eremuan bizi garen emakumeak %5,4 gara", dio Etxenautia. Hain zuzen, emakume horien ahotsa eta bizipena jaso nahi dute.

Adierazpen-testua

Datorren zapatuan Aramaion egingo duten jardunaldiaren helburua da adierazpen-testu



Martxoak 8ko ekitaldia Aramaion. ARAMAIOKO FEMINISTAK

bat osatzea, Euskal Herri mailako adierazpena izango dena. "Lau orduko saioa izango da eta guk geuk dinamizatuko dugu, talde dinamikak sortuz. Tailerren helburua izango da adierazpen testua idaztea", dio Etxenautia, eta gehitu du: "Proiektu txikitzaileen inguruko analititik abiatuta, landa-eremuko bizimodua aintzat hartu eta gure ekoizpen eta kontsumo eredua berraztertuko ditugu. Alternatibak lantzeko kontuan hartuko ditugu deshazkundera begirada feminista eta dekolonialetik,

agroekologiaren ekarpena, emakumeon parte hartzea eta bizitzak erdigunean jartzea".

Euskal Herriko mailako adierazpena izango dela nabarmendu du Etxenautia, eta horren harira dio dagoeneko jardunaldian parte hartuko dutela esan dutela Goierriko emakumeek, Gipuzkoako kostaldekoek, baita Bilboko hiriburuko eta herrietako emakumeek ere, eta Arabako mendialdekoek. Garrantzitsutzat jo dute bailarako emakumeen parte hartzea: "Aramaiori eta Eskoriatzari eragiten digun proiektua izan da abiapuntua, baina kontuan hartuko ditugu AHTa, hidroponikoan ekoizteko berotegiak..."

Bazkari autogestionatua

Goizeko jardunaldiaren ondoren bazkaria egingo dute eskolako jangelan, 14:30ean. Ez da catering zerbitzurik egongo; nork bere bazkaria eraman beharko du eta denen artean partekatuko dute.

Bailarako emakumeak bakarrik ez, baita Euskal Herri mailakoak ere ezagutu, sareak josi, gozatu eta elkarrekin aldarrikatzeko eguna izatea nahi dute martxoaren 4a.

Zaintza zerbitzua

Parte hartzeko, izena eman behar da aramaixokotaldefeminista@proton.me helbidean edo 653 71 52 58 zenbakian. Haurrentzako zaintza zerbitzua ere egongo da; martxoaren 3ko 13:00ak baino lehen eskatu behar da zerbitzua.



ALEX MENDIKUTE

Fruta-arbolak landatu dituzte

Okaranak, gaztainak, sagarrak, madariak, ahabiak, mugurdiak, kakiak... landatu dituzte eskolako umeek eskola inguruan, Iñaki Etxebesteren eta Markel Arriolabengoaren laguntzarekin. Gainera, *Burgi*-k egindako taila lotu diote arbolei. Eskerrak eman nahi dizkiete landareak eman dizkietenei eta Arbel kooperatibako kideei.



ESKOLAKO GURASOAK

Eskolako umeak, mozorrotuta

Kirola izan zen Aramaio Herri Eskolako gaia Aratuste-martitzenerako. HHko eta LHko ikasleek eta irakasleek kalejira egin zuten herriko kaleetan, baita egunerako propio prestatuko dantzak ere. Ondoren, sukaldariak prestatutako txokolate goxoa jan zuten eskolako aterpean. Irudian, urpekari mozorrotutako taldea herriko plazara iristen.

Erretiratuen elkartearen mus txapelketa izango dute gaur

Mus txapelketa jokatu dute Alaiak erretiratuen elkartearen gaur, 17:00etan. Izena eman beharko da 16:45erako. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu izena ematerakoan. Hauek izango dira sariak: lehenengo bikotearendako, bi urdaiazpiko; bigarren bikotearendako, bi bakailao gazitu; eta hirugarrenendako, bi gazta.

Administrazioarekin tramiteak nola egin erakutsiko dute

Administrazioarekin modu elektronikoa egin daitezkeen tramitazioen gaineko ikastaroa egingo dute otsailaren 28an, 17:00etan, udaletxean. Gai hauek landuko dituzte: nortasun elektronikoa, ziurtagiri digitalak eta Administrazio Orokorren zerbitzu digitalak. Parte hartzeko, izena eman behar da udaletxean.



Basotxo erretiratuen elkarteko ordezkariak, Aretxartekoak eta Udalekoak, Durana kalean. ANABEL DOMINGUEZ

Herriko merkatariak, adinekoekin 'lagunkoiak'

Aretxartek bat egin du Establezimendu Lagunkoiak sarearekin, eta adinekoekin eskaintako arretan "hurbiltasuna" erakusteko konpromisoa hartu du; Euskadi Lagunkoiaren barruko proiektua da eta Basotxoko lantaldeak garatu du

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Aretxabaletako merkatariak eta ostalaritza zerbitzu gehienek bat egin dute Merkatariak Lagunkoia proiektuarekin. Euskadi Lagunkoia ekimenaren barruan dago hori eta hartutako konpromisoaren artean daude adinekoekin arreta pertsonalizatua eskaintzea eta konfiantzazko harremana sortzea. Hala, Aretxarte merkatariaren elkartearen osatzen duten 34 denda eta hamahiru ostalaritza-lokal Establezimendu Lagunkoia sarera batuko dira, eta hori adierazten duen zigilua izango dute.

Keinu txikiak laguntzeko

Basotxo erretiratuen elkartearen bueltan sortutako Aretxabaleta Lagunkoia lantaldeak hamar urte inguru daramatza lanean Aretxabaleta herri "inklusiboa" iragarriagoa eta lagunkoia izan dadin. Udalarekin hartu-eman estua izan du horretarako azken urteotan, eta hainbat lan eta ekimen jarri

dira abian haiek sustatuta. Orain, tokiko merkatarietan jarri dute arreta.

Hainbat hilabetez egin dute horren gaineko lanketa eta hausnartutako guztia txosten batean jasota geratu da. Hausnarketa horretan tokiko merkatariak eta ostalaritza balioa eman diote, "herriari bizia ematen dioten, harreman sozialak errazten dituzten eta babes eta segurtasun sentazioa ematen duten motorrak" direla iritzita.

Tokikoaren onurak nabarmen-tzearekin batera, adinekoekin erosketak egiterakoan zailtasunak izan ditzaketela lau egoerari erreparatu gura izan diete: mugikortasuna galtzea, ikusmena murriztea, entzumena murriztea eta narriadura kog-

"ZERBITZU ONA FIDELTASUNAREKIN SARITZEN DUTE"

KARMELE URIBARRI, GIZARTEGINTZAKO ZINEGOTZIA

nitiboa. Hori jakinik, hainbat keinu egin daitezkeela adinekoekin eguneroko bizitza erosoagoa izan dadin jaso dute: aulki bat jarri erosketak egiteko txanda iristen den bitartean, establezimenduan sartzea erraztu, kontraste-zaratak saihestu –musika ozen, haizagailuak–, produktuak letra handiekin etiketatuta edo handitzeko betaurrekoak eskaini, pazientzia erakutsiz eta mezu errepikatuz behar den guztietan.

"Funtsezko aliatuak"

Aretxabaleta Lagunkoia lantaldeari "babesa eskaini" dio Udalak 2012an martxan jarri zenetik eta azken ekimen hori ere begi onez ikusi du, Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarri adierazi duenez: "Adineko pertsonak saltoki txikietara joaten dira eta zerbitzu ona euren fideltasunarekin saritzen dute. Hori dela eta, hurbiltasuneko merkatariak funtsezko aliatu da aretxabaletar nagu-

Zelan garatuko da landutakoa?



PEDRO ETXEBARRIA
ARETXABALETAKO LAGUNKOIA

"Hainbat eskaera egin ditugu eta horiek betetzea erraza dela esan digute. Egia da arreta pertsonalizatua jasotzen dela denda txikietan eta, guztiok elkar ezagutzen dugunez, herrian edozer gertatuta ere etxekoei abisua pasatuko lieketela".



KRIS HERNANDEZ
ARETXARTE

"Konpromisoa hartzeko eta laguntzeko gertu gaude; izan ere, uste dugu eskaera gehienak betetzen ditugula. Gainera, eurak dira herriko komertzioa bizirik mantentzen laguntzen dutenak, kolektibo oso fidela delako, eta eskertuta gaude".

sientzako, euren bizitza apur bat errazagoa egingo dieten ingurune lagunkoia aurkitzeko, erosketan laguntza eskaini eta harreman sozialetan katalizatzaile izateaz gain".

Udaletik gaineratu dute kanpaina horren helburua dela zahartzen ari den gizartean negozio txikiak ikusaraztea eta horiei balioa ematea, bezeroen beharretara egokituz, eta, bereziki, adineko pertsonen ohiko bizitza garatzen laguntzea ahalik eta denbora luzeenean euren autonomia mantenduz.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Alkoholaren aurpegia

Aspalditik aita ez zen aita niretzat. Alkohol kontsumoaren eraginez desitxuratzen joan zen gizon hura eta aita-alabaren harremana ere bai. Tristura, gizon horrekiko tristura, izan zen nire baitan hazten joan zen sentimendua.

Haurtzaroan. Zein txikia nintzen eta zein handia estaltzen ninduen bakardadea.

Nerabezaroan amorrua nagusitu zen. Garratza, beroa. Nire gorputzak, betidanik argala, hezur eta azal, amorrua izerditzen zuen poro guztietatik.

Askatasunaren izenean etxea eta familia kaosera eramaten zituen gizon alkoholiko hark. Aita bizirik, etxean eta laguna neukan; dena dela, aitarik gabeko emakume bihurtu nintzen. Askotan horretaz pentsatzen nuen, gauzak konpontzeko zer esan... Baina "hobeto hilko balitz" zen bururatzen zitzaidan aukera bakarra. Sekulakoa...

Iaz, Gabon aurretik, jausi egin zen eta burua ez zeukala ondo jakinarazi zidaten. Momentu hartan, hizki bakoitza nire belarrietatik sartzearekin bat gorrotoa hautsi zitzaidan. Bat-batean neskato txiki bat nintzen maite zuen aitaren bizkarrean barrezka. Etxera joan nintzen. Aita besarkatzeraz.

Zaindariaren eguna ospatuko dute Basotxokoek

Aingeru Guardakoa du Basotxo erretiratuen elkarteak zaindaria, eta martxoaren 1ean ospatuko du hori. Gurea tabernan salda eta txorizoa eskainiko diete 11:00etan hasita, eta 14:30ean Taberna Berri jatetxean elkartuko dira bazkaltzeko. Udal ordezkariak gonbidatu dituzte eta 110 bat lagun izango dira, guztira, mahaiaren bueltan.



Herritar bi arropari begira Durana kalean, Ixadebalde azoka batean. GOIENA

Ixadebalde azoka, martxoaren 2tik 4ra

Herriko zazpi dendak neguko jeneroa prezio ezin hobean jarriko dute herritarren eskura; Hankabeltz urdaitegiak, ostera, jatekoa eskainiko du. Eguenean eta egubakoitzean goizez eta arratsaldean izango dira postuak kalean, eta zapatuan, eguerdira artean

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Hamabigarren urtez dator Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako Ixadebalde merkealdien azoka. Zortzi merkatarik hartuko dute parte eta martxoaren 2tik 4ra bitartean jarriko dituzte postuak dendan aurrealdeetan; eguenean eta egubakoitzean goizez (10:00-13:00) eta arratsaldean (16:30-20:00) eta zapatuan eguerdira bitartean (10:00-14:00).

Denboraldiari bultzada

Arropak, oinetakoak eta osagarriak eskainiko dituzte zazpi dendak, eta zortzigarrenak, Hankabeltz urdaitegiak, jatekoa izango du salgai.

"Urtero legez, udazken eta negu partean dendan geratutako jeneroa aterako dugu, prezio ezin hobekin; mauka politak egongo dira", adierazi dute merkatariek. Eta azokarekin bultzadaxo bat eman gura diote denboraldi bukaerari. Eguraldi ona lagun izatea gurako lukete baina hala ez balitz karpekin baxestuko dituzte postuak.

Bonuen zozketa

Bezeroei eskerrak emateko 100 euroko lau bonu zozketatuko dituzte: "Guk uste dugu herritarrek gustura hartzen dutela urtean birritan egiten dugun azoka; ea oraingoan ere harrera ona egiten diguten".

Azokako kideak

Datorren eguenetik zapatuta bitartean dendan aurrealdean izango dituzte postuak honako merkatariei:

- Asensio.
- Kilima.
- Almila Shop.
- Amaia ume denda.
- Almila Shop
- Tak.
- Zubia.
- Hankabeltz.

Yaakar elkartekoak "oso pozik" daude jasotako laguntzarekin

Kurtzebarriko DBHko ikasleek joan den eguenean egingandako elkartasun jaialdia "arrakasta" izan zuten

M.A. ARETXABALETAKO

Yaakar elkarteak Senegalen abian duen proiektuarekin bat egin dute Kurtzebarri BHIko lehenengo eta hirugarren mailetako ikasleek, eta elkartasun jaialdia egin zuten joan den eguenean: batetik, haiek egingandako zenbait lan-eskumuturrekoak, esaterako- eta mokadutxoak jarri zituzten salgai, dirua batzeko; eta, bestetik, ekitaldixoa eskaini zieten senideei eta irakasleei, proiektuaren berri emateko.

Aurreikuspenak "gaindituta"

Yaakar elkarteko kideek ere bertatik bertara bizi izan zuten ikasleen lana eta "oso pozik" agertu dira jasotako babesarekin: "Senegali laguntzeko egin zuten lana eskertu nahi diegu. Gure aurreikuspenak guztiz gainditu zituzten. Giro onarekin, ekin-tzekin, tonbolarekin eta janari ederrarekin gozatu genuen guztiok. Lan zoragarria benetan! Arrakasta hutsa!". Ikasleak eura ere gustura agertu dira: "Esperientzia bikaina izan da".



Ikasleak eta Yaakarkoak. KURTZEBARRI BHI

Martxoaren 8ko kontuak lotzeko bigarren batzarra

Atxabaltako Mugimendu Feministak deitutako bigarren asanblada egingo da astelehenean, otsailaren 27an, Arkupen; 18:30ean izango da, bigarren solairuan. Martxoaren 8a antolatzea du helburu bilera horrek, eta emakumeen bueltan diharduten elkarte, eragile eta norbanakoei dei egin diete, baita interesa duen edonori ere.

Dagoeneko hainbat proposamen eta ideia jaso dituzte, eta oraingoan, Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak zehaztuta uztea da asmoa. Euskal Herriko Mugimendu Feministak aldarrikatutako *Denon bizitzak erdigunean* leloaren bueltako lanketari emango zaio haizea egun horretan. Horregatik, agerian utzi gura dira zaintza motak, eta, era berean, gogoraziko dute "dena aldatzeko zaintza sistema irauli behar dela".

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAKO • TEL.: 943 79 93 55



Herritar bat desfilean gozaten.



Ring bat inprobisatu, eta boxeo-borrokaldia izan zen Durana kalean.



2023ko Oñatiko primada-ra San Migel ere batu zen. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Inon baino alaiagoa izan zen Aratuste-domeka

Inoiz baino jendetsuagoa izan zen Aratuste-domeka Aretxabaletan. Eguraldia lagun, beste behin ere kuadrillen desfileak ikusmin handia sortu zuen herritarren artean. Udalaren eta Karnabalen Lagunen Taldearen ustez, giro "ederra" egon da

Mikel Zumalde Etxabe ARETXABALETAKO Bizitakoa oraindik ahaztu gabe, Aretxabaletak atzean utzi ditu 2023ko Aratusteak. Kuadrillen desfilea festa izugarria izan zen, Santa Ageda neska-mutilek ez zuten hutsik egin eta egun osoan giro aparta bizi izan zen herriko kale nagusietan. Udaleko Kultura zinegotzi Ainhoa Caberoren balorazioa oso ona da: "Oso pozik gaude; izan ere, Aretxabaletako Aratusteak mundialak izan dira". Caberoren ustez, eguna aurreikusitako bezala ospatu zen. Mozorro aniztasuna,

originaltasun handia eta umore ona izan ziren desfilearen hiru osagai nagusiak. Hala, honako hauek jaso zituzten sariak: Suge Xarmentak, Agrossfit, Irulegi, Alaska eta Mario Vaquerizo eta Urtebetetze Tarta. Karnabalen Lagunen Taldea ere bat dator Udalaren balorazioarekin: "Eguraldia lagun izan genuen eta giro aparta egon zen. Aratusteetako lokalean sekula baino karroza gehiago prestatu dira". Ildo berean, 2024ko bazkari *golfo*-rako edukiera handitu egin gura dutela adierazi dute,

inor txartelik gabe ez geratzeko. Eta datorren urteko Txapeltxin Egunerako ere berritasunak espero dira.

Aratuste-martitzenean ere ohiko jai-giroa bizi izan zen; goizean Kurtzebarri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako haurrak dantzan aritu ziren Herriko Plazan; arratsaldean, aurtengo Santa Ageda neska-mutilek Txinen hiletarekin amaiera eman zieten aurtengo Inauteriei. 2024ko Aratusteak otsailaren 11n ospatuko dira. Gorde data, beraz, 351 egun falta dira eta.



Haurrak txino dantza egiten.



Vaquerizo eta Alaska ere egon ziren.

Zuzeneko trebakuntza saioak eskaintzen dituzte KZgunean

Youtubeko *KZgunea TIC* kanalaren bidez www.kzgunea.eus hainbat gairen gaineko zuzeneko hitzaldiak eskaintzen dituzte astean birritan -30 minutukoak-. Datorren martitzenean, hilaren 28an, Institutu Geografiko Nazionala izango da gaia eta 12:00etatik 12:30era bitartean haren gaineko argibideak emango dituzte.

Zinema itzuliko da aste bukaeran Arkupeko aretora

Ohiko egitaraua berreskuratu dute Arkupen, eta aste bukaeran *Operación Fortune: El gran engaño* filma izango dute helduek. Gaur (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) eskainiko diete. Umeek, osteran, *Rabbit Academy: Pazko arrautzen lapurreta handia* marrazki bizi-dunen filma izango dute bihar eta etzi (17:00), euskaraz.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

ASENSIO • KILIMA
TAK • AMAIA UME DENDA
BELAR META • HANKABELTZ
ALMILA SHOP • ZUBIA

IXADEBALDE
Aretxabaletako XXIV. merkealdien azoka

Martxoak 2 eta 3
10:00 - 13:00
16:30 - 20:00

Martxoak 4
10:00 - 14:00

100 euroko 4 bonu

POSTUAK DENDEN KANPOALDEAN

Aretxabaletako Udala



Udal ordezkariak suhiltzaileekin Santa Ana aparkalekuan. TXOMIN MADINA

Ikusmin handiko sutea Bidebarrietako basoan

Arbiñoste kalearen gainean sutea izan zen martitzenean, Bidebarrietako basoan, eta basozainek suhiltzaileekin elkarlanean hura kontrolatzea lortu zuten. Gutxi gorabehera, hektarea erdi baino pixka bat gehiago erre zela adierazi dute

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Susto itzela eta irudi ikusgarriak utzi zituen martitzenean Eskoriatzako Bidebarrietatik gorako basoan izandako suteak. Herri-tarren eskuko telefonoak ere sutan jarri ziren sare sozialen bidez partekatutako erretratu eta bideoekin. Fermin Lezeta Eskoriatzako basozainak adierazi duenez, "hektarea erdi baino pixka bat gehiago erre zen".


Eskoriatzako Arbiñoste kaleko etxeen atzeko mendi hegalak hartu zuen su eta Zubillagako suhiltzaileak lanean izan ziren han, Eibarko eta Legazpiko suhiltzaileekin elkarlanean. Sutea kontrolatu egin zuten, eta, kalte pertsonalik ez eragin arren, kalte materialak izan ziren, Bidebarrietako baso zati bat erre zelako. Ez dago argi nola sortu zen su, baina etxafuego baten ondorioz izan zela uste dutela adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak, sua kontrolpean zegoen uanean egindako adierazpenetan.

Goitik eta behetik kontrolatzen
Martitzen iluntzean piztu zen sua, eta, hasiera batean, hura areagotzen joan zen minutuek aurrera egin ahala, eta Zubillagako suhiltzaileek alboko herrietako brigaden laguntza behar izan zuten sua Arbiñosteko etxeetara iritsi ez eta baso gehiago erre ez zedin. Hori horrela, egin zuten lehenengo gauza beheko etxeetako auzokoei euren etxeetara joatea galaraztea izan zen, Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak adierazi duenez: "Suaren hedapena saihestea izan zen helburu nagusia, une oro. Hiru ardatz arriskutsu nagusi zeuden: suaren azpiko etxebizitzetara sua ez iristeko kontrolatzea izan zen lehenengo gauza;

HIRU HEKTAREA LAURDEN INGURU ERRE DELA DIO FERMIN LEZETA BASOZAINAK

gero, basoan gora autobideko gasolindegia ere badago, eta, beraz, goitik eta behetik mugatu da sua; horrekin batera, herri-gunetik sutera begiratuta, ezkeraldera ere bada etxebizitza bat, eta inguru hura ere kontrolatu nahi izan zen. Iberdrolako zutabe pare bat ere badago sutea gertatu zen eremuan, eta, Iberdrolako jakitun ziren arren, egingo duten balorazioaren zain gaude". Suhiltzaileek sua kontrolpean izan arren, gau osoan basozaina egon zen han, zaintzen.

Prozedura sinkronizatua
"Sua hasi zenean bertan nintzen, eta gero, suhiltzaileak etorri, sua kontrolatu eta zain geratu ginen, berriz ez berpizteko. Lehen, pinudia zegoen eremu hartan, baina birsortzen ari zen landaretzak hartu zuen su: arteak, haritzak, akaziak... daude han. Orain, euria egiteko zain gaude...", adierazi du Lezetak.



'ELDIARIODEHUESCA'

Huescako proban Galvez garaile

Joan den aste bukaeran, Josu Galvezek eta *Sila* txakurrak Oscanicross Peña La Parrilla Klubak antolatutako Arguisko Oscanicross Xtrem probaren bederatzigarren aldia irabazi zuten. 40 urtetik azpikoen senior kategorian, 26 minutu eta 9 segundoan iritsi zen helmugara, 7 kilometroko bidea egin ondoren.

Atxorrotx Kultura Elkarteko urteko batzarra zapatuan

Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak bihar batuko dira, 11:00etan, kultura etxean, batzar orokorra egiteko eta elkartearen osasuna neurtzeko. Gai-zerrendari dagokionez, aurreko batzarreko akta onartzea, 2022ko balantze ekonomikoa, Inkernu tabernaren egoera, 2023ko kultura ekitaldiak eta bestelakoak izango dituzte berba-gai.

Mendiko zinemarik onena Zaldibar antzokian ikusgai

Bilboko Mendi Film Festival-eko film laburrak bi egunetan eskainiko dira Zaldibar antzokian, 19:00etan hasita, gaur eta otsailaren 26an. *Los Tiempos Cambian*, *Yhabril: El buscador de luz*, *A Baffin Vacation*, *New Way Up*, *Creation Theory*, *Agur Artzai*, *This is Beth*, *Adrenaline Sucks* eta *Doo Sar* izango dira proiektatuko diren lanak.

GORA ETA BEHERA



Hilaren 12rako saski erraldoia hazten dabil

Aresko Martxa eguneko ekintzen artean, saski erraldoiaren zozketa egingo dute Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoen eskutik, eta laguntzaile asko izaten ari dira saskia osatzeko.





Juan Luis Eraña, Gernika plazan, atzean jubilatuen tabernako atea ikusten dela. IMANOL BELOKI

"Eraikinaren eta lokalaren egoera ikusita, uztea erabaki dut"

JUAN LUIS ERAÑA 'LABETXE' JUBILATUEN TABERNAKO ARDURADUN OHIA

Jubilatuen etxeko taberna-saloi zerbitzua ustiatzeko kontratua 2024ko otsailera arte indarrean izan arren, kontratuari uko egitea erabaki du 'Labetxe'-k, "gogoz kontra"

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Udalaren jabetzakoa den jubilatuen tabernak itxita ditu atek abendua ezker. Taberna eta jatetxe gisa funtzionatzeaz batera herriko nagusien elkargune izateko funtzioa zuen negozioa hamaika urtez Juan Luis Erañak eraman du, baina kontratua etetea erabaki du, Udalarekin izandako hartu-emanetan adostasunik lortu ez duelako. Hori horrela, urtarrileko ohiko osoko bilkuran ukoa onartzea izan zuten hizpide udalbatzako kideek.

Hau da, kontratua suntsitzea. Erabakia onartu egin zen alderdi jeltzaleko kideen eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen onespenerekin –zazpi boto–; EH Bildu abstenitu egin zen –lau boto–.

"HAMAIKA URTEAN EGINDAKO ESKAEREI EZ DIE JARAMONIK EGIN ESKORIATZAKO UDALAK"

Zergatik egin diozu uko jubilatuen tabernako kontratuari?

Bi urtean behin berritzen genuen kontratua, baina, Udalarekin arazo ugari genituen, uztea erabaki dut. Arrazoi nagusia izan da Eskoriatzako Udalaren partetik ez didatela irtenbiderik eman. Udal jabetzakoa da lokala eta egoera oso eskasean dago: pintura, azulejoak, argiak... Kanpoko fatxada ere hala moduz dago, eta, gainera, Ticket Bai sistema etorri da; horri dagokionez, Gabonen aurretik, Ticket

Tabernaren eta eraikinaren egoera



Fatxadaren egoera Zalbidegoitia jauregi-etxean edo, ezagunagoa den moduan, kultura etxeko eraikinean dago jubilatuen taberna. Irudian, atzeko partean, fatxadaren egoera.



Lizuna egurrean Jubilatuen tabernako zokaloen egurra lizunduta ageri da erretratuan, eta horregatik ere sarritan kexatu dela esan du Juan Luis Erañak.

Bai sistema zetorrela esatera joan nintzen Udalera, eta ez zidaten kasurik egin. Beraz, uztea erabaki, eta zazpi urtez kontratatuta izan dudana langilea langabezian geratu da, ni bezala. Udaletik esaten ziguten Ticket Bai sistema guk erosteko, eta nik uste dut haiei dagokiela...; zenbait konturen batura izan da. Herritar askok esan didate jarraitzeko, baina halako egoeran ez dago modurik.

Baldintzak aldatuz gero, jarraituko zenuke?

Konponketa-lanak egiteko eskaerak egin ditugu urte hauetan

"BAZKALTZEKO EDO AFALTZEKO GEROZ ETA TOKI GUTXIAGO DITUGU; HERRIA IRTENGO DA GALTZEN"

guztietan; batez ere, terrazarako. Euria egiten duen egunetan aterpea izan dezaten herriko nagusiek... Kultura etxean daudden komun publikoak ere gure ardurapean zeuden, eta bere garaian ere izan genituen arazoak; orain, itxita daude. Labur esanda, halako baldintzetan ezin izan dugu jarraitu. Nire asmoa erretiroa hemen hartzea zen, eta nirekin lanean egon denak, agian, nahiko luke, lokala margotu, gauzak konpondu eta kanpoaldeko ingurua egoki balego. **Erabakia hartuta, urte hauetako esperientzia nolakoa izan da?**

Udalarekin gorabeherak izan arren, pozik gaude bizitakoarekin. Erabakia pena handiz hartuta, eskerrak ematea bakarrik geratzen zaigu. Jendearekin oso gustura egon gara eta esango nuke orokorrean gustura izan direla haiek ere gurekin.

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Nortasun berezikoa, umoretsua eta langile nekazina zen Eugenio Otsoa; zainetan bizipoza zeramana. Martitzenean hil zen, 71 urterekin, gaixotasun luze baten ondorioz, eta atzo, eguena, izan zen haren aldeko ekitaldian eta osteko hileta-elizkizunean argi geratu zen herriak izugarri maite zuela. Herria egiteagatik eta haren izaera alai eta deskribaezinagatik eskerrak eman zizkioten azken agurrean, ekitaldi hunkigarri bezain jendetsuan. Gatzagarrekin eta gertukoekin batera –Mariatxen Aranzabal emaztea, Asun arreba...–, Debagoieneko alkate eta zinegotziak, eta hainbat alkate eta zinegotzi ohi, izan ziren; alor askotariko hainbat ordezkari...

Bertsoak, kantuak, aureskua

Agur-ekitaldiari udaletxean eman zioten hasiera. Elburgoko lagunek eta Arrasateko Txorbela otxoteak kantak eskaini zituzten; bertsoak izan ziren Jose Ramon Beitiaren eskutik; aureskua dantzatu zuten haren senideek. Ekitaldiaren ostean, San Millan parrokiaren aurrean egin zuten elizkizuna. Aurretik, ordea, Elizbira, udaletxetik parrokiaraino, Arrasateko eta Eskoriatzako txistulariek lagunduta. Mezan zehar, Eugenio Otsoak berak idatzitako testuak irakurri zituen Rosa Urretak.

Alkate sei agintalditan

Otsoak Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin zituen Arrasateko Eskola Politeknikoan, eta, lan kontuengatik, Polonian eta Mexikon eman zuen denbora bat. Mondragon kooperatiba taldean eta Antzuolako Elay enpresa taldean lan egin zuen. Jaiotzez arrasatearra izan arren, Gatzagara bizitzera joan zen, eta sei agintalditan jarraian egon zen herriko alkate: 1987-1991; 1991-1995; 1995-1999; eta, ondoren, 1999tik 2003ra. Hala ere, lan-arrazoiengatik, agintaldi hartan –1999tik 2003ra– Joxerra Agirreurretak ordezkatu zuen; 2000. urtean Poloniara lanera joan zelako. 2003tik 2007ra zinegotzi izan zen eta 2011tik 2015era alkate berriro; baina berriz ere lan-arrazoiengatik –Mexikora joan zen–, Mikel Gonzalez zinegotziak ordezkatu zuen. 2015-2019ko agintaldian, Eneka Zankada izan zen Gatzagako alkate, nahiz eta



Eugenio Otsoaren hilkutxa udaletxetik ateratzen, aureskua dantzatu ostean, San Millan parrokiara bidean. XABIER URZELAI

Agur berezia Eugenio Otsoari

Martitzenean hil zen Eugenio Otsoa 'Gerra', eta atzo, eguena, egin zuten hileta-elizkizuna Gatzagako San Millan parrokiaren aurrean. Aurretik, baina, ekitaldi hunkigarria eskaini zioten familiakoek, lagunek eta hura maite zuten guztiek, udaletxe aurrean

2018an kargua utzi, eta Juanito Bengoak ordezkatu zuen alkate gisa, agintaldia amaitu arte. Hura bukatzean, 2019-2023ko agintaldirako berriz bueltatu zen Otsoa Udalera, eta azken urte hauetan hura izan da Gatzagako alkate, nahiz eta osasun arazoaren ondorioz lantaldeko

**"SALTSEROA,
LANGILEA, DENETIK
ZUEN; GUZTIA
HERRIAREN ZAT BETI"**

JUANITO BENGOA,
UDAL TALDEKO KIDEA ETA LAGUNA

**"HUTSUNE HANDIA
UTZIKO DU; EUGENIO
GATZAGAKO
MOTORRA ZEN"**

JON SASIAIN, BEHIN-BEHINEKO ALKATEA

kideek ordezkatu behar izan duten zenbait zereginetan.

Herria egiteko beti prest

Udaleko zereginetan buru-belarri, herriko gainontzeko ekintzetan ere parte hartzen zuen. Korrikaren aldeko ekitaldietan beti zegoen saltsan, Gatzagako

**"HARK ZITUEN
KONTAKTUENGATIK,
ASKO LORTU ZUEN
ELKARTEAREN ZAT"**

ALBERTO ALTUBE, DORLETAKO AMA
TXIRRINDULARI ELKARTEKO KIDEA

**"GIZARTEAK MAITATUA,
EUSKAL HERRIAREN
ALDE ASKO
BORROKATU ZEN"**

JOSE LUIS ELKORO, LAGUNA ETA LANKIDEA

auzolanetan... Oso maitatua zen herrian; horren adierazle da omenaldi sorpresa egin ziotela herritarrek 2015ean, udalbatza berriaren osaketa-egunean, alkate gisa egindako urte guztiak eskertzeko. Opari asko jaso zituen; Otsoak berak sarri aipatzen zuen *Gustuko lekuan aldaparik*

**"BIZIPOZA, INDARRA,
KONPROMISO
NEKAEZINA ARDATZ;
MILA ESKER, 'GERRA'!"**

ROSA URRETA,
SORGINAK ELKARTEA

**"DORLEN BUELTRAN
GAZITU ETA GOZATU
GAITUZU; ESKERRIK
ASKO!"**

AITZIBER GOROSABEL, LAGUNA

ez esaldia idatzita zuen txapela jaso zuen, esaterako, opari, Eneka Zankada alkatearen eskutik.

Gertukoekin agur bereziak

Hunkituta esan diote agur *Gerra*-ri haren gertukoek. Juanito Bengoa udal ordezkari eta lagunak hileta-elizkizunaren aurretik honako hau adierazi zuen: "Saltseroa zen, langilea, denetik zuen; beti egiten zuen guztia herriarendako". Eta Jon Sasiainek, Leintz Gatzagako behin-behineko alkateak, berriz: "Herrian hutsune handia utziko du; Eugenio zen Gatzagako motorra". Eta horrekin batera, Gatz Museoan aritu direnek ere eskertza eskaini gura izan diote, mezu honekin: "Dorlen bueltan gazitu eta gozotu gaituzu; zenbat akordu. Miresmen osotik, agurrik ez. Eskerrik asko, *Gerra!*". Hori dio Aitziber Gorosabel lagunak.

Gatzagako Sorgiñak Emakume Elkarteko kideek ere euren bidetan bidelagun berezia izan dela adierazi dute, honako mezu honekin: "Sorgiñak sustraian hazia; gure ibilbidean bidelagun berezia. Etorbizunean zurekin ikasitakoa: bizipoza, indarra eta konpromiso nekazina ardatz. Herria egiten jarraituko dugu! Bageala ez geala... Mila esker, *Gerra!*". Emakume taldeaz gain, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kide gisa ere lan handia egin zuela azpimarratu gura izan du Alberto Altubek: "Ziklismoa dela-eta harreman handia izan dut harekin. Esaterako, Dorleta Santutegian txirrindularitzako erakusketa antolatu genuenean, ilusio handiz hartu genuen Alejandro Valverdek Munduko Txapelketa irabazi zueneko elastikoa. Otsoak zituen harreman handiengatik lortu genuen. Horrekin batera, egindako guztiaz gain, haren legatua ere lotuta utzi du; izan ere, txirrindularitzako erakusketa iraunkorra jarriko dugu laster Dorletan...".

Jose Luis Elkoro ere gertukoak izan du Otsoa, eta pena handiz esan dio agur. "Pertsonaia handia zen, herrikoia, eta Euskal Herriaren alde asko borrokatu zena. Haren asmo aberatsuna Euskal Herriaren askatasuna lortzea izan zen. Haren izaera horrelakoa zen; jaso duen kultura eta maitasuna Euskal Herriaren alde txikitatik jaso du, baina mantendu ere egiten du".



Miguel Altunako ikasle Denisse Guillen, tailerreko tornu baten ondoan, joan den asteburuan irabazitako saria eskuan duela. J.B.L.

"Klaseko beste neska eta biok gara zorrotzenak tornuan lanean"

DENISSE GUILLEN MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUKO IKASLEA Espainiako Lanbide Heziketa ikasleen arteko tornularien lehiaketa irabazi du Guillenek; jaso dituen deien artean, GOIENArenek harritu du gehien: "Ez nuen espero albiste izatea"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA "Tornulari izan nahi dut, argi eta garbi". Miguel Altuna Lanbide Heziketako Denisse Guillen ikasleak oso argi dauka zein izan nahi duen etorkizuneko ofizioa. 2004an Ekuadorren jaioa, 2005ean etorri zen Bergarara. Goi Mailako Mekanizatuen bigarren ikasturtea dabil egiten orain, "oso gustura". Nahi barik bihurtu da albiste, Santanderren (Kantabria) jokaturako Espainiako Lanbide Heziketako ikasleen arteko tornularien lehiaketa irabazi zuen-eta joan den asteburuan. Elkarrizketarako "urduri" badago ere, gustu handiz erantzun ditu galderak.

Zorionak! Pozik egongo zara, ala? Oso pozik. Irakasleak proposatu zidan lehiaketan parte hartzea eta animatu egin nintzen. Aldez aurretik asko entrenatu nintzen tornuan, eta, eguna heldu zenean, dakidana egin nuen. Ez nuen espero saria irabaztea; oso berezia izan zen. **Zertan oinarritu zen lehiaketa? Zein izan zen egin beharreko lana?**

Pieza nahiko konplikatu bat egin behar izan nuen, hainbat detaile zituena. Denetarik zuen piezak eta gehienez hiru ordu nituen bukatzeko. Baldintzetako bat zen tolerantzia barruan joan behar zutela neurri guztiek. **Tornuez ezer gutxi dakienari begira... zer da tolerantzia?** Neurri guztiek oso zehatzak izan behar dutela esan nahi dut, margina oso txikia dagoela akatserako. Hain zuzen ere, saria eman zidatenean, nire piezak zuen zehaztasun maila handia gorai-

patu zuten, ezaugarri guztiak neurrien barruan zeudela.

Lanak ondo eta azkar, gainera. Bai. Hiru ordu eman ziguten pieza osoa amaitzeko eta bi ordu eta erdian amaituta nuen. Hura ere oso pozgarria izan zen.

Zorion-mezu asko jaso dituzu azken egunotan?

Eskolan hainbatek zoriondu nautte; badakit, adibidez, nire inguruko ikasle gehienak harrিতa geratu direla pieza horren ondo eta azkar bukatu nuelako. Tolerantzia-maila horrekin eta tornu konbentzional batekin emaitza hori lortzeko esku ona behar da.

Nori eskaini nahi diozu saria?

Miguel Altunari, inongo zalantza barik. Eskolan une oro izan dudana babesagatik ez balitz, hau guztia ez zatekeen posible izango. Argi daukat, Miguel Altunari etxean bezala sentitzen naiz; izugarri eskertuta nago.

Zer behar da tornulari ona izateko? Zer da garrantzitsuena ofizio horretan, zure ustez?

Prozesua da garrantzitsuena. Egin nahi duzuna nola egin behar duzun hasieratik jakin behar duzue ondo; ze erreminta erabili, piezaren ezaugarri zehatzak zeintzuk diren...

Zehatza eta zorrotza zara, beraz. Perfekzionista naiz. Pieza bat egin behar badut, mimo handiz egiten dut, ahalik eta ondoen irten dadin. Tornuarekin lan egitea izugarri gustatzen zait. **Oso maskulinoa den ofizioa da tornulariarena; uste duzu etiketa hori apurtzeko unea dela? Zergatik?**

Bai, erabat. Edonork egin dezakeen ofizioa da; ikasteko eta lanerako gogoia behar da. Denboraren poderioz eskuak kalte- tu daitezkeela? Niri bost axola. Baina argi daukat: tornuak ere ez du generorik.

Oraingoz, baina, mutilak nagusi.

Beste neska bat ere badago klasean. Eta honela esango dut: tornuan gu gara finenak edo, behintzat, lardaskeria gutxien egiten dutenak [Barreak].

Gustura ari zara Miguel Altunari?

Oso gustura. Irakasleak oso onak dira, oso gertukoak, eta laguntzeko prest daude beti. Askok ikasten ari naiz; gaur bertan [eguztena] bi azterketa izan ditut eta biak gaintu ditut.

Tornuaren bueltan ikusten duzue zeure burua etorkizunean?

Erabat. Tornu mota asko daude eta batzuk dagoeneko erabiltzen badakit. Izan ere, Miguel Altunari ikasten ari naizenaz gain, asko ari naiz ikasten Bergarako Elursa enpresan; han ari naiz praktikak egiten eta badakit oso pozik daudela nirekin. Elursa sortu zuena Miguel Altunari ikasle izan zen bere garaian; ea niri ere horren ondo doakidan...

"MIGUEL ALTUNARI ESKAINI NAHI DIOT SARIA; ETXEAN BEZALA SENTITZEN NAIZ HEMEN"

"Oso fina da; zalantza gutxi izan genituen"

AITOR URIZAR MIGUEL ALTUNAKO IRAKASLEA

Erronka handia zen?

Denisseren piezak hainbat mekanizazio-eragiketa behar zituen. Oso neurri zehatzak behar zituen eta hiru orduan egitea erronka handia zen; are gehiago, erabili behar izan zuen makina erabilia.

Zergatik erabaki zenuten Guillen eramatea?

Miguel Altunaren eskola berriak izen handia hartu du mundu osoan eta azken



J.B.L.

urteetan hainbat bisita izan ditugu. Horietako bisita baten gonbidatu gintuzten lehiaketa horretara; mezuak gizona bideratuta zeuden eta hori apurtu nahi genuen. Hala ere, emakumezko izatearena bigarren plano batean jarri genuen; Denisse moduko ikasle batekin, zalantza gutxi. Oso fina da, oso zorrotza. **Irakasle moduan, ohorea.** Bagenekien Denissek aukerak izango zituela, baina han bizi izatea sekulakoa izan zen.

Erramu-zapatuan postua jartzeko eskaerak egiteko azken egunak

Artisau, abeltzain eta elikagaien postuetarako otsailaren 28a da azken eguna; gainerakoetarako, martxoaren 8a

J.B.L. BERGARA

Apirilaren 1ean egingo den Erramu-zapatuko ferian artisauak, abeltzainek eta bertako barazki, fruta eta elikagaien ekoizleek postua jartzeko eskaerak otsailaren 28a baino lehen egin behar dituzte; eskaerak ferixa@bergara.eus helbidean egin behar dira. Postuak San Martin plazan, Ibargarain, Seminarioko patioan eta Simon Arrieta plazan jarriko dira, 08:30etik 14:30era.

Talo postua jartzeko, berriz, martxoaren 8ko 13:00etarako egin behar dira eskaerak [\[bergara.eus\]\(http://bergara.eus\) helbidean, \[www.bergara.eus\]\(http://www.bergara.eus\)-eko formularioa erabilita edo udaletxeko BAZen. Talo postua seminarioko patioan jarriko dute, 09:30etik 14:30era.](mailto:ferixa@</p>
</div>
<div data-bbox=)

Bestalde, Eusko Labeldun produktuen posturako izen-ematea martxoaren 8an amaituko da, 13:00etan. Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten elkarteek aurkez ditzakete eskaerak Udaleko erregistro orokorrean, eta baita Bergaran delegazioa izanda urtean zehar herritarrei zuzendutako ekintzak burutzen dituzten elkarteek ere.



Izarren gaua ikuskizuna Goiena telebistan ikus daiteke: hilaren 25ean (12:30 eta 19:00) eta hilaren 26an (15:00 eta 22:00). I.SORIANO

Indartsu bezain koloretsu bueltatu dira Aratusteak

Eguen Gizeneko sorgin dantza eta hartzaeren agerraldia, egubakoitzeko 'Izarren gaua' ikuskizun arrakastatsua, zapatu eguerdian Iralak erakusten zuen argazki koloretsua eta hiru ikastetxeen kalejira alaiak izan dira aurtengo Aratusteetako zita aipagarrienak



GOIENA

'Galdegazte': Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundiko ikasleak izango dira protagonista *Galdegazte*-ren bederatzigarren denboraldiko lehen saioan. Nobedadez josita dator *Galdegazte*, esaterako, Imanol Beloki izango da aurkezle berria. Ikasleek Ainize Lizarralde elkarriketatuta dute, *El conquistador* saioan ezagun egin den antzularra. Martxoaren 2an ikusi ahalko da Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

OHARRAK

Osasun Sarearen hurrengo bilera anbulatorioan
Hilaren 28an elkartuko dira (18:00); maskara eroan behar da.

Gorka Iturriagaren hitzaldia, EAJK gonbidatuta
Jaurlaritzako jarduera fisikoaren eta kirolaren zuzendaria gonbidatu dute jeltzaleek. *Euskadiko pilota eta surf selekzioen ofizialtasuna. Aldarrikapenetik ekintzetara* izeneko hitzaldia egingo du. Martxoaren 1ean izango da, UNEDeko aretoan (19:00).

Gorlako kantina: musika eta bertsoak martxoan
Martxoaren 19an Hizpide taldeak joko du, 13:00etan. Martxoaren 25erako bertso bazkaria antolatuta dute, Ane Zuazubiskar, Xabi Igoa eta Gari Lope de Munainekin. Izena emateko: 943-58 50 28.

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Indartsu bezain koloretsu itzuli dira pandemiaren osteko Aratusteak Bergaran ere. Egubakoitzeko Aratuste-kontzertua da Bergarako ekitaldirik bereizgarriena; beste behin ere, ikusle goraino bete zen udal pilotalekua. Emanaldiak bi zati izan zituen: lehenengoan, Musika Bandak hiru pieza jo zituen; bigarrenean, horren bogan dauden *talent show* bateko agertoki bihurtu zen frontoia. *Izarren gaua* izeneko ikuskizunean, aktoreek hainbat pieza ezagun abestu zituzten Musika Bandaren, Orkestraren, Aritzeta abesbatzaren eta Debako Kulunka dantza-taldearen laguntzarekin; asteburuan ikus-

kizuna osorik ikusi ahalko da Goiena telebistan: hilaren 25ean, 12:30ean eta 19:00etan eta hilaren 26an 15:00etan eta 22:00etan.

Zapatu eguerdiko eztanda Iralan
Zapatuan ere, eguraldia lagun, sekulako giroa izan zen, bereziki, eguerdi partean Irala kalean. Marrazki bizidunak -Doraemon etorri zen; azaldu zuenez, buruan helizeak jarrita Japoniatik etorri zen zuzenean-, turistak, kantari nahiz dantzariak, askotariko kirolariak edota bingo ibiltaria elkartu ziren, besteak beste.

Ikastetxeen kalejira koloretsuak
Ikastetxeak ere kalera irten ziren. Aranzadi Ikastolak, ohitu-

ra dutenez, egubakoitz arratsaldean egin zuen Euskal Aratusteen desfilea; Zubietako joaldunek, Lantzeko txatxoek, Lapurdiko kaskarotek, Luzaideko bolantek eta Uztaritzeko kotilungorriek girotu zituzten kaleak.

Mariaren Lagundikoek ere egubakoitz arratsaldean egin zuten desfilea, eta animaliarik gabeko zirkua irudikatu; beste hainbat pertsonaiaren artean, trapezistak, pailazoak, mimoak eta magoak ibili ziren kalejiran, ikastolara itzuli arte.

San Martin Eskolakoak martitzenean patioan elkartu eta Boni Laskurain kalean sorgin dantza egin ostean, kalejiran joan ziren San Martin plazara.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº904525

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

•

Tapizatu lanak

•

Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

•

Besulu, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69



Alazne Lozano, Edith Heis, Ane Alberdi eta Uxue Vivas, Agorrosingo igerilekuan, astelehen arratsaldean. J.B.L.

Lanerako giroa eta gogoa, bost dominatan islatuta

Bergara Igeri Elkarteko infantil mailako Ane Alberdi, Edith Heis, Uxue Vivas eta Alazne Lozano igerilariak bost domina ekarri dituzte Euskadiko Txapelketatik; dominekin pozik egonda ere, 50 metroko igerilekuan lehiatu izana "askoz zailagoa" izan dela diote

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergara Igeri Elkarteko infantil mailako igerilariak nabarmentzeko lana egin zuten joan den asteburuan Getxoko Fadura kiroldegian jokaturako Euskadiko Txapelketan. 2008an jaiotakoan artean Ane Alberdi eta Alazne Lozano izan ziren Getxon. Alberdi hiru dominarekin itzuli da: bizkar estiloko 100 metro

proban urrezko domina lortu zuten; estilo libreko edo crawl estiloko 50 metroko proban zilarrezko domina; eta, azkenik, bizkar estiloko 50 metroko proban brontzezkoa lortu zuten.

Alberdik gehiago espero zuten Alberdi gustura dago eginda-koarekin, baina badaki hobetze-ko tartea baduela: "Espero nuen

dominaren bat ekartzea, entrenamenduetan ikusten nuelako sasoi onean nengoela. Horregatik, buruan nuen markaren bat hobetzea, baina ez zen posible izan. 50 metroko igerileku baten sekula lehiatu gabekoa nintzen eta arraroa egin zitzaidan; izan ere, gu ohituta gaude 25 metroko igerilekuan lehiatzera, eta aldea igartzen da, biratzeak er-

diak direlako eta gehiago kantsatzen zarelako". Denboraldi honetarako buruan zuen helburua ere partekatu du GOIENA-rekin: "Denboraldi honetan neguko Espainiako Txapelketarako gutxieneko marka lortu nahi nuen; udakoak lortu ditut, baina negukoak zailagoak dira. Neguko markak lortzeko Getxoko hitzordua zen azken aukera, eta ez nuen lortu; ea hurrengo denboraldian posible den...". Lorpen pertsonalez harago, pozik dago Alberdi, Bergara Igeri Elkarteko infantil maila osasuntsu dagoelako: "Oso polita izan da, besteak beste, hiru errelebo eroatea lortu genuelako. Hori aspaldi ez zen gertatzen Bergarako taldean, eta poztekoa da".

2008an jaiotako Alazne Lozano-rentzat, berriz, lehen aldia izan da Euskadiko Txapelketa batean: "Esperientzia polita izan da. Sentsazioak ez dira onenak izan, badakit-eta azkarrago igeri egiteko gai naizela, baina lehen aldia izateko oso pozik nago".

50 metrokora ohitu barik

2010ean jaiotakoan artean, berriz, Edith Heisek brontzezko domina lortu zuen bizkar estiloko 100 metroko proban. 50 metroko igerilekuan lehiatzea zailagoa egin zitzaiola dio: "Iaz hartu nuen parte lehen aldiz Euskadikoan; Getxon izan zen, baina 25 metroko igerilekuan. 50 metrokoan lehen aldia izan da oraingoa eta nabarmen zailagoa da. Biratzeetan erdia deskantsatu izana igarri nuen, baina pozik nago".

Azkenik, Uxue Vivasek lehen aldiz hartu zuen parte Euskadiko Txapelketan eta crawl estiloko 200 metroko hirugarren sailkatu ostean brontzezko dominarekin itzuli da Bergarara:

"Lehen aldiz egon naiz Euskadikoan eta domina batekin nator... 50 metroko igerilekuan lehiatzea gogorragoa izan arren, esperientzia oso polita izan da".

Dominez harago, esfortzua

Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaile Asier Perezen arabera, txapelketa "oso gogorra" izan zen Getxokoa: "Lau jardunaldi jokatu ziren, zapatuan eta domekan goiz eta arratsalde. Igerilari bakoitzak bakarkako hiru proba egin ditu, eta hiru errelebo. Nekagarria izan da igerilariendako, eta, dominekin erekin baino gehiago, dominak horiek lortzeko atzeko lanarekin eta esfortzuekin geratzen naiz. Ulertzen dut igerilariendako pizgarri garrantzitsua direla dominak kirol eder honi lotuta jarraitzeko, baina lana da sekretua hemen...".

Lau igerilari horiengandik zein ezaugarri azpimarratuko lituzkeen galdetuta, honako hau erantzun du Perezek: "Igeriketa kirol indibiduala dela pentsatu arren, maila honetan talde-giroak garrantzi handia dauka eta Bergaran sekulako giroa dute lanerako. Elkar animatzeko eta elkarri laguntzeko duten gogo horrek ez du preziorik. Bergarako neska-mutikoak animatuko nituzke igeriketa probatzerara".

Hurrengo zita aipagarriena junior mailako Euskal Herriko Txapelketa izango da Bergararentzat: martxoaren 11n eta 12an Nafarroan jokatu da.

JUNIOR MAILAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA IZANGO DA HURRENGO ZITA, MARTXOAREN 11N



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Nola aldatu dena?

Lanbidek ertzein bidali ditu RGI jasotzaileen etxeak miatzera, EHUK espediente ireki nahi die 34 ikasleri greba egitearren, propaganda politikoa egitearren ehunka isundu indar polizialen partetik...

Badatoz hauteskundeak, etorri da kanpaina, eta esango digute ezkerreko alderdiek instituzio publiko hauek

beraiek kudeatuta ez direla horrelakoak izango, ez dela autoritarismorik izango, pobrea ez dela kriminalizatuko. "Bozkatu ni, nik dena alda dezaket". Berriz ere instituzioetan boterera iritsi, eta bertatik aldaketarako aukera errealik ez dagoela (ber)deskubritzeko. Ez dakit inozotzat gaituzten ala beraiek diren inozoak. Dena alda daiteke, baina ez da horretarako

errezeta magikorik, bide luzea dugu dena errotik aldatu nahi dugunok, eta umiltasunetik bide horretan bere aletxoak jartzeko asmoz aurkeztu dugu Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua, sozialismoaren bidean denontzako kalitatezko bizi-baldintzen alde borrokatzeko. Etxejabeen inpunitatea amaitzeko, batu sindikatura!

Ituiño: azken eguna gaur magia ikastaroan izena emateko

Gaur, otsailak 24, da azken eguna Imanol Ituiñoren magia ikastaroan izena emateko: *jardunkultura@topagunea.eus* edo 605 71 24 69. Jardunek eta Udalak antolatuta dute, 14 urtetik gorakoendako. Martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an UNEDen elkartuko dira, 18:00etatik 19:45era. Prezioa 60 euro da -Jarduneko bazkideek, 55 euro-.

Proba zikloturista Pello Garitano omentzeko

Martxoaren 25ean egingo dute Pello Garitanoren omenezko igoera zikloturista, goizeko hamarretan hasita. San Martin plazatik abiatu eta 8,5 kilometro izango ditu ibilbideak; motza bezain aldapatsua, helmuga Gorlan izango du eta

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA
Pello Garitano iaz zendu zen, baina jendearen oroimenean betiko utzi zuen arrastoa ika-agarria izan da. Txirringularrizari oso lotuta egon zen Garitano, eta egindako lana ere azpimarratzekoa. Hori dela eta, Lokatza Ziklismo Eskolak, lan horren guztiorren aitortza egin nahian, haren izena daraman proba zikloturista antolatu du martxoaren 25erako. "Erabaki dugu martxa zikloturista egitea, ukitu herrikoia izango duena. Herrian eta herriarengatik gauza asko egin zituen, eta, guri dagokigunez, ziklismoagatik. Hori horrela, martxa motz bat egingo dugu, eta jendea animatu nahi dugu", adierazi du Ion Unamunok, Lokatza Ziklismo Eskolako kideak.

Joan den zapatuan –otsailaren 18an– ireki zuten izena emateko epea eta martxoaren 22ra arte, asteazkena, zabalik egongo da. Federatuek bost euro ordaindu beharko dituzte eta ez-federatuek, berriz, zortzi euro. Izen-ematea www.kirol-probak.com webgunean egin beharko da. Bi modutan eman ahalko da izena, banaka zein taldeka –lau pertsona, gehienez–; momentuz, biak batuta 25 pertsonak eman dute izena. Izaera herrikoia izango duen proba izanik, parte hartzera dei egin dute, eta beste eskakizun bat ere bai. "Mozorroztuta etortzera animatu nahi ditugu parte-hartzaileak, Pellori Aratusteak asko gustatzen zitzaizkiola kontuan izanda", adierazi du Unamunok.

Ibilbide motza baina aldapatsua 8,5 kilometro izango ditu ibilbideak, baina horrek ez du esan gura erraza izango denik, aldapak izango dira eta protagonista. San Martin plazan hasi eta Bidekurutzetan San Pedro kalea



Pello Garitanoren hiletan egin zuten omenaldia. JOKIN BEREZIARTUA

"HERRIARENGATIK GAUZA ASKO EGIN ZITUEN, ETA, GURI DAGOKIGUNEZ, ZIKLISMOAGATIK"

zuzen hartuta Burdiñaterantz joko du tropelak. Handik Gorlaraino dena aldapa gora izango da. Jendea animatzeko, Pello Garitanoren txapela herritarren artean pasata *Hartu txapela! Gorlara I. igoera zikloturista* izenpean ikus-entzunezkoa egin dute antolatzaileek, proban parte hartzera animatzeko.

Eskertuta laguntzaileei

Hainbat dira Gorlara I. Igoera Zikloturista antolatzen lagundu dutenak. Babesle nagusia Bergarako Udala izan da, baina herriko komertzioek ere laguntza izugarria eman dute. Horien artean dira bizikleta dendak, jatetxeak, harategiak, gozotegiak, nekazaritza-turismoak, optikak, hortz klinikak eta beste hainbat. Gainera, haiek euren produktuak eman dizkiete antolatzaileei, behin

proba amaituta, 13:30ean, parte hartzaileen artean zozketa-tzeko; laguntza hori ere azpimarratu nahi izan du Unamunok: "Sariak parte-hartzaileen artean banatu nahi ditugu zozketa bidez, eta 30 komertzio inguru animatu dira laguntzera euren produktuekin".

Gomendioak lasterketarako

Antolakuntzak hainbat gomendio eman ditu lasterketa egunerako. Esaterako, parte hartu nahi duenak 16 urteak beteak izan beharko ditu probaren egunean irteeran egon nahi badu. Egun horretan bertan, plaka hartzeko ordutegia 09:00-10:30 bitartean izango da San Martin plazan. Derrigorrez kaskoa eraman beharko da ibilbide osoan. Bestalde, edozein bizikletak balioko du parte hartzeko, baita elektrikoek ere. Gorlatik bueltan, Bergarara jaitsiera modu antolatuan egiteko, taldeetan motor baten atzean jaitea gomendatu die parte-hartzaile guztiei. Sari banaketarako, berriz, derrigorrez parte hartu beharko da; taldeen kasuan, gutxienez hiruk irten beharko dute.



Familia sarekada antzerkiaren une bat. DONOSTIA KULTURA

Helduek barre egiteko aukera izango dute bihar Seminarixoa

Mikel Laskurain bergararrak parte hartzen duen 'Familia sarekada' antzerkia izango da arratsaldean

I.B.K. BERGARA

Urrian estreinatutako *Familia sarekada* antzezlanaren Vaiven Producciones taldeak, eta joan den domekan Arrasateko Amaia antzokian egon ondoren iritsiko da bihar Bergarako Seminarixora. Iluntzeko zortzietan hasiko da eta sarrerak salgai daude Seminarixoa webgunean, zortzi euroren truke. Aktore ezagun askoz osatutako antzezlan horretan izango dira, besteak beste, Ainhoa Aierbe Aitziber Garmendia, Nerea Gorritixanti eta etxean jardungo duen Mikel Laskurain bera.

Barregarria eta entretenigarria

Komedia basatia Interneteko pribatutasunaren jazarpen eta suntsiketaren garaian bezala definitzen dute oholtzan eskaintzen dutena. Informatika Delituen Unitateko komisarioa villaorduñatarren etxean sartuko da eta familia bereko lau kideak atxilotuko ditu. Zerbitzari informatiko partekatu batean pornografia-sare bat edukitzea leporatzen die. Komediatik enfokatzan duten familia bateko gorabeherak antzeztuko dituzte ordu eta erdi inguruko obra horretan.

'Otsoteszena kantuz' gaur iluntzean Seminarixoa

Arratsaldeko zortzietan hasiko da emanaldia eta sarrerak zortzi eurotan eskuratu daitezke. Emanaldiaren barruan, Otxote Lur Maitea eta Jatorki Abots Zurian otxoteak entzun ahalko dira zuzenean. Bakoitza bere aldetik eta era bateratuan, hainbat interpretaziotan Mikel Gaztañaga pianistak eta Arrate Fernandez Mesa akordeoi-jotzaileak lagunduta.

Gainera, Jatorki Abots Zuriak taldeak Alberto Nuñez tenorea eta Nere eta Ainhoa Arregi sopranoak izango ditu lagun. Hala, *Otxoteszena kantuz* ikuskizunean musika munduko otxote garrantzitsuenetako bi arituko dira.

Jardunaldi antifaxistak bihar kartzela zaharrean

Jardunaldien barruko bigarren saioa izango da biharkoa, 18:30ean. Oraingo honetan, Axier Lopez kazetaria izango da eta *Gure herriak* liburua aurkeztuko du.

Herri zapaldu eta zapaltzaile izatearen dikotomiaz eta Euskal Herriko kaleetan kolonialismoarekin eta esklabotzarekin lotura duten pertsonaiek duten presentzia aztertzen duen lana izango da jendaurrean erakutsiko duena.

Datorren asteburuan, martxoaren lehen hirugarren saioa egingo dute. Iñaki Egaña kazetari eta historialaria izango da eta *Faxismoa Euskal Herria. Iragana. oraina* hitzaldia egingo du.

Eztalako harrobiko bost gazte, klub nagusienetan

Athleticek Beñat Larrea fitxatu du. Gainontzeko laurek Gipuzkoako taldeetan jokatzeko dute: Peru Rodriguez Sanseko jokalaria da egun, Iker Otadui Realaren talde gazteago batekoa eta Aimar Madina, Easokoa; Uxue Iparragirrek Eibarko taldean jarraitzen du

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Elastiko gorria soinean dozena-ka dira Antzuolako Kirol Elkartean futboleko dabilzanak eta aritu direnak. Eztala zelaiari hazi dira, lehen joko-eremu izan dute, eskolako patioarekin batera, baina, nagusitu ahala, aukera gehiago izan dituzte eskura herritik kanpora. Hala, egun, AKERen harrobiko bost gazte euskal klubik esanguratsuenetan dabilta.

Athleticek egin du azken fitxaketa. Beñat Larrea Martinek kamiseta zuri-gorria jantziko du datorren denboraldian, klubak abenduan egin baitzuen 17 urteko gaztearen fitxaketa. Bien artean, ordea, Bergarako Kirol Elkartean taldean jarraituko du Euskal Ligan, bertan baitabil futboleko azken urteetan. Hala ere, barne araudi bat dute Athleticek eta ez da posible izan haren hitzak jasotzea, hala hitzartua baitute.

Bizkaitik Gipuzkoara

Larrearena da, ordea, Bizkaian egin den fitxaketa bakarra, gainontzeko lau futbolariak Gipuzkoako taldeetan baitabilta.

Peru Rodriguez Larrañagak 21 urte beteko ditu, eta antzuolar gazteen artean ibilbide luzeenetakoa duena da. Athleticek erantzen, Realak ere barne-arau bat du, eta, kasu horretan, ez dago jokariaren hitzak jasotzerik. Egundak, Sanseko kidea da eta defentsan aritzen da jokoan. Infantil mailan iritsi zen Zubietara, 2015ean, eta, ordutik hona, elastiko txuri-urdina darama. Bigarren mailan ere debuta egin du, Sportingen aurkako neurketa batean jokatu baitzuen 2021eko azaroaren 12an.

Iker Otadui Aristi, berriz, Realeko talde gazteagoko kidea da. 18 urte beteko ditu aurten eta gazte mailan Realak duen talde indartsuenean dago, ohorezko



Eztala futbol zelaia. EGARALUR

EZTALAKO ZELAIA ETA ESKOLAKO PATIOA IZAN DITUZTE LEHEN JOKO-EREMU FUTBOLARI GAZTEEK

mailan. Ezkertia da eta zelai erdian jokatzeko du.

Haiez gain, Realean dabil Aimar Madina Arriola ere, Easoko taldean, Realak gazte mailan duen bigarren taldean. 17 urte beteko ditu aurten eta lehen denboraldia du taldean. 8 urterekin hasi zen futboleko Antzuolan, baina 2021-2022ko denboraldirako Bergararen eskaintza jaso zuen. Urte hartako abenduan, Realaren eta Eibarren eskaintza bana jaso zuen hurrengo hiru urteei begira, eta, azkenean, Realean onartu zuen.

Hala, nabarmendu du "esker-tuta" dagoela AKERekin; batez ere, izan dituen entrenatzaileekin, baita Bergarakoekin ere. Argi du "hankak lurrean eta burua hotz" mantendu behar duela, futbolaz gozatzeko eta ikasteko. "Hori da nire gaur egungo erronka, baina amets

batzuk badituzte: ahalik eta goren iristea Realean".

Iparragirre, Eibarren

Eibarko taldean dabil Uxue Iparragirre Larrañaga. 23 urte beteko ditu, eta 13 urte zituela hasi zen Antzuolan futboleko; hiru urterekin ostean, kadetetan iritsi zen Eibarrera. Egundak, Eibarko B taldeko jokalaria da, baina entrenamenduak lehenengo taldearekin egiten ditu. Eurekin partidak ere jokatu ditu.

Dena den, argi du urrats hauek egitea ez litzatekeela posible izango hasieratik aldoan izan dituen lagun eta entrenatzaile gabe, eta oso eskertuta dago AKERen jaso duenarengatik. "Orain hamar urte ez geunden futboleko jolastu nahi genuen neska asko, baina denon esfortzuekin eta genituen baliabide gutxiekin taldea egin genuen".

Aitortu du ez diola etorkizunari begiratu ohi, baina epe motzean Eibarko taldearekin kategoriaz igotzea gustatuko litzaiok. Halere, badu amets bat: "Emakume denon amets edo nahi kolektibo bat dugu, emakumeen futbolak merezi duen lekua eta aitortza jasotzea".

Herriak hirigintzan izan ditzakeen aukeren berri emango dute

Torresoroan izango da aurkezpena, martxoaren 2an; Hiri Antolamenduko Plan Orokorren jarraipena da

A.R.K. ANTZUOLA

Duela bi urte hasi ziren Hiri Antolamendurako Plan Orokorra garatzen. Herritarren parte-hartzea hizpide, Antzuolako lurren inguruko hausnarketa egin eta diagnostiko-dokumentu bat ondu zuten. Herria nola dagoen eta herriaren garapenerako zein gune izan daitezkeen gako jaso zuten; arkitekto talde batek landua da, eta, orain, Plan Orokorren aurrerapen dokumentua egin du, herriak hirigintzan izan ditzakeen aukeren berri emateko.

Torresoroan aurkeztuko dute, martxoaren 2an, 18:00etan, baina ondoren, hiru hilabetez egon beharko du jendaurrean, eta, ostean, beste bi hilabete jendearen alegazioetarako. Beraz, udazkenean hasiko da Plan Orokorren ziklo berria; erabakiak hartzeko. Hala, horretarako,



Bilera ireki bat Antzuolan. GOIENA

tailer parte-hartzaileak antolatuko dituzte.

Unean ez da ezer erabakiko, baina Udalak jakinarazi du garrantzitsua dela "ahalik eta jende gehien joatea" aurkezpena, gerora zer erabaki beharko den jakingo delako.

Erdigunea itxi egingo dute bihar goizean ibilgailuendako

A8M lasterketa amaitzean irekiko dute; horrez gainera, organikoaren edukiontzia gaur atera beharko da

A.R.K. ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak lasterketaren hamargarren aldia izango da bihar, eta horrek eragina izango du herriko trafikoa, herriaren erdigunea moztuta egongo baita ibilgailuentzat goizetik eguerdira arte. Horrez gainera, Udalak herritarrei autoak ahal dela garajeetan sartzeko eskatu die, kanpotik jende asko etortzea espero delako, eta, horrenbestez, lekua izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin.

Hondakinen bilketan ere eragina izango du lasterketak, kirol-proba hasi baino lehenago egingo baita. Hala, gaur atera beharko da organikoaren edukiontzia zintzilikarioetara, lehenago jaso dezaten.

Kontzertuak gaztetxean

Lasterketarekin bat, kontzertuak antolatu dituzte biharko gazte-



Kalebarren kalea. A.R.K.

txean. Debagoieneko Korda Rota, Burugabe eta Eten taldeak igoko dira oholtza gainera, 22:00etan. Eta amaitzean, DJ Liluraren txanda izango da.

Halere, 18:30ean zabalduko dute, eta baita 12:00etatik 14:00etara bitartean ere.



Oinari dantza taldeak antolatuta, dantza saioa egin zuten hilaren 18an, zapatua, Herriko Plazan. IDOIA ARANBARRI

Inauteri-gosea bapo ase dute herritarrek

Euskal dantzak izan dira Inauterietako protagonista nagusienetakoak herrian; ehun lagun inguruk hartu zuten parte Herriko Plazako saioan. Hala ere, izan da askotariko mozerroak ikusteko aukera ere. Martitzenean, berriz, erretiratuen txanda izan zen

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Txistu-soinuek eman zioten hasiera egunari Antzuolan joan den zapatuan. Sorgin eta txarri dantzetako dantzariak euren doinuen pean aritu ziren dantzan, hartza, tximinoa eta hezitzailea lagun zituztela. Giro "paregabea" izan zutela kontatu dute Oinarin dantza taldeko kideek, eta kalejiran ez zela ezustekorik izan; ez bada, behintzat, bi animalien arteko borrokaren bat.

Herriko Plazako dantza saiorako indarrak hartzeko baliatu zuten kalejiraren osteko hamai-ketakoa. 55 heldu inguru batu ziren, dantzariak eta txistulariak, baina gehiago izan ziren plazan, 60 umek ere hartu baitzuten parte. Hala, ehun herrikidek baino gehiagok egin zuten dantza pandemia ezkerre egin den Aratusteetako lehen saioan.

Festak, ordea, ez zuten amaiera han izan, dantzariak gain hainbat baitziren herrian mozerrotuta zebiltzanak: piratak,

monjeak, banpiroak... Ez zen pertsonaiarik falta izan kaleetan. Bazkaria egin zuten gehienek, eta, ostean, erromeria izan zen Herriko Plazan.

Erretiratuen jai

Erretiratuek, ordea, Inauterietako festa are gehiago luzatzeko hautua egin zuten, merienda eta mozerro festa egin baitzituzten

martitzen arratsaldean Landa-txope elkartean.

55 lagun inguru batu ziren eta tartean zeuden, besteak beste, pailazoak, txorimaloak eta faroiak. Gustura aritu ziren elkarrekin hizketan jan-edanean, eta, giroa goxatzeko, txokolate beroa ere izan zuten. Amaitzeko, mozerro lehiaketa egin zuten parte-hartzaileen artean.



Erretiratuek mozerro festa egin zuten martitzenean. A.R.K.



Jon Ander Ostolazak hilaren 16an egin zuen hitzaldia, Olaran etxean. MIREIA BIKUÑA

Basotik Fundazioa aurkeztu dute, baso ondarea "indartzeko"

Gipuzkoako basoen "errentagarritasuna, kudeaketa eta segurtasuna" bermatzea da asmo nagusienetako bat

A.R.K. ANTZUOLA

Gipuzkoako baso ondarea "indartzeko" asmoz, 2022ko ekainean jarri zuen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak Basotik Fundazioa, Finlandiako, Suediako eta Alemaniako ereduetan oinarrituta eta horien aldeko hautua eginda. Horretarako, bi milioi euroko hasierako inbertsioa egin du, eta, hain justu, horren berri eman du Jon Ander Ostolazak, Basotik Fundazioko zuzendariak, Antzuolako EAJK antolatuta hitzaldia egin baitzuen hilaren 16an Olaran etxean.

Dozenaka lagun elkartu ziren bertan, eta, lehendabizi, Ostolaz nabarmendu zuen lurraldeko baso-jabeen parte hartzea behar dela fundazioak duen helburua erdietsi ahal izateko. "Probintziako baso-jabe partikularrei kudeaketa zerbitzu integrala eskainiko diegu; besteak beste, sektoreko erakunde ezberdinekin harremana mantenduta eta zerbitzu berriak erakita".

Izan ere, azterketa batean oinarritutako datuak eman ditu eta azpimarratu du jaso dituzten emaitzak gogoan izanda erantzun bat eman behar zaiola egoerari. "Fundazioak analisi bat egin zuen Gipuzkoako basoen inguruan eta hainbat mehatxu eta arazo identifikatu zituen. Nagusia abandonua zen". Zehazki, Gipuzkoako lurraldearen %61,5 basoak dira. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako portzentajerik "handiena" da hori eta Europako batez bestekoa-%40- baino

"askoz handiagoa". Hala ere, lurraldeko baso guztien azalaren %16,5 utzita dago.

Jabeei deia

Datu horiei buelta emateko, beraz, interesa izena gero Ostolazak baso-jabe partikularrei egin die dei. "Hasiera batean, kudeaketarik aurrera eramaten ez duten baso-jabeei zuzenduta dago, baina mota guztietakoei irekitako fundazioa izango da gurea". Profil hori betetzen dutenei ez ezik, errentagarritasunik gabe kudeatutako ustiatuegi jabeei edo karbono-aztarna murriztu nahi duten enpresei eta sektoreei eskainitako zerbitzu bat ere bada. Hala, era horretan, "errentagarritasuna, kudeaketa eta segurtasuna" bermatu nahi dituzte.

Baso bakoitzak duen balioa zein den kalkulatzeko, ordea, irizpide batzuk hartuko dituzte kontuan: tamaina, geruza ezberdinen balioak, lurraldearen ezaugarriak eta ustiatuegiaren egoera, irisgarritasuna eta araudia, besteak beste. Ostean, lurraldeko jabearekin kontratua sinatuko dute lur horien kudeaketa fundazioaren ardura pean gelditu dadin, eta jabeek kontraprestazio bat jasoko dute.

BASO KUDEAKETARIK EGITEN EZ DUTEN JABE PARTIKULARREI ZUZENDUTA DAGO PROIEKTUA

Elgeta-Kanpanzar bidea hobetzeko lanak, hastear

Uztailean aurkeztu zuten proiektua, eta maiatzean hasi eta udarako amaitzea aurreikusten dute; 380.000 euroko kostua izango dute. Hamar bihurgunetan atzeman zituzten arrisku-guneak, eta haiek hobetzeko dituzte, segurtasuna bermatzeko

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Gipuzkoako Foru Aldundiak joan den uztailean aurkeztu zuen GI-2639 errepidean egin beharreko lanen proiektua; Elgeta eta Kanpanzar lotzen dituen errepidean, hain zuzen. Egune-ro 800 ibilgailuk erabiltzen dute eta horietatik %15 astunak dira. Hori dela eta, bidearen zabaleraren zenbait puntu estuak direnez arazoak sortzen dira bi ibilgailu gurutzatzerakoan. Arazo horri irtenbidea eman guran, urteak ziren Elgetako Udala lanok egitea eskatzen ari zela, eta pozik hartu zuen albistea, ikusgarritasun eta segurtasun eskasa dago-eta errepideko leku askotan.

Orduan azterketa bat egin zuten eta errepideko hamar bihurgune edo puntu kritiko atzeman zituzten, eta, guztira, 6,5 kilometroko luzerako ibilbideko bihurguneak leundu eta handituko dituzte. Lanak bi motatakoak izango dira: kasu batzuetan, mendiari hartuko zaio zati bat eta beste batzuetan, berriz, betelanak egingo dira. Bi kasuetan, baina, errepidea zabaltzeko lanak izango dira, ibilgailuen eta gidariaren segurtasuna bermatzen saiatzeko.

Aintzane Oiarbide Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako diputatuak egindako agerraldian baieztatu zuen lanak hasteko hilabete pare bat falta direla. Era berean, azpimarratu zuen espero baino aktuazio handiagoa egin beharko dutela: "Uste baino aktuazio handiagoa izango da, ezponda asko berdindu behar direlako. Azken finean, bide segurtasuna irabazteko lanak dira, estuguneetan errepideari zabaltasuna emanez, autoek kamioiekin arazorik izan ez dezaten".

Udarako lanak amaituta

Urtarrilaren 10ean onartu zuen Diputatuen Kontseiluak proiektu



Aintzane Oiarbide, Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidean. IÑIGO BARRENA

LANEK MAIATZEAN HASI ETA HIRU HILABETE IRAUTEA ESPERO DUTE, UDARA BITARTEAN

tua eta ondorengo asteetan lizitaziora atera zuten. Horren harira, apirilaren hasierarako jakingo da zein enpresari esleituko zaion proiektua gauzatzeko ardura. Lanekin, berriz, maiatzean hasia espero dute eta hiru hilabete irautea aurreikusten dute: "Apiril hasieran izango da esleipena, eta horren ondoren hilabete behar da, gutxi gorabehera, presateta-lanak egiteko. Lanak maiatz hasieran hasia espero da, eta udarako amaituta egoitea", adierazi du Aintzane Oiarbidek.

Errepideak zabalik jarraituko du
Lanak egingo diren denbora-tarte horretan errepidea ez dela itxiko adierazi du Bide Azpiegiturarako diputatuak, nahiz eta jendeari "pazientzia pixka bat" izateko eskatzen dion; as-

moa ibilgailuen ahal den gutxien eragitea da. "Ez dugu errepidea itxiko; txandakako pasabideak jarriko ditugu semaforoen bitartez, hango ibilgailuen joan-etorrian ahal den gutxien traba egiteko", adierazi du Oiarbidek.

Autoetan eraginik izango ez duen arren, kamioiek, agian, ez dute zorte bera izango; izan ere, Foru Aldundia ibilgailu horientzat debekuren bat jartzea aztertzen ari da, nahiz eta zein lan egingo diren zehaztutakoan emango duten horren berri.

Erabiltzaileentzat onuragarri

Maiatzean hastekoak direnez gain, Foru Aldundiak beste hainbat lan egin ditu errepide horretan azkenaldian. Areka berriak egin eta asfaltatze-lanak izan dira egindakoak, baita Kanpanzar gaineko ikusgarritasuna hobetzeko lanak ere. Denak ere proiektu garrantzitsuak. "Bidegurutze hori oso arriskutsua zen eta hango ikusgarritasuna handitzea eta errepide hura zabaltzea onuragarria izango da; batez ere, elgetzarrentzat", adierazi zuen Oiarbidek.

Artxiboko argazki erakusketa online ikusteko aukera

Abenduan herritarrek astebetean zuzenean ikusteko aukera izan zuten; aurrerantzean, baita Interneten ere

I.B.K. ELGETA

Elgetako Udal Artxiboko argazkiekin egindako erakusketak harrera beroa izan zuen abenduan herritarrentzat astebetean zabaldu zutenean. Fernando Larrañaga, Txema Barrutia eta Manolo Cainzos aritu ziren katalogazio-lanetan. Orain, argazkiak digitalizatu eta Udalaren Flickr kontura igo dituzte, aurrerantzean gura duenak ikusgai izan dituzten.

Guztira, gerra aurreko eta osteko 331 argazki osatzen dute erakusketa. Horien artean dira erakusketa egin baino lehen artxiboan aurkitu zituzten 72 argazki, 1940koak.

Identifikazio lanak

Artxiboko argazkiak ordenatzen eta prestatzen hilabeteak behar izan zituzten; gehienbat, irudietan agertzen ziren pertsona asko



Argazki zaharrak. LARRAITZ ZEBERIO

identifikatu edo izen gabe zeudelako. Hura izan zen hain zuzen herritarrei eskatu zieten laguntzetako bat. Erakusketarako "%98 identifikatu" zituztela aitortu du Fernando Larrañagak, katalogazio lanetan aritu den boluntarioetako batek.

Herrixa Dantzan dantza tailer irekia izango da domekan

Domekan arratsaldeko zazpietan Espaloia Kafe Antzokian egingo dute tailerra. *Euskal Herriko plazetarako dantza berriak* proiektuko dantzak ezagutu eta lantzeko dantza-tailer irekia izango da. Ez da ohiko dantzaldia izango. Sarrerarik ez da ordaindu beharko eta parte hartu nahi duen ororentzat irekita dago deialdia.

Doako ikastaroa antolatu du KZguneak martxorako

Elgetako KZ guneak doako ikastaroa antolatu du, tabletak eta eskuko telefonoak nola kudeatu eta erabiltzen jakiteko. Bertan, androida ezagutu eta pertsonalizatzen; kamera eta memoria kudeatzen; nabigatzen, bilatzen, instalatzen; eta egunerokoa errazteko aplikazio baliagarriak zeintzuk izan daitezkeen ikasiko dituzte.

Gipuzkoako Dantzagunearen Sortutakoak tradizionala 8 deialdian aurkeztutako proiektutik abiatuta, 25 bat plazako dantza sortu ditu Patxi Monterok. Egitasmoa pasa den azaroan aurkeztu zuen, toki beran. Orduan dantza plazen testuingurua azaldu eta hortik bere proiektuaren abiatzea azaldu zuen, baita erakustaldi praktikoa eman ere. Bigarren egunean jendaurreko aurkezpen-dantzaldia egin zuen zuzeneko musikaz lagunduta.

Ikastaroa martxoaren 1etik 10era izango da eta hamasei ordu izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean. Ikastaroa KZgunean bertan izango da izango da, erabilera antzeko gelan. Plazak mugatuak dira eta izena emateko azken eguna hilaren 27a, datorren astelehena izango da. Hain zuzen ere, parte hartu nahi duenak liburutegian bertan eman beharko du izena. Astelehenetik ostegunera, 16:30-20:00 bitartean egongo da irekita.

Bi aste barru izango da Ibiltarien Jaia

Euskal Mendizale Federazioa, Elgetako Udala eta Kantsatzeke mendi taldea hasita daude martxoaren 12an egitekoa den Ibiltarien Jaia antolatzen. Iaz, eta bi urteko etenaren ostean, 130 lagun elkartu ziren. Aurten, bazkaria ere bueltan da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Iraupen luzeko ibilbideen zirkuitua da Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen jarduerarik garrantzitsuenak. Euskal Herriko hainbat bazter ezagutzeko aukera ematen du eta leku askotako mendizaleek hartzen dute parte bertan. Federazioak Elgetan egin ohi du zirkuituari amaiera ematen dion Ibiltarien Jaia, eta aurtengoa martxoaren 12rako iragarri dute.

Bi urteko etenaldi luzearen ostean, iaz egin zen atzera ere; baina bazkaririk eta diploma banaketa ekitaldi barik. Betiko formatuan dator Ibiltarien Jaia aurten; 08:00etan emango diote hasiera 24 kilometroko mendi bueltari, eta amaizutakoan egingo dira 2022ko zirkuituari dagokion diploma banaketa ekitaldia zein bazkaria.

Izen-ematea zabalik dago

Mendi irteeran parte hartzea doakoa da, baina komeni da izena ematea. Martxa klasikoa egingo dutela jakinarazi dute Federazioak, eta herriko tontor esanguratsuenak zeharkatuko dituztela mendizaleek: Elgeta, Intxorta, Erdella, Santamañazar, Egoarbitza, Azkonabitza, Karabieta eta buelta Elgetara. Mendizaleak 08:00etan abiatuko dira



Bi parte-hartzaile, Asentzio inguruan, iaz egindako Ibiltarien Jaian. IMANOL SORIANO

Bolatoki ingurutik. Bazkaltzeko txartelaren prezioa, berriz, 30 euro da. Baterako zein besterako izen-ematea zabalik da zirkuitua.com atarian, martxoaren 10era arte.

Iaz 130 lagunek hartu zuten parte Ibiltarien Jaian. Antolatzailerik jakinarazi dute dutxa zerbitzua egongo dela martxa amaieran, eta bezperan lo-lekua beharko lukeenik balego udal-txean egin behar dela eskaera aurrez. Kiroldagiko gimnasioa eskaera egiten duten mendizaleen eskura egongo da.

2022ko zirkuituak 22 martxa izan ditu eta 2023koak hemeretzi ditu aurreikusita. Euskal Herri osoko mendizale eta mendi elkarte askoren parte-hartzea dago ekimenaren atzean.


Elgetan egiten den martxari dagokionez, Kantsatzeke mendi taldeko lagunak arduratzen dira mendi bideak garbitzeaz eta markatzeaz. Zalantzarik gabe, hitzordu garrantzitsua da baita ere Elgetako mendizaleendako. Antolakuntza taldeko kide gisa zein parte-hartzaile gisa askok hartzen dute parte.

Mendi taldeak gertu du egutegia

Kantsatzeke mendi taldeak, berriz, gertu du 2023ko irteeren egutegia. Bederatzi mendi buelta iragarri dituzte, eta, eguraldiaren arabera aldaketak egon badaitezke ere, martxoaren 19an egingo dute lehenengoa.

Tolosaldeko Uzturre eta Loatzo izango dituzte helmuga lehen irteera horretan, eta sagardotegi batean egingo dute bazkaria. Gainerako irteerak Urregaraira (apirilak 23), Uginora (maiatzak 21), loarrera (ekainak 18), Otoiora (uztailak 16), Enaitz-Zabalaitzera (irailak 17), Irukurutetara (urriak 22) eta Andastora (azaroak 19) izango dira. Azaroko irteerarekin batera, gainera, baba-jana egingo dute. Gabon Egunean, berriz, Intxortan egingo dute hitzordua.

Kantsatzekek profila du Facebooken. Edozein argibidetarako, kantsatzeke@gmail.com da helbidea erabil daiteke.



Irteeretako bat, iaz. KANTSATZEKE



Piñu-kokuko eta Gazte Asanbladako kideak lanean. PIÑU-KOKU

Enduro-zaleak basoan lanean

Piñu-koku enduro taldeko kideak, bestetik, zabaltze eta garbitze lanetan dihardute. Aurreko egunotan Gazte Asanbladako kideen laguntza izan dute, gainera. Lanok, besteak beste, apirilaren 15ean egitekoa den III. Enduro Martxa prestatzeko dira.

Txokolate-jana eta bingoa

Xalbadorpe erretiratuen elkarteko kideen txokolate-janarekin eta bingo saioaren eman zitzaion amaiera 2023ko Aratusteari Elgetan. 56 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan arratsalde-pasa egiteko. Erretiratuek eguenean dute hurrengo hitzordua, martxoaren 2an: urteko batzar orokorra egingo dute, 17:00etan, Ozkarbi elkartearen.



XALBADORPE ELKARTEA

Astelehenean hasiko dira Elgetako egonaldi artistikoak

Udalak Debagoieneko Antzerki Plataformarekin (DAP) elkarlanean antolatuta lau izan dira egonaldiotarako aukeratutako proiektuak. Gasteizko Tranpola Antzerki Taldeko *Bahia Tours* proiektuko lagunak egingo dute lehen egonaldia, astelehenetik barikura. Jarraian etorriko dira Nerea Atxa, Les Bobe Bobe eta Kokoxa antzerki taldea.

OHARRAK

Literatura solasaldia

Martitzenean Hitzez Pitz literatura solasaldia liburutegian, 19:00etan.

Pianistak Oñatira

Zapatuan Laida Untzetabarrenetxea, Mirari Gonzalez eta Irea Alberdi Oñatin egitekoa den *Pianoaz gozatzen* jaialdian izango dira. Inguruko herrietako 85 ikasle elkartuko dira bertan.



Xabier Igartua eta Izaro Elorza, hainbat etxebizitzako zuntza sarera konektatuta dagoen gordailuan. TXOMIN MADINA

Zuntza sare publikora zabalitzen ari da Onaro

San Martin auzoko eta San Andres kooperatiban dauden Olakua eta San Lorentzoko 700 etxebizitzatan zuntza sare publikora konektatzeko azpiegiturak egokitu dituzte; Internet zerbitzua prezio justuan eskaintzea bermatzea da Onaroren helburuetako bat

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ekainean beteko ditu bi urte Onarok, Oñatiko Udalaren telekomunikazio operadore integrak, eta gaur egun dagoeneko 60 baserritara eramanez dute banda zabala eta herriko 714 etxebizitza konektatu daitezke herriko zuntz sare publikora.

Sare irekia

Ia bi urteren ostean, hasierako helburu berekin ari dela Onaro hazten esan dute Xabier Igartua eta Izaro Elorza udal ordezkariak; alegia, herritar guztiei, baita landa-eremukoei ere, oinarrikoa ikusten duten internet zerbitzua eskaintzen eta zerbitzu hori prezio justuan ematen. Horren harira, herriko 60 baserritan dagoeneko antena bidez banda zabala jasotzen dute, eta San Martin auzoko eta San Andres kooperatiban dauden Olakua eta San Lorentzoko 700 etxebizitzatan zuntza sare publikora konektatzeko azpiegiturak egokitu dituzte. "Prezio justua iza-

teaz gain, Onaroren bitartez egiteak bermatzen du orain arteko multinazionalen menpekotasunik ez izatea. Bota dugun sarea irekita dago, beste operadore batzuk etortzea erraztu dezake horrek, konpetentzia igo egin ahal da eta, ondorioz, prezioak jaitsi herritarrendako. Onarok bermea jarriko du herritarrek zerbitzua prezio duinean izateko, eta egitasmoaren filosofia sare askearena da; sareak ezin dira inorenak izan eta egindako azpiegiturak guztiendako erabilgarri izan behar dute", dio Zerbitzuak eta Landa Garapeneko batzordeburu Igartuak.

Egindako lanekin, gainera, Olakuan dauden udal eraikinak ere, hau da, haur eskola, Oñati

**LEHEN URRATSAK
EGIN DIRA TELEBISTA
ERE ESKAINTZEKO;
TARTEAN, TOKIKOAK.
GOIENA, ADIBIDEZ**

irratia dagoen dorrea eta Natur Eskola, konektatu dituzte dagoeneko zuntza sarera. Eta asmoa da zuntza herrian zabalitzen joatea, Olapotoko dorre handietara, esaterako, baita herrian eraiki diren eta Internetarako sarbiderik ez duten etxebizitza berri batzuetara ere; Kurtzekoak, kasu. Horri lotuta, konpainia pribatuek duten jokabidea salatu du Oñatiko Udalak.

Telebista ere bai

Egun, 500 sakelako dira Onaroren zerbitzua erabiltzen dutenak, eta San Martinen zuntzera konektatzeko aukera duten 300 etxebizitzetatik 170ek egin dute horren alde. Izandako erantzuna eta bilakaera modu positiboan baloratu dute udal ordezkariak. Telebistari dagokionez, asmoa da Onaroren bidez telebista kate orokorrez gain tokikoak eskaintzea –taratean, Goiena telebista–, egun hainbat tokitan dauden estaldura arazoei erantzuna emateko.



IÑIGO BARRENA

Eratu da Emakumion Kontseilua

Formalki eratu da Oñatiko Emakumion Kontseilua. Orain arte lanean jardun duen arren, Udalaren organo izatera pasatu da. Egun, hamabi lagunek osatzen dute, baina organo irekia da eta interesa duen herriko emakume orok har dezake parte. Sei hilabete barru da hurrengo asanblada. Bitartean, hilean behin elkartzen jarraituko dute kideek, gaiak jorratzeko.

Gipuzkoako Urak-en sartuko da Azpiletako ur-depositua

Arantzazuko Azpiletako ur-depositua Gipuzkoako Urak sistemaren barruan dagoen Goiko Bentako depositura konektatuko dute. Modu horretan, 27 baserrik hartuko dute Azpiletako depositutik ura. Han ur-sistema propioa dago, baina egindako zenbait analitikan trihalometanoa atzeman izan dute eta ur edangarririk gabe geratu dira handik ura hartzen duten bizi-lagunak. Hori ez errepikatzea lortu gura dute lan horiekin.

Proiektuak 223.749 euroko arrekontua da eta Ekin Eraiketarako SL enpresak egingo ditu lanak. Martxoan hasiko direla aurreratu du Oñatiko Udalak, eta ekainean amaitzea da asmoa.

40. urteurreneko lehen ekitaldiak Arranok asteburuan

Oñatiko Arranok 40 urte beteko ditu uztailean, baina dagoeneko hasi da urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzen. Gaur, esaterako, 20:00etan, *Irunberriko gertaeren ikerketa lana* aurkeztuko dute Ander Lizarraldearen eskutik eta bihar, zapatua, urteroko Arrano Eguna ospatuko dute, 10:30ean, Arranoaitzen, eta gero, bazkaria elkartean.

Herriko ondare etnografikoa jasotzen duen liburua, prest

Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa izeneko liburua aurkeztuko dute datorren astean. Gure Bazterrak elkarrekin herriko ondare etnografikoa aztertzeke egindako Erreusak egitasmoaren ondorioa da lana, taldeko kide den Arantzazu Sagarzazu Sacristanek idatzitakoa. 1.540 piezaren katalogazioa eta 30 elkarrizketa baino gehiago egin zituzten herriko 80 bat baserri, etxe eta biltegitan egon ostean, eta jasotakoa biltzen du liburua. Martxoaren 3an da aurkezpena, 18:00etan, zinema aretoan. Herriko liburu dendetan, Turismo Bulegoan, kultura etxean eta Arantzazuko dendan erosi ahal izango da.

Artasora egingo dute irteera domekan Natur Eskolakoekin

Basoaren eta klima aldaketaren arteko erlazioa ikertu du Ekologian doktore Julen Astigarra pagadia hartu du lagin ikerketa horretarako, eta domekan, Ingurumen Jardunaldien barruan, Artasora joango dira haren ikerketa lana bertatik bertara eza-gutzera. 09:00etan abiatuko dira, Ibarrik.

Oñatiko Inauteriak goraipatu ditu Urbeltzek

Oñatiko Inauteriak ikusten izan zen Juan Antonio Urbeltz joan den zapatuan eta ikusitakoa asko gustatu zitzaiola adierazi du: "Ez da erraza hainbeste jende dantzan jartzea eta txukun egitea lortzea". Gaineratu du "primerako lana" egin dela

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Euskal Inauterietan eta dantzetan aditua eta euskal dantza eta musika tradizionala berreskuratzen lan handia egin duen Juan Antonio Urbeltz kultura-gizona egon zen joan den zapatuan Oñatin, Oñatiko Inauteriak bertatik bertara ikusten. Eta izugarri gustatu zitzaion ikusitakoa: "Oñatz dantza taldeak egindakoa primeran egindako lana da. Ez da batere erreza hainbeste jende dantzan jartzea eta txukun egin dezatela lortzea. Bejondeiela!".

Dantzak eta doinuak

Aurretik bazuen Oñatiko Inauterien berri, baina zapatua arte ikusi gabe zuen ospakizuna eta harritu egin zuen ikusitakoak, onerako. Oso interesgarria iruditu zitzaion. "Makil dantza bat dut gogoan, baserri munduarekin lotzen dudana, baita kontradantza bat ere. Biak ala biak oso ondo dantzatu zituzten Oñatin. Errepika dezente eginak zeudela antzematen zen. Bestalde, kondearen eta emaztearen dantza egokia gustatu zitzaidan", adierazi du Urbeltzek.

Dantzetan ez ezik, musikan ere jarri zuen arreta iruindarrak, eta entzundakoa gustukoa izan zuen: "Bereziki, melodia gorai-



Juan Antonio eta Xabier Urbeltz anaiak, joan den zapatuan, Oñatiko plazan. M.A.

400 HERRITARREK HARTU ZUTEN PARTE ARATUSTE-ZAPATUKO OÑATIKO INAUTERIEN FESTAN, KALEZ KALE

patuko nuke, asko gustatu zitzaidan". Oñatiko Inauteri festan ikusitako jende kopuruak ere poztu zuen, "festa gosez eta saltsan hain sartuta" ikusita.

Iñaki Azkoaga txistulariak gonbidatuta izan ziren Juan

Antonio eta Xabier Urbeltz anaiak joan den zapatuan Oñatin, eta, dantzak ikusi eta festaz gozatzeaz gain, egun ederra pasa zutela adierazi du, bazkari eta guzti. Oñatz dantza taldeko hainbat lagun agurtzeko tartea ere hartu zuen, gainera.

400 bat lagunek hartu zuten parte Aratuste-zapatuko festan. Kalez kale ibili ziren dantzariak, musikariak, gaztetxoenen gozagarri diren borrareroak, txokolateroak eta hartza, herritarrak zirikatuz. Konde-kondesek ere ez zuten hutsik egin.



NIRE USTEZ

LOREA SUAREZ IBARGUREN

Errepikaezinak, desberdinak garelako

Desberdina naiz, eta zer?

Behin eta berriz galdetu diot neure buruari. Haurrek txikitatik bizi, hazi, jolasean aritu eta ikasteko ingurune seguruagoak sortzeko moduari buruzko ezagutza sortzen dute. Baina zer gertatzen da sentimendu hau lortzen ez dutenekin? Ebidentziek erakusten diguten moduan, eskolan edota kalean haur batzuek bizi dituzten jazarpenak gero eta itzelagoak dira. Eta gizartea nora begira dago? Ezagutzen ote ditugu horren eragin kaltegarriak? Triste da, bai, baina nik badakit. *Bullying*-a edota jazarpena jasaten duten pertsonen osasunean edota eskolako errendimenduan eragin kaltegarriak dituzte, eta, zer esanik ez, alboan duzunak ohartu edota lekuko dela jakiteak eta laguntzarik ez emateak. Nola hezten ari gara geure haurrak?

Seme-alabek elkartasuna eta adiskidetasuna emateko, hezi beharra dago. Lortu beharrekoa da gure seme-alabek edota edozein pertsonak beste aldera ez begiratzea edota eskua luzatzea. Ez duzue uste? Eta desberdina banaiz ere, ez dut ongi sentitzeko edo naizena izateko eskubiderik?

Margolanen eta buztinen erakusketak, amaitzeak

Bukatzeak dago, alde batetik, Oñatiko Margo Taldeko artistek herriko dendetako erakusleihotetan jarri dituzten margolanen erakusketa. Herriko erdiguneko hamalau bat dendatan tamaina askotariko 25 bat margolan daude; hain zuzen ere, hilaren amaierara arte egongo dira ikusgai, 28ra arte.

Bestalde, Iñaki Jauregiartzo artisauek *Lur bustian idatziak* izeneko erakusketa du zabalik udal liburutegian. Buztinez landutako Euskal Herriko hainbat pertsonaren aurpegiak daude lan horien bilduman ikusgai. Bihar, zapatua, otsailak 26, da azken eguna *Jaltzo*-ren lanak ikusteko.

OHARRAK

'Anonyme popular'

Igor Elortzaren proiektua da *Anonyme popular* eta domekan izango da gaztelekuan, eguerdian, 12:30ean. *Puntu*a aldizkariak jaso ditu Elortzaren asmoak.

Ahoz Aho martxoan

Ahoz Aho egitasmoa etorriko da hirugarrenez Oñatira. Ipuin kontaketak eta komiki erakusketa egongo dira, besteak beste, martxoan.

'La panadera'

La panadera antzezlan egongo da Santa Ana antzokian martxoaren 12an, eta sarrerak dagoeneko salgai daude ohiko tokietan.

Jai giroan hasi eta amaitu

Inauteri Txikiarekin hasi eta jai giroan ospatu dira aurtengo Aratusteak Oñatin. Ikastetxeek ere egin dituzte eurenak eta martitzen arratsaldeko ospakizunetan herritar askok hartu zuen parte; jendetza batu zen arratsaldean plazan egindako txokolate-janean, txorimaloen kalejiran eta baita iluntzeko DJ jaialdian ere. Askok, gainera, mozorrotuta.



Jendea plazan martitzen arratsaldeko eta iluntzeko ekintzetan. MIREN ARREGI

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Aloña Mendiko Maddi Santa Cruz jokalaria jaurtiketa egiten. IMANOL SORIANO

Lehiakorrak izan nahi dute bigarren itzulian

Sailkapeneko azken postuetan eta mailari eusteko lehian da emakumezkoen eskubaloiko talde nagusia. Bigarren itzulian murgilduta daude eta azken asteetako porrotei buelta emateko aukera dute bihar Ameztoi Zarautz taldearen aurka (18:00)

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Urtea ezin hobeto hasi zuten etxean denboraldiko bigarren garaipena erdietsita eta horrek konfiantza eman zion Xabi Guridik zuzentzen duen taldeari. Azken asteetan, ordea, partiduak azken unera arte lehiatu arren ez dute garaipenik eskuratu eta behealdean jarraitzen dute, mailari eusteko lehian. Asteburuan beste aukera bat izango dute, eta ez nolana hiko aurkariaren kontra, bigarren sailkatua den Ameztoi Zarautz izango dute-eta bisitari Zubikoan.

Denboraldia ere ez da erraza izaten ari emaitza aldetik, bi garaipen eta berdinketa bat lortu eta gainontzeko partidak galdu egin dituzte-eta Aloña Mendikoek, baina prestatzaile oñatiarra baikor da datorrenari begira. "Nik neuk taldea ondo ikusten dut orain arte egindakoarekin eta, gutxinaka, konfiantza hartzen ari gara", dio Guridik.

Taldea mailara egokitzen dabil

Aurten aldaketa ugari izan ditu taldeak; izan ere, beterano askok utzi egin dute taldea eta gazte berri ugari sartu dira. Askorentzat lehenengo urtea izanik, egokitzen ari. "Taldea gazte dugu eta partiduetako erritmora moldatzea kosta egiten zaigu batzuetan. Gutxinaka, hobetzen ari gara, baina taldeari konfiantza falta zaio eta horri esperientzia falta ere batu behar zaio", dio Aloña Mendiko entrenatzaileak.

Taldeak duen potentzial osoa, ordea, ez dutela erakutsi azpimarratu du: "Dugun maila baino baxuagoa erakutsi dugu neurketa gehienetan. Behartu

"OSO PARTIDU GUTXITAN ERAKUTSI DUGU KANTXAN TALDE HONEK BENETAN DUEN MAILA"

gabeko akatsak egiten ditugu eta maila honetan hori garesti ordaintzen da. Esperientzia falta dela esango nuke".

Mailari eutsi, lehiakorrak izaten

Beste urte batez, mailari eustea dute helburu txantxiarrekin; horretarako, baina, orain arte kantxan erakutsitakoa hobetu beharra dutela dio Guridik: "Hobetzeko asko dugu; batez ere, partiduak irakurtzen jakin behar dugu eta ditugun aukerak ondo aprobetxatu. Partiduetan kontzentrazioa ez mantentzeak akats asko egitera behartzen gaitu".

Batez ere, hori hobetzeko asmotan kantxaratuko dira liga amaiera bitartean gelditzen diren jardunaldietan; horrela, taldea finkatutako helburuak lortzeko gai dela uste du: "Bigarren itzulirako, partidu guztiak lehiatu eta ahalik eta puntu gehien ateratzen saiatuko gara. Uste dut lanean gogor jarraitzen badugu iritsiko direla emaitzak".

"Finalean baino gehiago, eguneroko lanean zentratu naiz"

IÑIGO ERLE PILOTARIA

Malerrekako txapelketa irabazi du Oier Ariztegiarekin

I.B.K. OÑATI

Donezteben jokatu zen binakako finalean 22-20 irabazi zieten Lakaberi eta Peñalverri. Udaz geroztik txapelik jantzi gabe zegoen Erle, eta, nola ez, gogotsu zen berriz garaipenaren zaporea dastatzeko.

Nola joan da txapelketa? Finalean izatea espero zenuen?


Final laurdenetan ekin genion txapelketari, eta, egia esan, neurketa guztiak antzekotasunak izan dituzte. Ondo hasi gara partiduetan, baina kosta egin zaigu horiek ixtea. Finalean izateko gogoz nengoan, baina ez diot buelta askorik eman, gehiago zentratu naiz eguneroko lanean.

22-20 emaitza estua da; nolako partidua izan zen?

Ez dut uste partidu ona izan zenik; zapora gazi-gozaarekin amaitu nuen. Hasieran, 11-3ko errenta lortu genuen, konstantzia mantenduz eta aurkariaren akatsak baliatuz. Gero, geuk eman genien hauspoa gure akatsekin, eta, nahiz eta bigarren zatian estutu egin genuen, 20-18 jarri ziren aurretik. Azken txanpan, berriz ere, euren akats batzuk eta gure pare bat tanto medio, irabaztea lortu genuen.

Azken urteetan maila ona erakusten ari zara; zure une onenetakoan zaude?

Bai; azken bi urteetan gorakada txiki bat izan dut; baina pilota oso kirol gorabeheratsua da eta oso zaila da beti joko maila handia mantentzea eta beti goian



Erle, eskuinean, txapelarekin. IÑIGO ERLE

izatea. Nik neuk uda sasoi ona izan nuen, hiru txapel lortu nituen eta; baina gero, udazkenean, maila baxuan izan nintzen. Horregatik, une onak eta txarrak dituzunean oso garrantzitsua da orekari eustea. Horretatik ikasi eta lanean jarraitzeko asmoa daukat.

Zeintzuk dira aurrerantzean dituzun helburuak?

Igandean bertan Espainiako Txapelketa jokatuko dut. San Kosme taldearekin ari naiz lehiatzen eta lehenengo jardunaldia irabazi egin genuen; etzi, Naiaran (Najera) dugu partidua. Domekakoaz gain, beste hiru edo lau jardunaldi geldituko zaizkigu. Bestalde, Mungiako txapelketan ere parte hartuko dut; asko gustatzen zait. Gai nontzean, iristen diren aukerak eta txapelketak eskuak zabalik hartuko ditut.

Duatloirako izen-ematea zabalik, martxoaren 13ra arte

Martxoaren 18an, zapatua arratsaldeko lauretan hasita jokatuko da Oñatiko Duatloirean 30. aldian eta izena emateko epea zabalik dago.

Urtarrilaren 26an ireki zuten, hain zuzen ere, izen-emate epea federatuentzat, 35 eurotan. Otsailaren 9an, baina, prezio igoera izan zuen eta, orduetik aurrera, 40 euro ordaindu behar izan

dute parte hartu nahi izan dutenek. Orain, ordea, ez-federatuen txanda da. Libre gelditu diren plazak betetzeko aukera izango dute eta astelehenaz geroztik zabalik da haien izena emateko epea ere. Kasu horretan, 50 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek.

Martxoaren 6a baino lehenago baja eskatzen duten parte-hartzaileei 20 euro itzuliko zaizkie. Izena emateko aukera, martxoaren 13an, gaukeo hamabietan amaituko da.



GAZTEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA

DESKARGATU
ALDIZKARI
DIGITALA DOAN!



**XABI ZUGASTI**

ARETXABALETA

75 kilo

Bigarren borrokaldia izango da

**JOSU ZALAKAIN**

BERGARA

75 kilo


Hirugarren borrokaldia izango da

**YASSINE BOUCHAR**

ARRASATE

92 kilo

Hirugarren borrokaldia izango da

**ANDONI KORTABARRIA**

BERGARA

80 kilo

Seigarren borrokaldia izango da

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Ixa Rodriguez boxeoren entzaile eta txapelketako antolatzaileari luzea egin behar zaio astea: "Sekulako boxeoren gogoz nago, zapatua iristeko desatzen. Eskualdeko lau boxeolarien lan oso ona egin dute hitzordua prestatzen eta, gainera, sarreren salmentarekin ere pozik gaude: dagoeneko 300 saldu ditugu eta zapatuan 17:30erako Uarkapeko leihatilak zabalduko ditugu".

Izan ere, Xabi Zugastik, Josu Zalakin, Yassine Bouchar eta Andoni Kortabarría gogor egin dute lan biharko hitzordua prestatzen. Eta, bereziki, hitzordura dagokien pisuan iristeko azken ahalegina egingo dute egunotan. "Zorionez, lehenago egin ditugu etxeko lanak, baina egun hauetan fintzen jarraitu behar dugu, egunean bertan pisuarekin arazorik ez izateko. Eta bai, azken detaileak zorroztea izango da azken egun hauetan egingo duguna", dio Zalakin. Hain justu, Zugastik garbi dauka ondo entrenatu gabe ideia txarra dela ringera sartzea: "Gauza txarra da hori; hobe da ondo prestatuta joan. Azken batean, ondo entrenatuta bazaude zailagoa da min hartzea. Kontaktuzko kirola da, kolpeak egoten dira, baina, gauzak ondo eginganda, ez dago zertan min hartu".

Debuta eginga dute laurek

Zalakin uztailan egin zuen debuta, non eta etxean bertan,

Eskularruak janzteko ordua

BOXEOA Zapatuan boxeoren jaialdia egingo dute Uarkapen, 18:00etan. Antolatzaileak pozik daude sarreren salmentarekin: dagoeneko 300 saldu dituzte eta bihar ere egongo da erosteko aukera. Ibarreko lau boxeolariak gertu daude ikuskizuna emateko

Bergaran antolatuta zuten jaialdian: "Lehenago, Kortabarría eta biok eginda geneukan elkarren kontra borrokaldi bat, baina, tira, debuta esango genuke Bergaran izan zela, bai. Gainera, nire urtebetetzea izan zen eta irabazi egin nuen; ho-

"GAUZA TXARRA DA ONDO ENTRENATU GABE RINGERA IGOZTEA"

XABI ZUGASTI

"KONTRARIOAK ZUK BESTEKO LANA EGIN DU, ERRESPECTUA MEREZI DU HORREK"

ANDONI KORTABARRIA

rrenbestez, egun borobila izan zen".

Hala, Debagoieneko lau boxeolarien dagoeneko badakite ringera igotzea zer den. Kortabarría, esaterako, hainbat borrokaldi egin ditu, baina hark ere gogoan du Bergarako jaialdia oso berezia izan zela eta nabarmendu du etxean lehiatzea ez dela erraza. "Pentsa, Beñat Rezusta etxeko frontoian ez bada ondo moldatzen... zer esango dugu besteok etxekoan aurrean borrokatzen garenean!", dio, txantxetan. "Baina bai, sekulako tentsioa igarri nuen Bergarako jaialdian, erabat hustuta amaitu nuen; eta oraingoa ere antzerakoa izango da, lagun asko izango ditugu eta harmailtan animatzen, ezagun asko...".

Boxeoren jaialdia 18:00etan izango da, baina ikuskizuna lehenago hasiko dute, 15:00etan Iluntz

tabernan egingo duten pisaketan: "Normalean, pisaketak diskretu samarrak izaten dira, baina guri hasieratik gustatzen zaigu ikuskizuna ematea. Horrenbestez, galtzontzilloak jantziko ditugu, lotsa apur bat ere pasako dugu eta *show*-a hasiko dugu [Ba-

"BOXEOA KIROL OSOA DA, ETENGABE MUGIMENDUAN ZAUDELAKO"

YASSINE BOUCHAR

"PARE BAT HILABETE EGIN DITUGU BORROKALDI HAU PRESTATZEN"

JOSU ZALAKAIN

reak]". Guztira, hamar borrokaldi egongo dira eta hasierakoak Gipuzkoako Txapelketa barrukoak izango dira: "Esaterako, Josu Zalakin eta Yassine Boucharren borrokaldiak. Josu 19:00 aldera igoko da ringera eta Yassine, berriz, 19:30 inguruan. Borrokaldi bakoitzak 15 minutu iraungo du, gehienez; horrenbestez, jaialdiak bi ordu eta erdi iraungo du, gutxi gorabehera. Eta gero etorriko dira beste borrokaldiak. Xabik 20:00 aldera izango du eta Kortak, aldiz, 20:15 inguruan".

Geroago eta zale gehiago

Lau lagun horiei boxeoren harra barruraino sartu zaie, Boucharrek nabarmendu duenez: "Pandemia ostean hasi nintzen entrenatzen, baina oso serio hartu nuen eta gogorik ez nuenean ere entrenatzen etortzen nintzen. Bi urte hauetan gogor jardun dut eta oso gustura nabil. Izan ere, boxeoa kirol jarduera zorrotza da, eta osoa. Hau da, sasoi onean egon behar duzu, etengabe mugitzen ari zarelako". Noski, ez da gauza bera boxeoren entrenamenduak egitea edo borrokatzen animatzea. Hala, Kortabarría kontrarioari izaten zaion errespetua nabarmendu du: "Badakizu zure aurrean dagoenak zuk beste lana egin duela honaino iristeko, eta horrek errespetua merezi du. Baina kirol jarduera moduan ere hartzen dute askok; lagun-talde bat gara hemen".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Urola-Bergara

Zap. 16:00. Argixao.

Mondra-Zarautz

Zap. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Añorga

Dom. 16:30. Ibarra.

Vasconia-Aloña Mendi

Dom. 17:00. Donostia.

EMAK. OHOR. ERREG.

Bergara-Real Sociedad

Atzeratua.

Leintz Arizm.-Tolosa

Dom. 16:30. Azkoagain.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Olarizu

Zap. 11:30. Agorrosin.

Betoño-Aretxabaleta

Zap. 17:30. Gasteiz.

GORENGOEN MAILA

Antzuola-Getariako

Dom. 16:00. Eztala.

Anaitasuna-Mondra

Dom. 16:30. Azkoitia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Antiguoko-Eskoriatza

Zap. 19:00. Donostia.

Lagun Onak-Mondrate

Dom. 18:00. Galdakao.

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Lazkao

Zap. 17:00. Musakola.

SASKIBALOA

EBA

MU-Bilbao Basket

Dom. 18:30. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

Leioa SBT-MU

Dom. 12:30. Leioa.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

Soraluce BKE-Azkune

Zap. 16:00. Labegar.

Donosti D.- Mekalki Al.

Zap. 16:00. Donostia.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

Askatuak-MU

Zap. 18:00. Donostia.

ESKUBALOA

GIZON. EUSKA. TXAP.

Muskiz-Fagor I.Aloña

Dom. 11:30. Muskiz.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Cons. Aloña-Zarautz

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Hond.-Mugarri Inguu

Dom. 11:45. Honda.

Soraluce BKE-Aritzbat.

Zap. 13:00. Labegaraie.

GIZON. GAZTE MAILA

Lana Aloña-Hondar.

Zap. 17:45. Zubikoa.

Inguu Arras.-Legazpi

Zap. 18:00. Iturripe.

EMAK. GAZTE MAILA

Inguu Arrasate-Aloña

Zap. 18:00. Iturripe.

ERRUGBIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

ART-Menditarrak

Zap. 16:30. Mojategi.

PILOTA

Oñatin: Gaur, 18:30. Lau partidu.

Aretxabaletan: Gaur, 18:30. Bi partidu.

Bergaran: Gaur, 18:45.

Bost partidu.



Ibai Larrea, artxiboko irudi batean, lasterketa irabazteko metro gutxiren faltan; bihar irteera puntuan izango da. GOIENA

Urteurrena ospatzera datoz atleta gazteak

MENDI LASTERKETA Bihar, zapatua, Antzuolako 8 Miliak lasterketak hamar urte beteko ditu. Gazteen lasterketa da nobedadea eta badirudi eguraldiak tregoa emango duela: 10:20an, 25 gazte abiatuko dira; eta hamar minutu geroago, ia 300 korrikalari

Xabier Urzelai Atxa ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak lasterketaren hamargarren aldia egingo dute bihar (10:20), eta, hain zuzen, lasterketa zapatuan egitea da nobedadeetako bat. "Orain arte, urtero-urtero domekan egin izan dugu. Gure sentazioa herrira begira ere bada hamargarren urteurrena izanda uste dugula ospatzeko egun bat izan behar dela. Eta igande batean, eguerditik aurrera, adibidez, erritmoa moteldu egiten da, jendea etxera joaten da bazkalostean... Hamar urte ere ez ditu edozeinek egiten horrelako lasterketa bat antolatzen. Eguna luzatze aldera eta ospatze aldera, zapatura pasatzea erabaki

dugu", adierazi du antolaketa taldeko kide Gorka Etxezarretak. Eta aurreratu moduan, beste nobedadea da gazteendako lasterketa ere antolatuko dutela: "Gazteena urte askoan ibili gara pentsatzen, gaztetxoak ere pixka bat mendian sartzeko eta zerbait prestatu nahian, baina sekula ez dugu bukatu burutzen. Eta aurten ja ez dugu aitzakiarik izan. Hamargarren urteurrena izanda, pentsatu genuen zerbait ezberdina egin behar genuela. Gazteena bospasei kilometro inguruko ibilbidea izango da, nahiko eskuragarria edozein mutikok edo neskatilak egiteko, eta helduena urterokoa izango da".

Adi urdaiazpikoarekin

Korrikalariak urdaiazpiko bana ere izango dute ibilbidean zehar, nork hartuko zain. Julian Ramirez de Okarizek eman ditu xehetasun gehiago: "Kontua da pare bat urdaiazpiko egongo direla, lehenengo emakumearendako eta lehenengo gizonezkoarendako, ibilbidean zehar puntu estrategiko batean. Ez dugu esango justu non lasterketa egunera arte. Baina egongo da lasterketaren puntu batean urdaiazpiko bana nahi duenak hartzeko. Baldintza bakarra da urdaiazpikoa hartu eta egin beharko duela gero gelditzen den ibilbide zatia urdaiazpikoa eskuan hartuta helmugaraino".

FUTBOLA UDAk lider dagoen Añorga hartuko du Ibarran

Ohorezko Erregionalean etxean jokatu duten taldeak dira Aretxabaleta eta Mondra. Hain zuzen, joan den astean garaipena lortu zuten Calzonen mutilek lehenengo postuan dagoen Añorgaren kontra jokatu dute domekan (16:30, Ibarra). Mondrak, berriz, zazpigarren dagoen Zarautz izango du aurrean Mojategi (zapatua, 16:30).



Amaiak Baten kontra. GOIENA



Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Cádiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek.

Reala Arena futbol zelaiko premium gasetik.

Partida martxoaren 3an, ostirala, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 28

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

"Jokatzeko sekulako oparia izan da Belasko pertsonaia"

KEPA ERRASTI 'IRATI' FILMEKO BELASKO PERTSONAIA

Paul Urkijok zuzendu du VIII. mendeko Euskal Herrian kokatutako istorioa; Kepa Errasti aktoreak ere parte hartu du eta Oñatiko Ganbara abesbatzak abestu du

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARETXABALETA

Zinema jaialdietan harrera "itzela" izan du *Irati* filmak, jaialdi entzutetsuetan publikoaren hainbat sari irabazita. Gaur, egubakoitza, estreinatu dute zinema aretoetan Aretxabaletako Kepa Errasti aktoreak parte hartu duen Eneko Sagardoi eta Edurne Azkarate protagonista nagusi diren film luzean.

Atzerako kontaketa luzea izan da. Gogotsu zaudete filma zinema aretoetan eskaintzeko?

Aspaldi hasi ginen gu atzerako kontaketa egiten. Sitgesko jaialdian ikusi nuen estreinakoz eta Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Zinema Jaialdian bigarrenez. Gogotsu gaude, baina, aretoetan jendeak zelako harrera egiten dion ikusteko. Nik badut beste bitan, behintzat, ikusteko asmoa.

VIII. mendeko Euskal Herrian kokatuta dago; zer kontaktzen du?

Kristautasuna hedatzen ari da Europan, eta sinesmen paganoak desagertzen. Frankoen erasoaldiaren ondoren, Karloagnoren armada Pirinioak zeharkatzera doala, Ibarjaunak laguntza eskatuko dio antzinako jainkosa bati. Odolezko itun baten bitartez, etsaia garaitzen du, trukean bizitza emanda, baina lehenago, Eneko semeari hitzemanarazten dio herria babesteko eta gidatuko duela aro berrian. Urte batzuk geroago, Eneko aitaren

gorpua berreskuratzen saiatuko da, modu paganoan, Karloagnoren altxorarekin batera, lurperatuta dagoena. Kristau fedekoa izanik, Enekok ibarreko pagano baten laguntza behar du: Irati deituriko emakume enigmatiko batena, hain justu.

Belasko zara zu; nor da?

Filmean agertzen den herrian historikoki boterean egon den familiako partaide da. Kontatuko ez dudun arrazoi batzuegatik ikusten du aukera bere burua Ibarjaun izateko. Boterea maite duen pertsona da eta ahaleginak egingo ditu Ibarjaun izateko. Filmean agertzen den kristautasunaren figuretako bat.

Ikusleendako pertsonaia faboritua ez zarela izango sumatzen dugu.

[Barreak] Ez dut uste, antagonista rola jokatzeko dudalako, baina jokatzeko paper oso polita da. Gai honetako gauza txiki batzuk egin izan ditut aurrez, baina hain antagonista eta paper handi moduan, ez. Halako filmak gutxi egiten dira, eta gutxiago euskaraz; hortaz, luxua izan da niretzako, halako aukera gutxi egoten direlako. Ondo gogoratzen dut *casting*-ean parte hartzeko deitu zidaten eguna; 2021eko apirilean Aste Santuko oporrak hartzeko bezperan.

2021eko udazkenean grabatu zenuen; ze oroitzen dituzu?

Oso politikak! Batez ere, lantaldeko kide asko alde zurretik ezagutzen nituelako eta horrek gure

Debagoieneko emanaldiak

Arrasate

- **Otsailak 24** 19:30. Jatorrizko bertsioan.
- **Otsailak 26** 19:30. Gaztelarazko azpiztituluekin.
- **Otsailak 27** 19:30. Azpiztituluekin.

Arexabaleta

- **Martxoak 3** 22:00. Azpiztituluekin.
- **Martxoak 4** 19:30. Azpiztituluekin.
- **Martxoak 5** 19:30. Azpiztituluekin.
- **Martxoak 6** 16:00etan. Azpiztituluekin.

Bergara

- **Martxoak 3** 19:30. Paul Urkijo zuzendaria izango da Seminararioan.
- **Martxoak 5** 19:30.
- **Martxoak 6** 19:30.

Oñati

- **Martxoak 3** 22:00. Azpiztituluekin
- **Martxoak 4** 19:30 eta 22:00. Azpiztituluekin
- **Martxoak 5** 19:30 eta 22:00. Azpiztituluekin.
- **Martxoak 6** 19:30. Azpiztituluekin.



Kepa Errasti da *Irati* filmeko Belasko pertsonaia. DAVID HERRANZ

artean giro oso ona izatea ekarri zuelako, eta, era berean, leku oso politetan errodatu genuelako. Adibidez, Iratiko basoan eta gaztelu batean grabatzea egokitu zitzaidan niri; Oñatiko Arrikruzeko kobetan ez nintzen izan. Ez nituen grabaketa-egun asko izan eta nahiko lasai hartzeko aukera izan nuen; esaterako, Iratiko grabaketak bukatu nituenean, asteburu ederra pasatu nuen gero han, furgoneta eramanda.

Ze aktore izan dituzu alboan?

Eneko Sagardoi eta Edurne Azkarate dira protagonista nagusiak, baina talde artistikoaren zerrenda luzea da. Pantailan ikusiko ditugu, besteak beste: Iñigo Aranbarri, Nagore Aranburu, Elena Uriz, Iñaki Beraetxe eta Ramon Agirre.

Lantalde teknikoa ere puntakoa, ezta?

Bai horixe! Euskal Herrian profesional asko eta onak daude atzean lanean eta elkar ondo ezagutzen dugu gehienok.

Eta zer diozu zuzendariari buruz? Paul tipo talentuduna da, eta anbiziotsua ere bai, baina alderik positiboenan esanda. *Irati*-ren tamainako film bat eus-

karaz aurrera ateratzea oso nekeza da eta harrigarria da nola lortu duen proiektua egitea. Oso umila eta jatorra da eta asko daki historiari eta mitologiari buruz. Gozamina!

Jaialdietatik zapore oso onarekin etorri zarete, publikoaren hainbat sari irabazita. Badago sari hoberik?

Itzela ari da izaten! Sitgesko jaialdiko publikoaren erantzuna oso hunkigarria izan zen. Tenerifeko Isla Calavera jaialdian ere sari bera jaso genuen eta baita Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Jaialdian ere. Pelikulako kontakizunak eus-

"BOTEREA MAITE DU BELASKOK ETA AHALEGINAK EGINGO DITU IBARJAUN IZATEKO"

"PLATAFORMETAN BAINO GEHIAGO, ZINEMA ARETOETAN IKUSTEKO APROPOSAGOA DA"

kaldunen sustraiekin lotura handia du, ama lurrarekiko harremanari eta mitologiari begiratuta, baina jasotako sariak adierazten dute Euskal Herritik kanpo ere estimatua dela.

Hizkuntza aldetik ere ahalegin handia egin dela diozu; zergatik?

VIII. mendeko euskararen eredu edo erreferentzia handirik ez dago eta arlo horretan Gorka Lazkano hizkuntzalariak lan handia egin du. Euskara irakaslea da, euskara asko maite du eta asko daki. Ezaugarri zehatz batzuk bilduta lortu du hizkuntza bat kohesionatzea, ustez garai hartako euskarara hurbildu ahal dena eta, era berean, publikoarentzako ulerterraza izango dena. Prozesu polita izan da.

Erlaxatuta ikusteko filma da ala gerrak direla-eta begiak zabalik ikusi beharrekoa?

Ez du erlaxatzeko aukera handirik ematen, zentzu askotan, ez bakarrik gerra kontuengatik. Paulek maitasun istorio bat moduan aurkezten du *Irati*; eta badago protagonisten arteko maitasun istorio bat, baina, aurrez esan moduan, gure herrialdeari eta ama lurrari buruzko maitasun istorioa da, bereziki. **Ikusten dena polita, eta entzuten dena ere bai, ezta?**

Halako film epikoa izanda, musika asko dago kontakizunean zehar. Maite Arroitauregi *Murseg*o eta Arantzazu Calleja dira soinu-bandaren egileak eta Oñatiko Ganbara Abesbatzak abestu du. Sekulako lana egin dute musikaren egileek ere soinu-banda sortzeko orduan; asko ikertu dute, garai hartan entzuten ziren instrumentuen erreferentziak bilatzen, adibidez. Atzeco-lan handia dago musika alorrean ere.

Gustatu zaizu zuri?

Bai, oso polita da filmaren musika eta asko laguntzen du istorioa jarraitzen edo biltzen. Apropo, nire ustez.

Aktoreek izaten duzue musika-egileekin harremanik?

Kasu honetan bai, aurrez esan moduan, oso gertuko lantaldea izan delako.

Gaur hasita, zinema aretoetan izango da; gomendatuko zenuke?

Plataforma digitaletan ere izango da, baina zinema aretoetara joatea gomendatuko nuke. Pantaila handian ikusteko eta entzuteko filma da, eta euskaraz. Oso garrantzitsua da jendea



Ganbara Abesbatza, Elkar estudioan soinu-banda grabatzen. AITOR BIAIN

Ganbara Abesbatzak abestuta

Oñatiko Aitor Biain musikaria eta berak zuzentzen duen Ganbara Abesbatzako kideak "deseatzen" daude *Irati* filma ikusteko, euren ahotsekin osatutako soinu banda du-eta Paul Urkijok sortutako kontakizunak. "Soinu-banda grabatzeko orduan, pasarte batzuk ikusi genituen, irudien gainean kantatu genuelako, baina azken emaitza, filma osorik, ez dugu oraindik ikusi eta koruko batzuk asteburuan zinemara joango gara. Ikusitako pasarteak aintzat hartuta, errekurtsio gutxirekin egindako film handia dela berresten dut. Guk abestutako kantuak entzun ditugu, Spotify plataforman daude-eta entzungai", dio Oñatiko Ganbara Abesbatzako zuzendariak.

Arroitauregiaren proposamena, 2021eko udazkenean

Aurrez ezagutzen zuen Maite Arroitauregi deitu zion Biaini eta 2022ko ekainean grabatu zuten, Elkar estudioan, soinu-banda. "Filmari buruzko zertzelada orokor batzuk eman zizkidan lehenengo dei hartan, baina nolako musika sortu nahi zuten erabaki barik zutela esan zidan. Abesbatzarendako operari eta bizipen polita da soinu-banda bat grabatzeko aukera izatea, eta, zalantza barik, baiezkoa eman genion. Intentsua izan zen prozesua, baina gozagarria,aldi berean. Kasualitatez, nire urtebetetze egunean grabatu genuen. Errespetuarekin sartu ginen estudioan, baina Maite Arroitauregi eta Arantzazu Callejak giro ona sortu zuten eta oso ondo gidatu gintuzten; oso azkar eta nahiko samur joan zen guztia. Abesbatzako 32 lagun joan ginen eta formatu ezberdinetan grabatu genituen kantuak: nesken koruak abesti batzuk, mutilek abestuta beste pieza batzuk eta elkarrekin beste hainbat pasartetan".

"Minimalista eta oso deskriptiboa"

Hasieran proposatu baino minutu gehiago grabatu zituzten: 40 minutu, guztira. "Ahotsek protagonismo handia dute soinu-bandaren. Eurek biek sortutakoa da musika guztia. Garaikidea da, baina atzera begirada batekin sortutakoa. Musika minimalista da, lasaia, eta oso deskriptiboa. Erdi Aroko musika gogora ekartzen du; bereziki, egitura harmonikoengatik. Eta oso euskalduna ere bada, euskal instrumentu asko ditu; adarra eta alboka, esaterako".

aretoetara joatea aurrerantzean ere, halako euskal ekoizpen handi gehiago sortu gura baditugu. **Irati** filmean egin beharrekoak egin dituzu dagoeneko; proiektu berriren bat baduzu orain esku artean?

Tarara antzezlanarekin jarraitzen dugu aretoetan, oraindik ere hainbat emanaldi egingo

ditugu eta. Era berean, gure Xake Produzioak konpainiaren proiektu berriari azken ukituak ematen ari gara. Maiatzean estreinatzeko asmoa dugu eta *Postdatarik gabeko gutunak* izena du. Buru-belarri eta oso gustura ari gara antzezlan hori entseatzeko.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Tableta InnJoo tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tableta



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sonaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarren dagan 07/23/2023 legearen arabera, gure webgunean dagoen informazioa Goiena foruaren 3. artikuluan zehazki azalduko dugu. Gure webgunean dagoen informazioa gure webgunean dagoen informazioa. Gure webgunean dagoen informazioa. Gure webgunean dagoen informazioa.



Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzen aukeraturako beste lagun batek.

Real Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida martxoaren 3an, ostirala, 21:00etan izango da.



Parte hartzeko azken eguna: otsailak 28

Irabazi bi lagunendako otordua

MONDRAGON HOTELA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 28



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus




DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia


OROIGARRIA

Eugenio Otsoa Ugalde
Leintz Gatzagako Alkatea




Leintz Gatzagan hil zen, 2023ko otsailaren 21ean.

Eugenio zu nola izan zeran Alkate eta gidari zuk borondate onenarekin beti helduaz lanari laguntzeko zu egoten zinen beti gertu eta nunari udaletxeko lagunon partez bihotzez eskerrak zuri.




Leintz Gatzagako Udala.
Leintz Gatzagan, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA




Eugenio Otsoa Ugalde
Leintz Gatzagan hil zen, 2023ko otsailaren 21ean.




Gizon alai ta atsegina eta gainera zuzena Eugenio zu azkar juan zera horrek ematen du pena herrian alde eman dezu zuk zurekin zendun onena Gatzako herriak gordeko du bai beti zure oroimena.

Leintz Gatzagako herriak eta Udalak.
Leintz Gatzagan, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA



Eugenio Otsoa Ugalde
Leintz Gatzagan hil zen, 2023ko otsailaren 21ean.




Izaera garbikoa ez maltzurra ez faltsua borrokan sutua bezain ongille eta zintzoa zurikeriarik gabe gardena bere mintzoa elkartu eta egotea eguneroko leloa,

gatz fabrika suspertzea bere ahalegin osoa bere ametsaren froga museo ta enparikoa nahiz eta ahal den sakonen osatu nire bertsoa bertso baten ezin esan nor zen Eugenio Otsoa


Hegan aske, txantxangorri!
Gatzako herritarak.

OROIGARRIA

Eugenio Otsoa Ugalde



Hainbeste alaitu eta argitu dituzun bazter eta bihotzak gaur ilun dauden arren, ez dira berehala zutaz ahaztuko. Eskerrik asko eta laster arte, Eugenio.



Elayko lankide eta lagunak.
Antzuolan, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA



Eugenio Otsoa Ugalde



Gaur, lider handi bat agurtu dugu, eta, batez ere, gizaki aparta; ukitu zuen pertsona bakoitzarengan arrastoa utzi zuena haren jakiturarekin eta ontasunarekin.

Celayk bat egiten du amaztearen, familiaren eta lagunon minarekin.

Goian bego.



Celayan (Guanajuato, Mexico), 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA

Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'



2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

Elkarlanean egindako lana bihotzez eskertuz.



Aramaio Udala eta Aramaio Argindar Banatzailea.
Aramaion, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA



Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'



2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.


Ezina ekinez egina... Eskerrik asko, Eugenio!



Sormeneko lagunak.
Leintz Gatzagan, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA

Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'




2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.


Eskerrik asko Herria egiteagatik.

Atxorrotx kultur elkarte eta Inkernu Taberna.
Eskoriatzan, 2023ko otsailaren 24an.

ESKER ONA



Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'




2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, azken agurretar etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Leintz Gatzagan, 2023ko otsailaren 24an.


OROIGARRIA

Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'




2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

Zauden tokian zaudela, segi gerran eta umorea zabaltzen.




Debagoieneko Mankomunitatea.
Leintz Gatzagan, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA



Eugenio Otsoa Ugalde
'Gerra'



2023ko otsailaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

Gaztaie eta ardaue, talue eta txistorrie, korbati eta trajie, Gerra eta saltsie.

Zu zauden tokixen ez da faltauko umorie.

Etxekeuei eta lagunei Mondrautik Gatzagarainoko besarkada haundixe.

Santamas eta Maritxu Kajo Komisiñuek.
Arrasaten, 2023ko otsailaren 24an.

Oroilore
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu




Gari deitu zuzenean edo, nahizgo baidenue, jakinarazi zuen atzeturako-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu naitz dezuzena.

Marioven, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatzeko baloak dituen horietakoak. Guk baditugu gorleku zuzentzeko, gure beharri duzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

HILETA


**Margarita
Altuna Cillaurren**

Angel Astondoaren alarguna

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 76 urte zituela.



Haren aldeko hileta-elizkizuna zapatuan, otsailaren 25ean, izango da, 18:00etan, Barajuengo Andra Mari elizan.

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik.*

Berataratuko zaretanoi, aurrez eskerrik asko sendikoen izenean.
Aramaion, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA

**Margarita
Altuna Cillaurren**

Gorka Astondoa Altuna zinegotziaren ama

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 76 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Aramaioko Udala.
Aramaion, 2023ko otsailaren 24an.

OROIGARRIA


**Bittor
Etxebarria Elorza**

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.



*Arraburun hezia eta Labian bizia
Ardiak eta bihorrak buruan
Anboto, Kasatxo... begietan
Txantxak eta umorea ahoan
Bihotz ona eta pertsona hobea
Izar berri bat piztu da
Aramaixoko zeru ederrean*

Beitiatar loben partez.
Aramaion, 2023ko otsailaren 24an.

ESKER ONA


**Bittor
Etxebarria Elorza**

Bittori Beitiaren alarguna

2023ko otsailaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2023ko otsailaren 24an.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

ARRASATE Merkemerkaia

Udazken eta neguko azken maukak erosteko aukera. 18:00etan, Dirty Durum Brass Band taldea.
Arrasaten.

ARAMAIO Jubilatuen mus txapelketa eta afaria

Alaiak erretiratuaren elkarteko kideendako.
Erretiratuaren elkartean, 17:00etan.

ARRASATE 'Maleta kontuak' ipuin kontaketa

Maidar Galartzarekin, 4 urtetik gorakoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloik elkartearen eskutik, dantzazale guztiendako.
Kulturolean, 18:30ean.

OÑATI 'GR 282 - Artzaintza natura bidea' dokumentala

Aitor Intxaurrearen lana, Ingurumen Jardunaldien baitan. Egileak berak aurkeztuko du.
Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA Mendi Film festibala

Los tiempos cambian, El buscador de luz, A baffin vacation, New way up eta *Creation theory* pelikulak emango dituzte. Gaurko sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Otxoteszena kantuz' emanaldia

Lur Maitea Otxotearekin eta Jatorki Ahots Zuriak taldearekin. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ZAPATUA 25

OÑATI 'Pianoaz gozaten' jaialdia

Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Elgetako, Soroluzeko, Legazpiko eta Oñatiko musika eskoletako piano-jotzaileak. Guztira, 85 ikasle elkartuko dira, adinaren arabera banatuta.
Santa Ana antzokian, 09:15ean.

ARRASATE Merkemerkaia eta kale ekintzak

Udazken eta neguko maukak erosteko aukera. 11:30ean, Zirkun Zirkoa; 13:00etan, Swingcollective, Arbolapetan; eta 19:30ean, Erromintxelak, Herriko Plazan.
Arrasaten.

OÑATI 'Menopausia eta plazera' ikastaroa

Iraide Gulinek emango du, Jabetze Eskolaren baitan.
Euskaldun Berria gelan, 10:00etan.

ANTZUOLA Antzuolako 8 Miliak lasterketa

Hamargarrena egingo dute. 10:20an, gazteen proba; eta 10:30ean, helduena.
Herriko Plazan.

BERGARA Zuhaitz landatzea

Erreziñategin landatuko dituzte bertako zuhaitzak. Herriar guztiendako.
Gorlako aparkalekuan, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.
Musakolan, 11:30ean.

ARRASATE 'Gure kanoa' antzezlana

Zurrunka Teatrotarekin. 4 urtetik gorakoendako. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Gipuzkoako boxeo txapelketak

Sorabox taldearen eskutik.
Uarkapen, 17:30ean.

ARRASATE Graffiti tailerra

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Gure heroiak' liburuaren aurkezpena

Axier Lopez egileak egingo du berba.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ANTZUOLA Korda Rota, Burugabe, Eten eta Lilura taldeak

Antzuolako 8 Miliak lasterketaren harira.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 26

OÑATI Artasora irteera

Hango pagadietan egindako ikerketaren inguruko azalpenak emango dituzte Julen Astigarragak eta Asier Herrerok, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Enpresagintzako aparkalekuan, 09:00etan.

ARRASATE Familia-meza

Katekesi familiarrean parte hartzen dutenendako.
Parrokian, 11:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren emanaldia

Irekia.
Osoko bilkuren aretoan, 12:00etan.

ARRASATE 'Egurra lantzen' erakusketa

Arrasateko Tailaginen Elkartearen 40. urteurrenaren harira. Ikusgai egongo da martxoaren 17ra arte.
Kulturaten, 12:00etan.

OÑATI 'Anonyme popular'

Igor Elortza bertsoariaren proiektu berria. Rafa Rueda musikaria izango du ondoan. Sarrerak, Txokolatexan eta Udalaren webgunean.
Gaztelekuan, 12:30ean.

ARRASATE 'Familiari jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako.
Santa Marinako ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE Oreak Eguna

Hankapaluak, *slike line* eta beste, gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ELGETA Herrixa Dantzan

Euskal Herriko plazetarako dantza berriak proiektuko dantzak ezagutzeko eta lantzeko saioa.
Espaloian, 19:00etan.

ESKORIATZA Mendi Film festibala

Agur artzai, This is beth, Adrenaleni sucks eta *Doo sar* pelikulak emango dituzte. Gaurko sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.



ASTELEHENA 27

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Martxoaren 8a antolatzeko asanblada
Denon bizitzak erdigunean
leloarekin. Irekia.
Arkupan, 18:30ean.

MARTITZENA 28

ARRASATE Idazketa tailerra
Isabel Albarekin egingo dute, gazteleraz.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Oinarriko argazkilaritzari ikastaroa
Ilunpetan argazki taldearen eskutik.
Gaur egingo dute lehen saioa.
Eltzia, 19:00etan.

ELGETA Irakurketa taldea
Bertol Arrietaren *Gezurra berdaderoa* liburuaren gaineko saioa.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'Paradisua' eleberriaren aurkezpena
Joxemari Berasategi eta Maialen Berasategi aita-alabek eroan dute euskarara Nobel saridun Abdulrazak Gurnah-en eleberria, Jokin Zaitegi bekari esker. Udal Bibliotekako solasaldietako kideek eta AEDko kideek parte hartuko duten irakurraldian.
Kulturateko Loramendi gelan, 19:00etan.



ZURRUNKA

ARRASATE 'Gure kanoa' antzezlan, umeendako
Senegalgo arrantzale-familia bateko kide Abba txikiaren bizipenak kontatzen ditu Zurrunka taldeak, txotxongiloen bidez. Arrantzaleen unibertsoa bidaiatzeko aukera. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

EGUAZTENA 1

BERGARA 'El mundo árabe-islámico: diversidad y pluralidad' hitzaldia
Zeinab Shawkyk egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxironon, 18:00etan.

OÑATI 'Ella y mi género' ipuin kontaketa
Bartzelonan jaiotako Alberto Garcia narratzaileak egingo du, Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdiaren baitan.
Zinema aretoan, 19:00etan.

BERGARA Euskadiko pilota eta surf selekzioen ofizialtasuna eskatzeko hitzaldia
Gorka Iturriagak egingo du berba, Bergarako EAJk gonbidatuta.
UNEDen, 19:00etan.

BERGARA 'Aftersun' pelikula
Jatorrizko bertsoan eta azpittituekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 2

ARETXABALETA Ixadebalde
24. azoka izango da. Postuak dendan kanpoan egongo dira.
Orduetgia: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00.
Aretxabaletan.

ESKORIATZA Odol-ateratzea
Herritar guztiendako.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

ELGETA Xalbadorperen batzarra
Bazkide guztiak daude gonbidatuta.
Ozkarbi elkartearen, 17:00etan.

BERGARA '(Ez)amatasunak ikuspegi feministatik jardunaldiak' liburuaren aurkezpena
Emagin elkartearen eskutik.
UNEDen, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Eskoriatza Mozambikerekin' hitzaldia
Beñat Arzadunek egingo du berba.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Arima Soul
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 3

ARRASATE Nagusilan ezagutzeko aukera
Irekia.
Kulturaten, 17:00etan.

OÑATI 'Atzo, etzi. Oñatiko Kultur Ondare Etnografikoa' liburuaren aurkezpena
Erreusak proiektu etnografikoan egindako lana jasotzen duen liburua da. Aleak salgai egongo dira gaurko aurkezpenean.
Zinema aretoan, 18:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Irati
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

BERGARA
SEMINARIXOIA
Tár
Domeka eta astelehena: 19:30.

El gato con botas
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA

El triángulo de la tristeza
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

Operación Fortune
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Rabbit academy
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ
FLORIDA

As bestas
Egubakoitza eta zapatua: 20:45.
Domeka: 20:30.
Astelehenerik eguenera: 20:00.

El asombroso Mauricio
Zapatua eta domeka: 12:00.
El gato con botas Zapatua eta domeka: 12:00.

Almas en pena de Inisherin
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 22:00.
Domeka: 18:45, 21:30.
Astelehenerik eguenera: 17:30.

Asterix y Obelix
Zapatua eta domeka: 12:00.

Bidean jarraituz
Zapatua eta domeka: 11:30.
Martitzenetik eguenera: 21:25.

Los Fabelsman
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 21:30.
Domeka: 18:5, 21:15.
Astelehena eta martitzena: 20:00.
Eguaztena eta eguena: 20:30.

Mi querido monstruo
Zapatua eta domeka: 11:45.

Aftersun
Egubakoitza eta zapatua: 19:15.
Domeka: 18:45.
Astelehenerik eguenera: 19:00.

Quantumania
Egubakoitza: 17:00, 19:30.
Zapatua: 11:45, 17:00, 19:30.
Domeka: 11:45, 16:15, 18:45.
Astelehenerik eguenera: 17:30.

Ellas hablan
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka: 19:00.
Astelehena: 21:15.
Martitzenetik eguenera: 19:15.

El triángulo de la tristeza
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:45.

Domeka: 16:00, 21:00.
Astelehenerik eguenera: 20:00.

Asuntos familiares
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 21:45.
Domeka: 16:45, 21:15.
Astelehenerik eguenera: 17:00.

Irati (jatorrizko bertsoan)
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua: 12:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 12:00, 18:30, 21:00.
Astelehenerik eguenera: 20:00.

Irati
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 17:00.
Domeka: 16:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30.

Momiak (euskaraz)
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 18:45.
Domeka: 16:30, 17:00.

KRITIKA

The Fabelmans ★★★★★
Zuz.: Steven Spielberg. **Herr.:** AEB (2022). **Aktoreak:** Gabriel LaBelle, Michelle Williams, Paul Dano. **Iraupena:** 151 minutu.

Oroitzapenen idealizazioa

ANTONIO ZABALA

The Fieldmians pelikulan gurasoak omentzen ditu Spielbergek, oroitzapenen idealizazioa erabiliz. Lan autobiografikoa da. Sammyri zinemara joaten den lehenengo aldiak sorrarazten dion ustekabeak haren bizitza astinduko du. *El mayor espectáculo del mundo* pelikula ikusiko du eta han gertatzen den tren-istripua etxean birsortzen eta filmatzen ahaleginduko da, eta, handik aurrera, etxean eta eskolan egiten dituen filmaketak gero eta sofistikatuak izango dira. Spielberg zinemagilearen sorrerarekin batera, haren familia nolokoa den ezagutuko dugu. Gurasoek familiaren erritmoak markatuko dituzte: aita teknologia-berritzailea da

eta haren lanagatik askotan aldatuko du bizilekua familiarik; amak, berriz, espiritu artistikoa du, eta arazo psikologikoak.

Oso ondo landuta daude familia-eszenak, hain zalapartarekin eta gatazkarekin. Sammy ezkutuko amodio istorio batez jabetzen denean, amarekin dituen gatazkek, amaren osaba baten agerpen profetikoa, arrebekin dituen eszenek... zinema ederreko uneak eskaintzen dizkigute. Sammy institutu berri batera joaten denean, filmaren interesa zerbait jaisten da. *Regreso al futuro*-ko tonua gogorarazten du. *The Fieldmians*-ek, film borobila izan barik, zinema ederraz beteriko eszena ugari ditu bere baitan.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Haragi-aldatzea

Maitatu edo gorrotatu egiten dira Aratusteak; iruditzen zait zaila dela erdiko terminoa aurkitzea. Ni lehenengo taldekoa naiz, baina badakit gorrotorako pausoak bide motza duela. Haragi-uzteaz ari zaigu *aratuste* hitza, latinetik datorren *carne* (haragi) *levare* (uzte edo kentze) alteraziotik. Nahiz eta etimologikoki erlijio kutsua izan, hori egiten dugu Inauteriak datozenean: gure haragia utzi beste batenarekin aldatzeko. Kameleoi konplexua.

Araurik ez dagoela dirudien arren, mozorrotzean ere badaude muga abstraktu batzuk. Ezin da jaiaren aitzakiaren baitan mozorro arrazista edo transfoborik onartu, adibidez. Ez dut jaia zapuztu nahi; gogorarazi nahi nuen hurko zapaldua iraintzen duten *mozorro* asko daudela, ez besterik. Herriko koinatua trabestiz mozorrotzen denean, datozen urteetako Aratuste guztietan etxean geratzeko gogoa baino ez zait geratzen. Horregatik diot maitasunetik gorrotorako pausoa oso laburra dela.

Kameleoitasunak bere artea du, eta benetan uste dut haragi-aldatze elegante eta dibertigarriak egin daitezkeela, zapal dutako kolektiborik mindu gabe. Ez da horren konplikatu.

BUKATZEKO

Besoetakoari oparitzen zaion opil berezia

Eguaztenean hasi zen garizuma eta Pazko-domekara arte iraungo du. Garizuma garaia karapaixo garaia ere bada; bada, tradizioa dena garai berrietara ere egokitu da. Txorizoaz eta arrautzaz gain, txokolatea, sagarra eta datilak ere izaten dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Garizuma garaia Hausterre egunetik Pazko-domekara bitartekoa izaten da; eta, hain zuzen, Hausterre eguna Inauteri jaien amaiera ere bada. Garizuma karapaixo garaia da Debagoienean; batez ere, Leintz bailaran eta Oñatin mantentzen den ohitura da. Aita eta ama pontekoek euren besoetakoari egiten dioten opil berezia da karapaixo. Bada, dagoeneko hasi dira horiek egiten eta oparitzen.

Udaberriari ongietorria

Adituek diote erromanizazioa baino lehenagoko ohitura dela karapaixo edo garapaioa. Udaberriari ongietorria egiteko egiten zen: eta horretarako erabiltzen zen ogia, emankortasuna adierazteko, eta arrautzak, bizitza berria adierazteko. Horrez gain, txorizoa ere jartzen da: hiruki forma izaten du karapaixoak, ertz bakoitzean arrautza jartzen zaio eta erdian txorizoa.

Garai berrietara egokituta

Gaur egun, karapaixo gaziak bakarrik ez dira egiten, eskualdeko gozotegietan karapaixo gozoak ere egiten dituzte. Horiek txokolatzeko arrautzak izaten



Errastiko Ogiako arduradunak, karapaixoarekin. A.E.G.

dituzte, eta almendrak edo gozokiak.

Arrasateko Errastikoa Ogia okindegian orain dela hiru urte hasi ziren karapaixoak egiten. "Oraindik ere badago ohitura besoetakoei karapaixoa oparitzeko", azaldu du okindegiko arduradun Naiara Uriartek. Euren kasuan, aukera berrietara zabaltzea erabaki zuten. Txorizoarekin eta arrautzarekin egindako karapaixoaz gain, karapaixo beganoak eta begetalak ere egiten dituzte. "Beganoen kasuan, datilak eta sagarrak erabiltzen ditugu; eta begetalen kasuan, arrautzak, datilak eta sagarrak erabiltzen ditugu", azaldu du Uriartek. Garai berrietara egokitu eta elikadura ohitura guztietara egokitutako opil bereziak egiten dituzte.

Oñatiko Aiastui okindegian ere badabilza karapaixoarekin: "Badago, bai, besoetakoari karapaixo oparitzeko ohitura. Urtearen arabera izaten da, baina 80 bat karapaixo egin izan ditugu". Txorizoz eta arrautzaz beteriko karapaixoak egiten dituzte Aiastuin. Ogizun okindegian ere egiten dituzte, enkarguz: "San Blas opila bukatu berri dugu eta orain karapaixoarekin hasiko gara. Gozoak ere egiten ditugu, gero eta gehiago. Gehien saltzen dugu Oñati aldean, eta Elgetan eta Angiozarren baita".

Arrasaten, esaterako, hileko hirugarren zapatuan egiten den bertako produktuen azokan, martxoan, karapaixo izaten da azokako protagonista nagusia. Aurten, martxoaren 18an izango da, eta karapaixoaren salmenta eta tailerra egingo dute, besteak beste.

HARIRA ARRASATE

AGINTALDIARI ERREPASOA UDAL ORDEZKARIEKIN

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA' SAIOA

OTSAILAREN 28AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

MARIA UBARRETXENA (ARRASATEKO ALKATEA), MAIDER MORRAS (EH BILDU), EVA ABUIIN (PODEMOS ARRASATE) ETA ARITZ MURUA (PSE-EE)

GOIATZ ARANAK AURKEZTUTA.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

